


Kriminologiako gradua

2018/2019 ikasturtea

# Justiziarekiko konfiantza maila Euskal Herrian eta Espainian

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Amane De la Fuente Errazkin-ek eginiko lana

Auxkin Galarraga Ezpondak zuzenduta



*Eskerrak*

*Graduan zehar eduki ditudan irakasle guztiei beraien ezagutza gurekin partekatzeagatik*

*Auxkineri bere laguntza eta konpromisoarengatik*

*Familiari niregan konfiantza edukitzeagatik*

*Lagunei nire sostengua izateagatik*

# AURKIBIDEA

LABURPENA.....	1
1. SARRERA ATALA.....	2
1.2. Lana burutzeko motibazioak .....	2
1.3. Lanaren helburuak.....	3
1.4. Zehaztutako hipotesia.....	4
1.5. Erabilitako metodologia .....	6
1.6. Interes kriminologikoa. ....	6
2. ATAL TEORIKOA.....	7
2.1 Kapital sozialaren gainbehera .....	8
2.2. Erakundeekiko konfiantza.....	15
2.2.1. Erakundeekiko konfiantza faltan eragin duten faktoreak.....	17
2.2.2. Krisialdi ekonomikoa eta instituzionala.....	21
2.2.3. Erakundeekiko konfiantza faltaren ondorioak eta eraginak.....	24
2.3. Justiziarikiko konfiantza.....	26
2.3.1. Justiziarikiko konfiantza faltan eragiten duten faktoreak.....	27
Justiziaren politizazioa.....	27
Justiziaren partzialtasunaren pertzepzioa. ....	31
Justiziaren eraginkortasun faltaren pertzepzioa .....	32
3. ATAL ENPIRIKOA.....	36
3.1. Datu sekundarioen analisisa .....	37
Kapital sozialaren inkesta .....	37
3.1.1 Erakundeekiko konfiantza maila orokorrean .....	38
Erakunde desberdineko konfiantza Euskadi eta Espainian .....	40
Erakundeekiko konfiantza eta kapital sozialaren arteko erlazioa .....	41
Konfiantzan eragina duten erakundeen ezaugarriak .....	46

3.1.2 Justiziarrekiko konfiantza maila.....	48
Nazioarteko konparaketa.....	50
Autonomia Erkidego desberdinen arteko konparaketa .....	56
Talde sozialen araberako desberdintasunak Espainian eta Euskadin.....	58
3.2. Profesionalen eta instituzioen iritzia .....	68
3.2.1. Adituak ( Abokatuak, Epaile eta fiskalak) .....	68
3.2.2 Eragile publiko desberdinak.....	74
4. ONDORIOEN ATALA .....	75
4.1. Diagnostika .....	75
4.2. Problematika honen ondorio sozial eta politikoak .....	87
4.3. Hobekuntzarako norabideak.....	89
4.4. Etorkizunerako erronkak.....	92
BIBLIOGRAFIA .....	94
TXOSTEN EXEKUTIBOA.....	103

## LABURPENA

Lan honetan, Espainia eta Euskal Herriko Justiziarekiko konfiantza maila baxua aztertuko dugu. Horretarako, datu sekundarioen analisiak burutu baino lehen, hainbat hipotesi planteatu dira, besteak beste, azken urteetan mendebaldeko herrialdeetan kapital sozialaren gainbehera bat gauzatu dela eta hau izango dela erakundeekiko eta justizia sistemarekiko dagoen konfiantza mailaren zergatia. Bildutako datuekin hainbat arlo aztertu ditugu; kapital sozialaren gainbehera, erakundeekiko konfiantza maila eta justizia sistemarekiko konfiantza nazioarteko konparaketa eginez, talde sozialaren baitan eta profesionalen iritzia kontuan hartuta.

*Hitz gakoak: Kapital soziala, justizia, konfiantza, erakundeak*

## RESUMEN

El presente trabajo pretende observar el nivel de confianza en la Justicia tanto en España como en el País Vasco. Para ello, antes de analizar los datos secundarios, se plantearon unas hipótesis, entre otras la de que en los últimos años el nivel de capital social a decaído sobre todo en los países de occidente y que esta sería la causa de la disminución de la confianza en el sistema judicial. Con los datos recogidos, hemos analizado distintos ámbitos; el declive del capital social, la confianza en las instituciones y la confianza en el sistema judicial haciendo una comparación internacional, en base a grupos sociales y teniendo en cuenta la opinión de profesionales. Finalmente, fueron realizados planteamientos de mejora en cuanto al incremento en el nivel de confianza hacia el sistema judicial.

*Palabras clave: Capital social, justicia, confianza, instituciones*

## ABSTRACT

The aim of this project is to analyze the level of trust in the Justice System in Spain and in the Basque Country. Therefore, before we started analyzing the secondary data some hypotheses were considered, among others, level of social capital had decreased in the last few years in western countries and that is the reason of the reduction in the level of trust in the Justice System. With the collected data we analyzed different ambits: the decrease in social capital, the trust in institutions and the trust in justice contrasting international justice systems, based on social groups and taking into account the opinion of professionals. Finally, some recommendations for improvement were put forward to increase trust in the Justice System.

*Key words: Social capital, justice, trust, institutions*

## **1. SARRERA ATALA**

### **1.2. Lana burutzeko motibazioak**

Egunerokotasunean, familia eta lagunekin mantendutako elkarrizketetan justiziarekiko hainbat komentario negatibo entzun ditzakegu. Erakunde honek funtzionamendu txar bat dula adierazten dute, eta ondorioz honekiko konfiantza baxu bat azaleratzen dute.

Komunikabideetan ere, ugariak dira justiziarekin zerikusiak daukaten berriak, eta programa gehienetan justiziaren funtzionamendua zalantzan jartzen dela ikusi dezakegu.

Baina graduan zehar, justizia sistemari buruzko teoria ikasi ondoren eta justiziak eskuhartu duen kasu errealak ikusi ondoren, erakunde honen funtzionamendua ez nuke txarra bezala kalifikatuko. Hortaz, herritarrek eta komunikabideek adierazitako funtzionamendu txarra errealitatearekin bat ez datorrela iruditzen zait, eta ondorioz, herritarrek justiziarekiko daukaten konfiantza ezta ere.

Bestalde, kriminologia graduan zehar, justiziarekiko dagoen konfiantza mailari buruz hitz egin dugu zeharka, eta nahiz eta fenomeno hau aspektu kriminologikoak aztertzeke garrantzitsua izan, batez ere delituen prebentzio eta ebazpenerako, ez dugu sakonki aztertzeke aukerarik izan.

Hortaz, nire lanean alde batetik herritarren justiziarekiko konfiantza aztertuko dut, batez ere konfiantza falta honen kausetan zentratuz eta konfiantza maila igotzeko burutu daitezkeen neurriak planteatuz.

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak justiziarekiko konfiantzari buruzko bederatzi ikerketa burutu ditu urte desberdinetan zehar (1984, 1985, 1986, 1988, 1990, 1997, 200, 2003 eta 2005 urteetan), baina azken 13 urteetan ez dute honelako lanik burutu eta justiziarekiko konfiantza maila iritzi finko bat ez denez, lan honen baitan ikusiko dugun moduan, gaur egungo konfiantza maila aztertzea interesgarria iruditzen zait. Bestalde, ikerketa hauetan justiziaren konfiantzari buruzko hurbilketa formal bat burutzen da, kontzeptu eta egitura juridikoetan zentratuz. Aspektu hauetan zentratzeaz gain, komenigarria ikusten dut ikuspuntu zabalago bat bereganatzea, gizarte egiturak, ohiturak, erlazioak eta biztanleriaren aspektuak kontuan hartuz, aspektu soziologiko batetik problematika honi erreparatuz.



Gaur egun arte, justiziarikiko dagoen konfiantza mailari buruzko datu asko jaso dira, baina lortutako emaitzak ez dira kontzeptu teorikoekin erlazionatu eta ez dira etorkizunerako proposamen edo erronkak ezartzeko erabili. Horrexegatik lan honen baitan, urte askotan zehar jasotako datuez baliatuko gara, kontzeptu teorikoekin erlazionatuko ditugu, eta azkenik, justiziaren konfiantzari buruzko ondorioak atera eta egoera hobetzeko planteamenduak burutuko ditugu.

### **1.3. Lanaren helburuak**

Lan honen helburu nagusia Euskal Herriko eta Espainiako justiziarikiko konfiantza maila aztertzea da, bereziki konfiantzan eragiten duten faktoreak identifikatuz eta konfiantza maila handitzeko planteamenduak burutuz.

Horretarako, lehenik eta behin, justiziarikiko konfiantza mailan eragiten duten faktore orokorrak planteatuko dira teorikoki, aipatu dugun bezala, gaur egun arte gai honi buruzko ikerketak justizia sistemaren ezaugarri zehatzetan zentratu baitira, beraz, gure lehen helburua, teoriak kontuan hartuz, justiziarikiko konfiantza maila ikuspuntu soziologiko batetik aztertzea izango da.

Behin, faktoreak ikusita, datu sekundarioen bidez justiziarikiko konfiantza mailaren bilakaera aztertuko dugu, jarraian, jada planteatutako teoriekin erlazionatuz, konfiantza mailak izan duen beherakada azaltzen duten faktoreak eta prozesuak identifikatzeko helburuarekin, gure hipotesiak baieztatzen diren ikusiz.

Ondoren, datu sekundarioen bidez, justiziaren konfiantza pertsonen banakako aspektuen arabera aztertuko dugu, aspektu soziologikoez gain, aspektu indibidualak kontuan hartuz konfiantzari buruzko ikerketa oso bat burutzeko helburuarekin.

Azkenik, teoriak eta datuek eskainitako informazioarekin, eta gure hipotesien baitan, justiziarikiko dagoen konfiantza maila handitzeko proposamenak burutuko ditugu, etorkizunerako hausnarketarako bide berriak planteatuz.

#### **1.4. Zehaztutako hipotesia**

Lan hau burutzerakoan hainbat hipotesi planteatu ditugu:

Lehenik eta behin, justiziariekiko konfiantza maila aspektu soziologiko batetik aztertzea komenigarria iruditu zaigu, esan bezala, gaur egun arte egindako ikerketak aspektu zehatzetan zentratzen baitira. Justizia administrazioa erakunde bat denez, gainontzeko erakundeekin batera aztertzea interesgarria iruditu zaigu, erakunde ezberdinen arteko bilakaerak ezaugarri komunak dituen aztertzeko, edo bestetik justiziaren konfiantza eta gainontzeko erakundeen arteko konfiantzak inongo erlaziorik ez duen ikusteko.

Erlazio hau ezarri ondoren, erakundeen konfiantzan eragiten duen faktore komun bat bilatzeko intentzioarekin, kapital soziala aztertzea iruditu zaigu komenigarria, hau baita gure ustez erakundeekiko konfiantzan eragiten duen aspektu soziologikorik esanguratsuen.

Beraz, gure lehen hipotesia planteatuz, kapital sozialak erakundeekiko konfiantzan eragiten du. Bien artean erlazio positibo bat dago, hau da, geroz eta kapital sozial gehiago egon, geroz eta erakundeekiko konfiantza gehiago egongo da, eta alderantziz, geroz eta kapital sozial gutxiago egon, geroz eta erakundeekiko konfiantza gutxiago egongo da.

Kapital sozialari buruzko hipotesiak burutzerako orduan, Europako mendebaldeko herrialdeetan gertatu den bezala, Espainian eta Euskal Herrian azken urteetan kapital sozialaren gainbehera bat sortu dela planteatu dugu.

Aldi berean, gure lehen hipotesia betetzen bada, kapital sozialaren gainbeherak sortuko lituzkeen hainbat ondorio planteatu ditugu; Geroz eta kapital sozial gutxiago egon, geroz eta erakundeekiko konfiantza gutxiago egongo da, bestetik beste, kapital sozialaren gainbeherak konfiantza orokorra jaistea sortzen baitu eta ondorioz, erakundeekiko konfiantza ere jatsi egingo da.

Erakundeekiko konfiantza aztertzen jarraituz, gertuago sentitzen diren erakunde publikoekiko konfiantza, urrunago sentitzen diren erakundeekikoa baina handiagoa dela esango dugu. Gertuago sentitzen ditugun erakundeak hobeto ezagutzen ditugu eta hauekin identifikatzeko joera gehiago izaten dugu, beraz udaletxeetan edo Eusko Jaurlaritzan, Gobernu zentrolean edo senatuan baino konfiantza gehiago daukagula planteatu dugu.

Bestetik, erakunde altruistetan erakunde ez altruistetan baina konfiantza gehiago daukagula diogu, izan ere, erakunde altruistak beste pertsonak laguntzeko sortutako erakundeak dira, gizartea hobetzeko helburuarekin eta ez onura pertsonalak lortzeko asmoarekin, beraz, printzipioz hauekiko konfiantza gehiago edukiko dugula uste dugu.

Behin erakundeekiko konfiantzari buruzko planteamenduak burutu ondoren, Euskal Herri eta Espainiaren arteko alderaketak burutuko ditugu. Lehenik eta behin, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza orokorra, Espainiako konfiantza mailarekin alderatuz, handiagoa dela esango dugu. Lehen esan dugun bezala, gertuago sentitzen diren erakundeengan konfiantza gehiago daukagula diogu, ondorioz, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza maila Espainiarekin alderatuz handiagoa dela esan dezakegu.

Faktore honek erakunde guztiekiko konfiantzan eragina dauka, baina lan honen baitan justizierekiko konfiantzan zentratu garenez, bereziki erakunde honen konfiantza aztertuko dugu. Beraz, Euskal Herriko justizierekiko konfiantza maila, Espainia eta Europar Batasunean dagoen konfiantza mailarekin alderatuz handiago dela esango dugu.

Behin justizierekiko konfiantzan zentratuz, kapital sozialaz gain, konfiantza honetan eragiten duten faktoreak aztertu nahi ditugu, beraz, horren baitan, hainbat hipotesi planteatu ditugu.

Lehenik eta behin justizierekiko konfiantza aldagai edo faktore pertsonal ezberdinen arabera baldintzatuta dagoela esango dugu. Hau da, nahiz eta faktore orokor eta sozialak justizierekiko konfiantza mailan eragina eduki, faktore pertsonalak ere konfiantzan eragina daukate, beraz, gaiari buruzko ikerketa oso bat burutzeko faktore hauek ere kontuan hartu behar ditugu.

Bereziki bi faktore pertsonal kontsideratu ditugu aztertzeko garrantzitsuenak. Lehena, pertsonen lan postua da; justizia sisteman lan egiten duten pertsonen, bertan lan egiten ez duten pertsonen baina konfiantza gehiago daukate justizian, izan ere, hauek daukate justiziarri buruzko ezagutza maila handiagoa eta ezagutzak konfiantza maila igotzea eragiten du.

Azkenik, faktore pertsonal ekonomikoa hartuko dugu kontuan. Honen baitan, maila ekonomiko baxuko pertsonen, maila ekonomiko altuko pertsonen baino justizierekiko konfiantza gutxiagoa daukatela esango dugu. Justiziaren definizio orokorra kontuan

hartuta, pertsona guztiak berdinak izan beharko lirateke, baina maila ekonomikoaren baitan hainbat desberdintasun daudela ikusi ditzakegu, horrexegatik maila baxuko pertsonak justiziarengan konfiantza gutxiagoa daukatela planteatuko dugu.

## **1.5 Erabilitako metodologia**

Lehenik eta behin atal teorikoan, zehaztutako hipotesien hurbilketa teorikoa egingo dugu gaiari buruzko literatura desberdina aztertuz.

Lehenik eta behin kapital soziala aztertuko dugu, azken urteetako gainbehera azaltzen dituzten faktoreak ikusiz. Jarraian, kapital sozialaren gainbeherak sortzen dituen ondorioak aztertuko ditugu, eta bereziki erakundeen konfiantza faltan zentratuko gara, justiziaren konfiantza faltari azalpen bat emateko intentzioarekin.

Ondoren, justiziaren konfiantzan eragiten duten faktore esanguratsuenak aztertuko ditugu; justiziaren politizazioa, partzialtasunaren pertzepzioa eta eraginkortasun eza.

Atal enpirikoan, planteamendu teoriko hauek gaur egun eskuragarri ditugun datuekin kontrastatuko ditugu. Atal teorikoaren estruktura bera jarraituz, lehenik eta behin kapital sozialaren bilakaera aztertuko dugu azken urteetan egon den gainbehera ikusteko. Jarraian, erakundeekiko konfiantza aztertuko dugu eta kapital sozialaren gainbeherarekin erlazionatuko dugu. Ondoren, justiziarekiko konfiantzan zentratuko gara; lehenengo, konfiantzak urteetan zehar eduki duen bilakaera ikusiko dugu. Ondoren, nazioarteko konparaketa bat egingo dugu Espainiako maila gainontzeko herrialdeekin alderatzeko. Jarraian, Espainia mailan autonomia erkidegoren baitan konfiantzan aldaketak dauden ikusiko dugu. Segidan, justiziarekiko konfiantza biztanleriaren norbanako ezaugarrien baitan aztertuko dugu (adina, ideologia, sexua...). Bukatzeko, justizia administrazioan lan egiten duten profesional eta adituen iritzia aztertuko ditugu justiziarekiko konfiantza handitzeko burutu daitezkeen neurriak bilatzeko helburuarekin.

## **1.6 Interes kriminologikoa.**

Kriminologia ikasketa multidisziplinarra da eta justizia eta herritarren arteko erlazioa aztertzeko beharrezkoak diren hainbat arlo ikasten ditu; psikologia, zuzenbidea, soziologia, delitugileen tratamenduak...

Arlo guzti hauetako adituek, justiziaren inguruko ikerketak burutu ditzakete bere espezializazioan zentratuz, kriminologoek ordea, arlo guzti hauek elkar-harremanetan jarri ditzakegu ikerketa multidisziplinarra eginez, justiziaren konfiantza aztertzeak eskatzen duen ikuspuntua emanda hain zuzen ere.

Bestalde, problematika hau aztertuz, kriminologiak jarraitzen dituen helburuak lortzeko hainbat aspektu interesgarri landuko ditugu, besteak beste, justiziaren funtzionamendua hobetzea eta bere legitimotasun maila handitzea. Hauek sustatuz, hainbat jokaera negatibo ekiditea bilatuko dugu, adibidez, herritarrok justizian konfiantza maila baxu bat edukita, arazoak bere kabuz ebazteko joera gehiago edukiko dute, indarkeriazko jokabideak sortaraziz. (Mayoral Díaz-Asensio & Martínez i Coma, 2013, pág. 10) Beraz, justiziarekiko konfiantza handitzea delituen prebentziorako tresna edo bide bat izan daiteke.

## **2. ATAL TEORIKOA**

Atal teorikoan, justiziarekiko konfiantza aspektu soziologiko batetik analizatuko dugu, gure hipotesietan planteatutako aspektuak ikuspuntu teorikoekin erlazionatuz.

Hipotesiak jarraituz, atal honetan hiru aspektu orokorretan zentratuko gera; lehenengo, kapital soziala aztertuko dugu, honen gainbeheraren kausak eta ondorioak ikusiz, erakundeekiko konfiantzan daukan eragina ikusteko helburuarekin. Ondoren, erakundeekiko konfiantzan zentratuko gara, kapital sozialarekin bat, justiziarekiko konfiantzan eragin dezaketen faktoreak identifikatuz, krisi ekonomikoa eta instituzionala bereziki kontuan hartuz. Azkenik, justiziarekiko konfiantzan zentratuko gera, aurretik aztertu ditugun aspektuak kontuan hartuz, konkretuki gai honetan eragiten duten faktoreetan zentratuz, bereziki justiziaren politizazioan, partzialtasunaren pertzepzioan eta eraginkortasun faltaren pertzepzioan zentratuz.

## 2.1 Kapital sozialaren gainbehera

Gure lehen hipotesiarekin abiatuz, ikuspuntu soziologiko batetik kapital sozialaren gainbehera aztertuko dugu, esan bezala, erakundeekiko eta justiziarekiko konfiantzan eragiten duen faktore soziologiko esanguratsuenetarikoa kontsideratzen baitdugu.

Kapital sozial gutxi dagoen gizarteetan mesfidantzan oinarritutako harremanak nagusi dira, eta honek, ondorio negatiboak sortzen ditu, besteak beste, gizarte harreman guztiak judizializatzen dira. (Barandiaran & Korta, 2011) Bestalde, orokorrean dagoen mesfidantza hori gizarteko arlo guztietara zabaltzen da, justizia barne, beraz, justiziaren konfiantza aztertzeko kapital sozialaren gainbehera aztertu behar dugu.

Baina gai honetan murgildu baino lehen, kapital sozialaren kontzeptua definitu beharra dugu. Kapital soziala, gizarteek eta gizabanakoek garatu dezaketen tresna baliotsu bat da, interakzioa praktikatzan duten heinean, helburuak lortzeko edo zenbait baliabide eskuratzeko aukera eskaintzen duena. “Azpiegitura” hau gabe ezinezkoa edo askoz zailagoa izango litzateke helburu eta baliabide horiek lortzea. (Gallo Rivera & Garrido Yserte, 2009)

Kapital sozialaren kontzeptua 1916 sortu zen L.J. Hanifan-en eskutik, eta historian zehar hainbat autoreek erabili izan ohi dute beraien teoriak azaltzerako orduan, besteak beste, Jane Jacobs, Glenn Loury, Pierre Bourdieu...

Esan beharra dago, kapital soziala norbanakoek daukagun tresna bat dela, eta ondorioz, bakoitzak edukiko du tresna honen erabilera handitzeko edo txikitze ahalmena. Baina kapital soziala ez du pertsona batek soilik sortzen, gizarteak baizik, horrexegatik gizartearen ezaugarrien arabera, kapital soziala aldatuz joango da, norbanakoan daukan indarra aldatzen doan heinean. (Jordana, 2000)

Kapital soziala egoteko, pertsona bat beste pertsona batekin erlazionatua egon behar du, eta bigarren pertsona honek lehenengoari onurak heman behar dizkio.

Beste pertsoneri laguntzeko motibazioak ez dira beti berdinak, bi arrazoi printzipal desberdin ditzakegu: motibazio kontsumistak eta motibazio instrumentalak.

Lehenengoari dagokionez, hainbat pertsonak, jokabide jakin batzuk bereganatuak dituzte eta ekintza onak burutzen dituzte modu naturalean, adibidez, donatiboak eman, trafikoko

normak errespetatu... jokabide hauek barneratutako arauen ondorioz sortzen dira, eta beste pertsonak jokabide hauek baliabide moduan erabili ditzakete. Honela, beste pertsonak dira kapital soziala edukiko dutenak eta beste pertsonen gizatasunaz baliatuz.

Bigarrenak ordea, kapital soziala sortzen duten pertsonak, hau da, beste pertsonetikiko onura egiten dutenek, jokabide horrek etorkizunean beraientzako onura bat sortuko dutelakotan egiten dute.

Kapital sozialaren kontzeptua urteetan zehar aldetzen joan da, baina definizio guztietan hainbat ezaugarri komun aurkitu ditzakegu; arauak, konfiantza eta harreman-sareak.

Hiru kontzeptu hauek bi esparru nagusiren baitan aztertzen dira: Esparru estrukturala, pertsonak, instituzioek eta erakundeek dituzten harreman objektiboak aztertzen dituenak, eta esparru kognitiboa, arauetikiko, beste pertsonetikiko eta instituzioetikiko daukagun konfiantzan zentratutako harreman subjektiboak aztertzen dituenak (Barandiaran & Korta, 2011). Gure kasuan, azken honetan zentratuko gera, harreman subjektiboetan, pertsonak erakundeetikiko daukaten konfiantza interesatzen zaigulako.

Bestetik, kapital sozialaren definizioak bi norabide nagusi hartu ditu. Bata, maila mikro batean zentratzen da, kapital sozial indibiduala, eta bestea ordea, maila makro batean, kapital sozial komunitarioa dena.

Kapital sozial indibiduala, pertsona konkretu batek dituen sare sozialak dira eta sare honen balioa, hauetatik atera ditzakeen onuretan neurtuko da. (Pena-Lopez & Sánchez Santos, 2013, pág. 16). Coleman eta Bourdieu autoreak zentratuko dira ikuspuntu honetan eta hauek, kapital soziala ezaugarri indibidualago, lehiakorrago eta instrumentalago bat bezala ulertzen dute (Zubero Beascochea, 2012).

Bourdieren ustez, kapital sozialaren funtzioa instrumentala zen. Hau da, pertsonak beraien erlazioak ezartzen dituzte etorkizunean hauetatik atera ditzaketen onuretan pentsatuz.

Bestetik, Colemanek, kapital soziala gizartearen kontrolerako tresna gisa ikusten du. Honela, lotura sozialak, arauen betetzea ziurtatuko dituzte. Komunitateari garrantzi handia ematen dio, eta bere ustetan, norbanakoen arteko interakzioak komunitatearentzako onurak sortzen ditu, aldi berean, komunitatearen ongizateak pertsonengan eragin positiboa dauka. Kapital soziala gizatasun kontzeptuarekin

erlazionatzen hasi zen, eta honela, kapital sozialaren kontzeptua geroz eta gehiago zabaltzen joan zen, azkenean, gizarte bateko gauza on eta positibo guztiak definitzeko erabiltzen zen kapital sozialaren terminoa. (Portes, 2013)

Kapital sozial komunitarioa ordea, gizarteak dituen jokabide prosozialak aztertzen ditu eta honek gizarte osoarentzat ekar ditzakeen onuretan, konfiantzan, arauetan eta sare sozialetan zentratzen da (Pena-Lopez & Sánchez Santos, 2013, pág. 13). Hau da, kapital sozialak hartzen duen norabide hau indibiduala baina komunitarioagoa, kooperatiboagoa eta kulturalagoa da (Zubero Beascochea, 2012). Putnam da ikuspuntu komunitarioaren autorerik esanguratsuena.

Kapital sozial indibiduala eta komunitarioa ez dira independenteak, biak elkar erlazionatuak daude. Esan bezala, kapital sozial komunitarioa pertsonen arteko konfiantzaren arau kulturalak bereganatzen dituen instituzionalizazio formal eta informala da. Honela, sistema sozial bateko kideen arteko kooperazio-ekintzak sortuko dute kapital sozial komunitarioa. Instituzioek arauak sortzen dituzte eta arauak aldi berean, pertsonen jokabideak bideratzen dituzte, instituzioak sisteman duen eragina indartuz.

Ala ere, kapital sozial komunitarioa kapital sozial indibidualarekin gatazkan jarri daiteke, izan ere, kapital sozial indibidualak askotan arau instituzionalak hausteko erabiltzen dira. Bestetik, arau instituzional batzuk kapital sozial indibiduala apurtzeko helburua daukate.

Baina orokorrean, norbanakoen arteko harremanak arau instituzionaletan baimenduta daude eta modu berean, norbanakoek arau instituzionalak onartzen dituzte, bai arau hauek barneratu direlako edo hauek haustek dakarren zigorra ekiditeagatik.

Bien arteko erlazioa azaltzeko Colemanen ikuspuntu hartuko dugu kontuan. Norbanakoek sare sozial hurbiletan eta zabaletan parte hartzen dute konfiantzazko eremu batean interakzionatzen. Interakzio hauek sare sozialak sendotzen ditu eta norbanakoek sare zabalago batean interakzionatzea errazten du, kooperazio ekintzak eta konfiantza orokor eta instituzionala sortuz. Kultura sozial honek, aldi berean, norbanakoari eragiten dio, seguritate, pertenezia, autonomia eta ongizate sententzia sortuz. Honela, elkar on egiten diren kapital sozial indibiduala eta kolektiboa daukagu (Zubero, 2010).



Beraz, orokorrean kapital sozial indibiduala eta komunitarioa elkar konplementatzen dira. Ala ere, kapital sozial indibiduala egoteak ez du esan nahi kapital sozial komunitarioa egongo denik.

Kapital sozialaren kontzeptua eta ikuspuntuak ikusi ondoren, ikusgai kolektiboan zentratuko gara, kapital soziala eta erakundeekiko konfiantza aztertzeko egokiagoa iruditzen zaigulako. Bereziki Putnamen ideiak kontuan hartuko ditugu, autore honek artzen zuelako batez ere kontuan instituzio publikoak.

Jarraian, kapital sozialaren gainbeheran eragiten dituzten faktoreak aztertuko ditugu, gure hipotesian esan bezala, azken urteetan kapital sozialaren gainbehera bat gauzatu baita. Beraz, jarraian kapital sozialaren gainbehera ikuspuntu kognitibo eta kolektibo batetik aztertuko dugu.

Lehenik eta behin, adituen ustetan, denbora falta izango da kapital sozialaren gainbeheran gehien eragiten duen faktorea (D. Putman, 2002) . Honek ez du esan nahi gure arbasoek baina denbora libre gutxiago dugunik, baizik eta denbora libre honetan burutzen ditugun ekintzak desberdinak direla. Gure arbasoek bizilagun eta herri ekintzetan parte hartzen zuten bere denbora librean, alegia, beste pertsonekin erlazionatzea ezinbestekoa zen ekintzetan. Gaur egun ordea, gure denbora librean bakarrik igarotzeko aukera gehiago ditugu, batez ere berrikuntza teknologikoei esker, aurrerago sakonago aztertuko dugun bezala. Ondorioz, pertsonekin gutxiago erlazionatzen garenez, kapital sozialaren gainbehera bat sortzen da.

Hiriaren egitura ere faktore esanguratsu bat izan daiteke. Gaur egungo hirien egitura orokorrean nahiko antzekoa da, dendak, komertzioak eta lan postuak hiriaren erdialdean daude eta etxebizitzak normalean zentrotik nahiko urrunduta, batez ere etxebizitza unifamiliarreko urbanizazioak. Pertsonak eguna hiriaren zentroan igarotzen dute, lanean, eskolan, mandatuak burutzen... eta bizitegi gunera soilik lo egitera joaten dira. Horrexegatik, eremu honetan bizi diren bizilagunen erlazioa eta interakzioa txikia dela esan dezakegu.

Bestalde, hiritik desplazatzeko moduak ere aldatu egin dira azken urteetan. Gaur egun, kotxe bat baino gehiago daukate familia gehienek eta lanpostura eta unibertsitatera joateko erabiltzen ohi dira. Ondorioz, lankide, lagun edo bizilagunek ez dituzte garraioak partekatzen hiritik desplazatzean, bakoitzak bere kabuz desplazatzen da. Garraio

publikoaren erabilera ere gutxitu da, eta denbora tarte horretan burutu liratekeen interakzioak ezabatu dira, interakzio sozialak are eta gehiago gutxituz.

Kapital sozialean eragiten duten faktoreen artean, multikulturaltasuna ere oso eztabaidatua izan da. Nahiz eta immigrazioa fenomeno berri bat ez izan, azken urteetan, batez ere mendebaldeko herrialdeetan, handitu egin dela esan dezakegu. Fenomeno honen aurrean, kapital soziala nola eraldatzen den azaltzeko Putnamek hiru teoria bereizten ditu; kontaktuaren hipotesia, gatazkaren teoria eta kontrakzioaren teoria.

Lehenengo hipotesiaren arabera, dibertsitate etnikoak, solidaritatea eta tolerantzia sustatzen dituela dio. Gure antzekoak ez diren pertsonekin erlazionatzen garen heinean, hauekiko ditugun zalantza eta ezezagutzak gainditzen ditugu, eta azkenik, hauekiko konfiantza bereganatzen dugu. Beraz, multikulturaltasunak kapital soziala handitu egingo du.

Bigarren teoriak dio, dibertsitate etnikoak, talde kanpoko mesfidantza handitzen duela eta talde barneko konfiantza handitu, batez ere, eskasak diren baliabide konpetentziarengatik. Beraz, kasu honetan, talde barneko kapital soziala handituko da, baina talde kanpoko txikitu.

Azkeneko teoriak ordea, dibertsitate etnikoaren ondorioz, talde barneko eta talde kanpoko mesfidantza handitzen dela dio, norbanakoek bere baitan gordetzen pertsona ezezagunak sortzen duten mesfidantza sentazioaren ondorioz. Gure kasuan, azken teoria hau hartuko dugu kontuan, hau baita Putnamen ustetan, dibertsitate etnikoak kapital sozialean sortzen dituen aldaketak hobeto azaltzen duena. Honen baitan, dibertsitate etnikoak gizartean hainbat ondorio negatibo sortu ditzake; gobernu lokala, agintari politiko eta komunikabide lokalekiko mesfidantza areagotuko da, proiektu komunitarioetan parte hartze baxuagoa eta karitatezko ekintza eta donatibo gutxiago egingo dira, adiskidetasun intimo eta fidagarri gutxiagoak edukiko ditugu, alaitasun sentazio gutxiagoa eta bizitzaren kalitatearen pertzepzio negatiboago bat edukiko dugu eta telebista ikusten denbora gehiago pasako dugu, tresna hau entretenimendu bide printzipala izatera pasatuz.

Beraz, azken teoria hau kontuan hartuta, dibertsitate etnikoa kapital sozialaren gainbeheraren faktoreetako bat kontsideratu dezakegu (Zubero, 2010).

Dudarik gabe, teknologiari buruz hitz egin behar dugu kapital sozialaren gainbehera aztertzerako orduan. Gizarteak XX. mendean jasan duen aldaketarik handienetarikoa da

eta. Egia da teknologiak gauza positibo asko eskaini dizkigula, baina gauza negatibo asko ere ekarri dizkigu.

Teknologiaren bidez, gure denbora librea pasatzeko ohiturak aldatu ditugu, geroz eta errealtate pasibo eta pribatuago batean murgilduz. Geroz eta ohikoagoa da pantaila baten bidez lortzen den entretenimendu bat hautatzea, beste pertsona batzuekin partekatu ditzakegun eginkizunak egitea baino. Modu batean, teknologia (sare sozialak, telebista, irratia...) gure egunerokotasunetik eskapo egiteko entretenimendu bezala erabiltzen ditugu, beste errealtate batean murgiltzen gaituen heinean.

Orokorrean, teknologia tresnen bidez, batez ere telebista ikusterakoan, gure errealtatetik urruntzen gaituzten programak ikusten ditugu, hau da, programa entretenigarriak eta ez programa informatiboak, herritartasun konpromisotik urrun dauden programak hain zuzen ere. (D. Putman, 2002, pág. 330) Guzti honek gizarteko egoera errealari buruz egoki informatuak egotea oztopatzen digu, gizarteko arazoetan partizipazio aktibo bat edukitzeko aukerak gutxituz. Beraz, teknologia eta telebista kapital sozialaren gainbeheraren faktore bat kontsideratu dezakegu.

Balore moral eta etikoak kontuan hartzeko faktore garrantzitsuak dira baita ere. Pertsonen interakzioak balore eta arau batzuen baitan sortzen dira (López Fernández, Martín Alcázar, & Romero Fernández, 2007, pág. 1063), eta honek kapital soziala sortzen du, beraz, baloreak eta kapital soziala elkar konplementatzen direla ikusi dezakegu, hau da, hauetako bat aldatzen bada bestean eragina izango du.

Azken urteetan mendebaldeko gizartearen balore etiko eta sozialen aldakuntza bat sortu da, batez ere teknologiaren eraginez. Aspektu fisiko eta superfizialei garrantzi gehiago ematen diegu eta pertsonen arteko hurbiltasuna murrizteak enpatia eta beste hainbat baloreen murrizketa ere ekar liteke. Balore hauek murrizteak pertsonen arteko hurbiltasuna gutxituko du, eta ondorioz pertsonen arteko interakzio eta ezagutza maila gutxituko da baita ere. Honek hainbat ondorio ekar ditzake, besteak beste gizartearekiko konfiantza orokorra murriztea.

Krisi ekonomikoa ere, kapital sozialaren gainbeheraren faktore bat izan daiteke. Egoera ekonomiko zailak pertsonen jarreraren eragina daukate, eta pertsonengan jokabide negatiboak sorrarazten dituzte, besteak beste, jokabide autoritarioak bereganatzen dira eta mesfidantza sustatzen da.

Bestetik ordea, krisi ekonomikoari aurre egiteko burutzen ditugun esfortzu eta ahalegin kolektibo eta indibidualak pertsonen arteko kohesioa eta ontasuna areagotu dezakete kapital soziala sortuz. Hala ere, gizartearekiko ziurgabetasuna eta amorruek kapital sozialaren balantza beheraka kokatzea eragingo du.

Beraz, ikusi dezakegu estatuko egoera ekonomikoak eta pertsonarteko konfiantzak erlazio positiboa daukate, hau da, zenbat eta egoera ekonomiko hobetua izan, geroz eta pertsonarteko konfiantza gehiago egongo da, eta geroz eta egoera ekonomiko txarragoa egon, geroz eta pertsonarteko konfiantza okerragoa egongo da. (Zizumbo Colunga, Zechmeister, & A. Seligson, 2010)

Behin kapital sozialean eragina duten faktoreak ikusita, kapital sozialaren gainbeherak ekar ditzakeen ondorio negatiboak ikusiko ditugu. Ondorioak aztertuz, erakundeekiko konfiantzaren jatsiera aztertzeaz gain, zeharka ere konfiantza honetan eragiten duten faktoreak ikusi nahi ditugu. Bestetik, kapital sozialak gizartean daukan garrantzia azpimarratuko dugu.

Lehenik eta behin, kapital sozialaren gainbeherak, esan bezala enpatia gutxituko du hutsune etiko eta moralak sortuz. Honek, aldi berean, kapitalismoarengandik bereganatutako jabegoaren eta boterearen garrantzia handitzea ekarriko du.

Izan ere, itxurakeriaren goraipamen bat sortzen ari da eta pertsonen arteko konpetentzia material batean murgilduta gaude. Pertsonen artean lagundu beharrean, bata bestearekin lehiatzen gara, guzti hau teknologien bidez zabaltzen delarik.

Bestetik, informazioa zabaltzea eragozten da, izan ere, gainbeheraren ondorioz harremanak gutxitu egiten dira, eta aldi berean harremanekiko mesfidantza handiagoa da, beraz informazioa partekatu eta zabaltzeko ekintza gutxiago sortuko dira.

Harreman sozialak gutxitzeak eta mesfidantza handitzeak Ghettoak sortzea eragingo du. Izan ere, harreman esparrua txikiagoa izango da mesfidantzaren ondorioz, eta pertsonen soilik bere inguruko jendearekin erlazionatzea sortuko du honek.

Bestetik, kapital sozialaren gainbeherak, pertsonen arteko interakzioak gutxitzen dituenez, anomia, bakardadea eta banakako jokabideak areagotuko dira, eta honek aldi berean, pertsonarteko interakzioak gutxituko ditu.

Azkenik, konfiantza mailaren jaxiera ere ekarriko du eta mesfidantzan oinarritutako harremanak areagotuko dira, honek, bi ondorio nagusi edukiko ditu;

Batetik segurtasun falta eta krimen kopuruaren gorakada bat sortuko da (Jara, 2005), konfiantza murrizteak pertsonen arteko mesfidantza areagotzen du eta honek, bata bestearikiko jarrera biolentoak edukitzeko probabilitateak areagotzen ditu.

Gainera, herritartasun hurbilketa eta interakzioa txikia denez, krimen bat burutzearen ondorengo lotsa edo estigma soziala sumatzeko aukera gutxiago daude, eta hau ez zen krimena burutzea oztopatuko lukeen faktore bat izango.

Bestetik, erakundeekiko konfiantza mailaren gutxitzea ekarriko du, izan ere, pertsona arteko mesfidantza gizartearekiko konfiantzan islatuko da, erakundeekiko mesfidantza sortuz, dena dela, gertaera hau hurrengo puntuan aztertuko dugu sakonki.

Ondorio guzti hauek aldi berean beste hainbat ondorio negatibo sortuko dituzte, beraz, esan dezakegu kapital sozialaren gainbeherak orokorrean gizartearen ongizateari eragiten dioela.

Laburbilduz, ikusi dezakegu kapital sozialaren gainbeherak ez lituzkela ondorio positiboak edukiko gure gizartean eta garrantzitsua izango zela gainbehera hau etetea.

## **2.2. Erakundeekiko konfiantza**

Behin, kapital sozialaren gainbehera eta honek dakartzan ondorioak aztertuta, ondorioetako batean zentratuko gara, erakundeekiko konfiantzan ain zuzen ere, justiziarekiko konfiantza aztertzeke ezinbestekoa iruditzen zaigulako.

Gure lanaren helburua justiziarekiko konfiantza aztertzea denez, eta kapital sozialaren ezaugarri garrantzitsu bat konfiantza dela ikusi dugunez, puntu honetan konfiantzan espezifiko batean zentratuko gara.

Hiru konfiantza mota nagusi ezberdin ditzakegu kapital sozialaren baitan; konfiantza espezifikoa, talde zehatzetan zentratzen dena, adibidez, familia, lagunak, ezagunekiko konfiantza... Konfiantza orokorra, pertsona ezezagunetan eta talde abstraktuetan konfiatzeko joera. Eta azkenik, konfiantza instituzionala, erakunde ezberdinekiko

daukagun konfiantzan zentratzen dena, justiziarengan, poliziarengan, elizarengan... (Barandiaran & Korta, 2011)

Gure kasuan, esan bezala, azken honetan zentratuko gera, erakundeekiko konfiantza aztertu nahi dugulako, bereziki justiziarekiko konfiantzan zentratuz.

Beti bezala, puntu bat sakonki aztertu baino lehen, kontzeptuak behar bezala definituko ditugu. Kasu honetan, erakundeekiko konfiantza zer den definituko dugu: erakundeekiko konfiantza edukitzeak, erakunde bat etorkizunean gure beharren baitan modu egoki batean jokatu duenaren ziurtasuna edukitzea da. (Berganza Conde, Herrero, & Carratalá, 2016)

Kontuan eduki behar dugu erakundeekiko konfiantza ez dela faktore finko bat, hauekiko daukagun iritzia momentu eta faktore ezberdinen baitan aldatu daiteke. (Rodríguez, 2009)

Woolcock-en iritziz (1998) kapital soziala inguru politiko, legal eta instituzionalekiko menpe dagoen aldagai bat da, beraz kapital soziala eta arlo instituzionalak elkar erlazionatuak daudela ikusi dezakegu. Interes propioengatik lan egiten duten talde sozialak instituzio formalen kalitatearen menpe egongo dira, hau da, zenbat eta instituzio formalen funtzionamendua hobetuz, talde sozialak bere interesak gehiago defendatuko dituzte, instituzioen partetik babesa lortzeko aukera erreal gehiago edukiko dituztelako.

Aldi berean, talde sozial hauek pertsonen arteko interakzioak sortuko dituzte eta herritartasun aktibazioa sustatuko dute, aldi berean herritarren arteko eta herritar eta instituzioen arteko kapital soziala sustatuz. (Gallo Rivera & Garrido Yserte, 2009).

Beraz, esan dezakegu printzipioz kapital sozialak eta erakundeekiko konfiantzak erlazio positibo bat dutela, hau da, kapital soziala gutxitzen bada erakundeekiko konfiantza gutxituko da, eta alderantziz, kapital soziala areagotzen bada, erakundeekiko konfiantza handitu egingo da.

Azkenik, erakundeekiko konfiantza hau hurbiltasunarekin erlazionatuko dugu. Hurbiltasunak, presentzia, kezka, enpatia, errukia eta konfiantza suposatzen du. Erakunde eta herritarren artean zenbat eta hurbiltasun gehiago egon, erakundeen eskutik herritarren beharrak kontuan edukitzen direnaren sententzia handiagoa egongo da, herritarron eskubideak bermatzen eta errepresentazio egoki bat egiten ari direnaren sentimendua areagotuz. (Rosanvallón, 2008) Bestalde, hurbiltasunak ezagutza sortzen du eta denek

daukagu konfiantza gehiago zerbait ezaguna denean ezezagunean denean baino. (Luhmann, 2005)

Beraz, esan dezakegu erakundeen hurbiltasunak eta hauekiko daukagun konfiantzak erlazio positibo bat daukatela, hau da, zenbat eta hurbiltasun gehiago erakunde batekiko geroz eta konfiantza gehiago edukiko dugu erakunde horretan.

Kapital sozialaren gainbeherak eta fenomeno honetatik eratortzen diren beste ondorioetat gain, beste hainbat faktorek daukate erakundeekiko konfiantzan eragina, jarraian aztertuko ditugu.

### **2.2.1. Erakundeekiko konfiantza faltan eragin duten faktoreak**

Puntu honetan, kapital sozialaz gain erakundeekiko konfiantzan eragin dezaketen faktoreak aztertuko ditugu, konfiantza honi buruzko ikuspuntu oso bat bilatzeko helbururekin.

Lehenik eta behin, erakundeekiko konfiantza bi konfiantza mota ezberdinetan bereziko dugu. Alde batetik, konfiantza sozio-kulturala daukagu. Konfiantza mota hau exogenoa da, hau da, erakundeen ekintzetatik kanpo bereganatzen dugun konfiantza da. Sozializazio prozesu luze baten ondoren sortzen da, txikitatik, sozializazio primarioaren bitartez gizartearekiko konfiantza bereganatzen dugu, hau ondoren erakundeekiko konfiantzan islatzen da.

Bestetik, erakundeek burutzen dituzten ekintzen ondorioz bereganatzen dugun konfiantza daukagu. Konfiantza hau endogenoa izango da, eta esan bezala, erakundeek burututako ekintzen ondorioz aldatuz joango da. Erakundeen funtzionamendua zenbat eta hobeago izan, geroz eta konfiantza gehiago edukiko dugu. (Rifà Jané, 2017, pág. 56)

Gure kasuan, erakundeen konfiantzan eragiten duten faktoreak aztertzeko bi teoria hauek elkar erlazionatuko ditugu, izan ere bi motetako faktoreak kontuan hartu behar ditugu erakundeekiko konfiantzaren analisi oso bat burutzeko.

Faktore sozio-kulturalekin abiatuz;

- Lehenik eta behin, gizarte bateko konfiantza orokorra hartu behar dugu kontuan.

Konfiantza orokor baxua daukaten gizarteek, pertsonarteko konfiantza handiago bat garatzen dute, modu batean orokorra ordezkatzeko. Pertsonarteko konfiantza handia dagoenez, azpi taldeak sortzen dira, kideen artean konfiantza handia sortuz. Gizarte mota hauetan erakundeekiko konfiantza txikiagoa da, azpi taldeak erakundeen beharrak ordezkatzeko baitituzte. Honela, pertsona batek arazo bat edukiko balu bere konfiantzazko azpi taldera joko luke eta bertan soluzio bat aurkitu ezean ez lukete erakundeetara joko. Bestetik, konfiantza orokorreko gizarteetan instituzio eta azpi taldeen esku hartzearen arteko oreka bat sortzen da. Instituzio formalak esku hartuko dute soilik azpi taldeen esku hartzea nahikoa ez denean. (Laso, 2010)

Beraz, esan dezakegu gizarte bateko konfiantza orokorra zenbat eta txikiagoa izan, erakundeekiko konfiantza geroz eta txikiagoa izango dela.

- Bestetik, gizarte bateko pertsonarteko konfiantzak erakundeekiko konfiantzan eragina daukala esan dezakegu. Ronald Inglehart-ek burutako inkesta baten bidez, ondorioztatu zuen gizarte bateko pertsonarteko konfiantzaren eta demokraziaren kalitatearen artean erlazio positibo bat dagoela. (Jorge, 2006) <sup>5</sup> Pertsonarteko konfiantzaren ondorioz beste pertsonak onak, zintzoak eta adeitsuak direla sentituko dugu, pertsonengan jokabide positiboak edukitzea sortuz eta gizartean konfiantza klima bat sortuz, ondorioz, erakundeekiko konfiantza ere handitu egingo da. Kapital sozialaren gainbeheren ondorioetan esan bezala, kapital soziala gutxitzeak pertsonen arteko konfiantza gutxitzen du, eta azken honek orain azaldu dugun bezala erakundeekiko konfiantza gutxitzea dakartza, beraz esan dezakegu teorikoki **zenbat eta kapital sozial gutxiagoa eduki geroz eta erakundeekiko konfiantza gutxiagoa edukiko dugula.**

- Herritarrok gai batekiko daukagun ezjakintasuna sinesmen iritziekin betetzen dugu automatikoki, eta erakundeekiko daukagun ezagutzarekin gauza bera gertatzen da. (Rodríguez, 2009). Beraz, erakunde batekiko daukagun ezagutza maila, ez da guztiz erreala, historikoki eta sozialki erakunde horri ezarri zaizkion fama eta sinesmenez bidez osatzen dugu, ondorioz, sozialki erakunde batek daukan ospea banakako iritzian eragina edukiko du.



Faktore sozio-kulturalak aztertu ondoren, esan bezala, erakundeen funtzionamenduari erlazioak dauden faktoreak aztertuko ditugu;

- Erakunde baten funtzionamendua zenbat eta hobeagoa izan, geroz eta konfiantza gehiago edukiko dugu beregan, izan ere gure beharrak asetzea da espero dena erakundeetatik (Liendo, 2011). Herritarrek, erakundeek funtzionamendu egoki bat daukatela jakingo dugu bi bide bidez; lehenengoa, guk edo ezagunek zuzenean erakundeekin edukitako esperientziaren bitartez, eta bigarrena, komunikabideak azalerraten dituzten berrien bitartez.

- Zuzenean bizituko esperientzien bitartez, ezagutza gehiago ere bereganatzen dugu erakundeekin. Bi faktore hauek konfiantzarako aurrebaldintzak dira, hau da, iraganeko gertaerak gaur egungo konfiantza eraikiko dute. Denek daukagu konfiantza gehiago gauza ezagunetan gauza ezezagunetan baino, baina ezagutza horrek mesfidantza ekar dezake. Erakunde batekin esperientzia negatiboren bat eduki izan badugu, erakundea negatiboki baloratuko dugu, ebaluazio negatibo finko bat eginez etorkizunerako, eta konfiantza handitu dezakeen ber ebaluazio bat egitea zailduz. (Onghena, 2003) Beraz, erakunde batekin esperientzia negatibo zuzen bat edukitzea baino, hobeagoa da erakunde horrekin erlazio zuzenik ez edukitzea, nahiz eta aurretik negatiboki baloratu.

- Komunikabideei dagokionez, iritzi publiko bat sortzeko informazioa beharrezkoa da, eta gaur egun herritarrok informazioa komunikabideetatik jasotzen dugu. Fenomeno hau aztertzeko teoria garrantzitsu bat hartuko dugu kontuan, *setting* izeneko. Teoria honen arabera, komunikabideak ez dizkigute gure inguruko berri eta gertaerak modu objektibo batean kontatzen. Komunikabideetako editore eta zuzendariak gure atentzioa berri zehatz batzuetara bideratzen dute gertaera eta berrien selekzioa burutzen dutenean, guretzat berri garrantzitsuenak zeintzuk diren adierazten. Horrela, gai nabarmenduenak gai garrantzitsuenetan bihurtzen dira automatikoki (Rubio Ferreres, 2009). Ondorioz, komunikabideak gehien nabarmentzen dituzten berriak izango dira sozialki gehien eztabaidatuko direnak. Cohen-ek dioen bezala, prentsak ez du lortzen jendeari zer pentsatu behar duen esatea, baina bai ze gaiei buruz pentsatu behar duen esatea.

Beraz, komunikabideak eskaintzen diguten informazioaren arabera eraikitzen dugu gure errealitate eta iritzi soziala.

Teoria hau erakundeekiko konfiantzarekin erlazionatuz, komunikabideek erakundeekin erlazionatuta dauden gaiei buruz geroz eta berri gehiago eman, herritarrok erakundeei buruzko iritzi eta eztabaida gehiago edukiko ditugu, eta ondorioz hauekiko daukagun konfiantza maila aldatuz joango da, maizago zalantzan jarriz. Beraz, komunikabideek erakundeei buruzko zenbat eta berri gehiago eman, erakunde horiekiko iritzi negatibo bat edukitzeko probabilitate gehiago egongo dira.

-Fidagarritasuna ere kontuan eduki behar da, hau da, hitz-emandakoa egingo delakoaren ziurtasuna edukitzea, bai objektu bateri erreferentzia eginez, baita denborari dagokionez ere. Bestalde, hitz-emandakoa ez bada burutzen, iruzurtuak izan garenaren sententzia edukiko dugu eta horrek mesfidantza sortaraziko digu. Faktore hau batez ere erakunde politikoei eragiten die, askotan hitz-emandakoa ez dutelako betetzen, eta honek ez du alderdi politiko zehatz batean eragina edukitzen, baizik eta alderdi politiko guztietan.

- Erakundeei buruz hitz egiten dugunean, erakunde mota guztiak hartzen ditugu kontuan, legislatiboak, juridikoak, ekonomikoak, zientifikoak... baina politikoei aipamen espezial bat egin behar diegu, hauek baitira azken urteetan polemikoenak.

90. hamarkadatik politikariek politika egiteko modu berezi bat bereganatu dute, alderdien artean gauzak leporatzen dira, politika egiteko modu negatibo bat bereganatuz. Gaur egun komunikabideek garrantzi handia ematen diete liskar eta eskandalo politikoei, alderdi politikoen arteko leporatzeak nabarmenduz eta benetako neurri eta erabaki politikoak bigarren plano batean utziz. (Marco Marco & Nicasio Varea). Honek, alderdien tentsio eta liskarrak handitzea eragiten du, beraien artean gai garrantzitsuekiko erabakiak hertzea zailtzen, guzti honek noski, biztanleriak erakunde politikoekiko konfiantza galtzeak eragiten du. Herritarren %90aren uztetan alderdi politiko bakoitzak bere interes propioak defendatzen ditu, eta ez gizarte orokorrarentzako interesak (Jiménez Diaz, 2013).

Bestetik, arlo ekonomikoan eta krisi ekonomikoarekiko buruzko erabakietan finantziario erakundeak eta multinazionalak alderdi politikoak baino botere gehiago daukatela ikusten da, politikarien esku hartzea zalantzan jarriz, hauekiko konfiantza are eta gehiago gutxituz. Beraz, ikusi dezakegu gaur egun alderdi politikoekiko konfiantza edukitzea nahiko zaila dela.

- Erakunde batzuekiko politizazioak ere konfiantzan eragiten du, baina faktore hau aurrerago aztertuko dugu, bereziki justiziaren arloan zentratuz, Konstituzio auzitegiko eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko kideen berritzearen kasuak ikusiz besteak beste.

- Bestetik, erakunde publiko baten ideologiak konfiantzan eragina edukiko du. Automatikoki gure ideologia bereko erakunde batean gehiago konfiatuko dugu, aurkako batean baino, nahiz eta gure ideologia bera daukan erakundeek aurkako ideologiako erakundeek baino ekintza okerragoak egin (Canel & García Molero, 2013).

- Adina ere faktore garrantzitsu bat da. Datuek azaltzen dute, gazteek helduek baino mesfidantza gehiago daukatela erakundeetan. Gazteen bi herenek konfiantza oso baxua edo nulua daukate erakundeekiko (%64), herenetako batek konfiantza maila normala dauka (%36) eta soilik ehun gaztetik batek dauka konfiantza altua erakundeetan (Martín Cabello, 2015, pág. 35).

Bereziki gobernu kanpoko erakundeetan daukate mesfidantza hori, erakunde tradizionalak errefusatuz. Ikerketen bidez, frogatu da gazteek obligazio eta beharrak inposatzen dituzten erakundeetan ez daukatela konfiantzarik, guardia zibila, udaletxeak, eliza, justizia epaitegiak... Bestetik, obligazioak ezartzen ez dituzten eta beraien helburu pertsonalak lortzeko beharrezkoak diren erakundeetan konfiantza gehiago daukate, adibidez, komunikabideak eta unibertsitatean (Martín Cabello, 2015).

Kapital soziala eta aurretik ikusi ditugun faktoreez gain, krisialdi ekonomikoa eta instituzionala erakundeekiko konfiantzan bereziki eragiten duen faktore bat dela kontsideratzen dugu, horregatik faktore hau hurrengo puntuan sakonki aztertuko dugu.

### **2.2.2. Krisialdi ekonomikoa eta instituzionala**

Lehen esan dugun bezala, konfiantza ez da faktore finko bat, eta gizarte bateko egoeraren baitan aldatuz doa. Gizarte bateko egoera ekonomikoen aldaketak, interes pertsonalak aldatzea eragiten du, iritzi eta sinesmen pertsonalak berraztertuz, honek erakundeekiko konfiantza birplanteatzea eraginez (Rifà Jané, 2017, pág. 63).

Faktore ekonomikoei dagokionez, bi mota bereziko ditugu; faktore makroekonomikoak eta faktore mikroekonomikoak. Lehenengoak, estatuaren faktore ekonomikoak kontuan

hartzen ditu, langabezia tasak, hazkunde ekonomikoa... Bigarrenak ordea, krisi ekonomikoak pertsonalki sortzen dituen ondorioetan zentratzen da, langabezia, diru laguntza murrizketak, etxe kaleratzeak... Bi faktoreek erakundeekiko konfiantzan eragina daukate eta elkar konplementatzen dira (Rifà Jané, 2017).

Faktore makroekonomikoen datuak ez daude herritar guztien eskura, horrexegatik, ondorio makroekonomiko subjektiboak pertsonak bere egunerokotasunean jasaten dituzten aldaketa mikroekonomikoekin batera, faktore makroekonomiko objektiboak baina eragin gehiago edukiko dutela ondorioztatu dezakegu (Rifà Jané, 2017). Beraz, faktore objektiboak baino, eragin handiagoa daukate faktore hauei ematen zaien garrantzi, iritzi eta erantzun soziala.

Erakundeekiko konfiantzan eragiten dituzten faktoreen artean, bereziki 2008ko krisi ekonomikoa nabarmendu behar dugu. Krisi ekonomikoak herritarren segurtasun eza bikoizten du, horrexegatik testuinguru hauetan erakundeen esku hartzeak garrantzi handiagoa hartzen du. Erakundeen kalitate handiago bat exijitzen da, batez ere interes generalarekiko ekintzetan. 2008ko krisi ekonomikoak hainbat ondorio izan ditu;

- Ondorio esanguratsuen langabezia izan da. Instituzioen aldetik langabeziari aurre egiteko neurri nahikoak hartu ez direnaren sententzia areagotu da azken urteetan eta honek hauengan konfiantza galtzeak eragin du. (Marco Marco & Nicasio Varea, pág. 435).

- Ezberdintasun soziala izango litzateke kontuan hartu beharreko hurrengo faktorea. 2008ko krisi ekonomikoarengatik ezberdintasun sozialak geroz eta nabariagoak dira. 2010. urtean langabezia tasa %20,3a zen. Langabezia eta gobernuak gastu publikoetatik egindako murrizketen ondorioz, pobrezia tasak gora egin zuten. Honek desberdintasun sozialak areagotzea ekarri zuen, 2005 urtetik 2009 urtera familia aberatsenen eta pobreenen %25eren arteko ezberdintasun ratioa 39,3tik 50,4ra pasatuz.

Ezberdintasun sozial hauek nabariagoak izan dira talde minoritarioetan. Emakumeen kasuan, lan-merkatuko enplegu tasak igotzen joan dira azken urteetan, nahiz eta oraindik gizonekin alderatuz ezberdintasunak aurkitzen ditugun, batez ere, kargu garrantzitsuetan. Ezberdintasun handiena osasun eta babes sozialetan aurkitzen da.

Bestetik, atzerritar eta gazteek ere ezberdintasun sozial hauek jasaten dute, batez ere lan aukeretan soilik kontratazio tenporalak edukiz (Colectivo IOÉ, 2011).

Guzti honek, instituzioen konfiantzan eragina izan du, batez ere ezberdintasun soziala jasan duten pertsonen artean, krisi ekonomikoaren ondorioz langabezia tasak sortzen dituen ezberdintasun sozialak konpentsatu beharrean, areagotu egin baituzte. Kapitalaren gaineko zergak igo beharrean edo iruzur fiskalari buruzko neurri egokiak hartu beharrean, murrizketak gastu publikoetan burutu dituzte. Krisiaren ondorioz arriskuan zeuden herritarrei lagundu beharrean, beraien egoera okertu egin dute.

- Korrupzioak ere erakundeekiko konfiantzan eragin handia dauka. Azken urteetan estatuko alderdi printzipalen baitan hainbat korrupzio kasu agerian jarri dira (Gürtel, Púnica, Malaya, Noos... kasuak) (Jiménez Diaz, 2013). Honek, gure alderdi politiko printzipalengatik iruzurtuak izan garenaren sentsazioa sorrarazten digu. Teorian gure ordezkariak, politikoak, gure interesak bermatu eta babestu behar dituzte, baina korrupzio kasuak agerian jartzerakoan kontrako sentsazioa lortu da. Iruzurtuak sentitzeaz gain, alderdi politikoekin identifikatzeko ezintasuna sortarazi da.

Egoera zailetan, krisi ekonomikoetan, adibidez, askotan herritarrak errudun bat bilatzen saiatzen gara “fenómeno del buen tiempo” izeneko egoera bat sortuz. Herritarrak gobernuarekiko jokabide positibo bat edukiko dugu egoera ekonomikoa ona denean, baina egoera ekonomikoa okertzerakoan gobernuari leporaraziko diogu errua, honekiko konfiantza gutxituz.

Bereziki gobernuarekiko konfiantza oso garrantzitsua da egoera ekonomiko zailetan, ekonomia hobetzeko hartu beharreko neurriak hauen esku utzi behar ditugulako (Rifa Jané, 2017).

Nahiz eta orain arte, krisi ekonomikoaren arloan Espainiari soilik erreferentzia egin, Europa mailako krisi ekonomikoa ezin dezakegu albo batera utzi. Europa mailako politika eta agintariak bateratu gabe daudenez, Europar batasuneko estatuetak krisi ekonomikoei erantzun internazional egoki bat ematea ezinezkoa bihurtzen da. Bestalde, azken urteetan Europako estatuetan alderdi politiko xenofoboak indarra hartzen joan dira, atzerritarren etorrerari uko eginez eta E.B.tik banantzeko ahaleginak burutuz (Francia, Finlandia, Grezia eta Holandaren kasuetan adibidez), honek herritarrek beraien betebeharrak zibikoak alde batera uzten dituztela adierazten du, herrialdeen arteko esku-hartze politikari uko eginez (Jiménez Diaz, 2013).

2008ko krisi ekonomikoaren ondorioak ikusi ostean, esan dezakegu krisiaren ondorioz kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzak behera egin duela, hauen artean elkar eragiten diren heinean.

### **2.2.3. Erakundeekiko konfiantza faltaren ondorioak eta eraginak**

Krisi ekonomikoa eta kapital sozialaren fenomenoak aztertu ditugunez, puntu honetan erakundeekiko konfiantzan zentratuko gara, konfiantza falta honek dakartzan ondorioak ikusiz. Erakundeekiko konfiantza faltak hainbat ondorio ditu;

Lehenik eta behin, sistema demokratiko guztia ahulduko da. Sistema demokratikoa mantentzen duten erakundeetan konfiantza galduko delako eta ondorioz sistema demokratiko osoan ere. (Medina Guijarro, 2005)

Bestetik, alderdi politikoetan konfiantza galtzeak estatuko egoera hobetzeko itzaropenak gutxitzen ditu, demokraziaren ahultzea areagotuz.

Muturreko iritzien manifestazioak azalduko dira, sistema demokratikoarekin ados ez daudela adieraziz. Honek beste pertsonak sistemari buruzko planteamenduak egitea eragingo du, eta ondorioz sistemaren hainbat aspektu negatibo identifikatuko dira, pertsona gehiagok erakundeetan konfiantza galtzea sortuz.

Injustizia sententzia areagotuko da, izan ere, sistema pertsona boteretsuen alde jarriko da, hauei aukera gehiago eskainiz eta merezi dutena baina diru gehiago irabazteko aukerak eskainiz. (Edelman, 2017)

Bestetik, itzaropen orokorra gutxituko da. Lan gogorra ez da behar bezala ordainduko edo konpentsatuko. Etorrizuneko gazteak bizitza hobetoago bat izango ez dutenaren sententzia egongo da eta herrialde osoa norabide egoki batera mugituz ez doanaren sententzia edukiko da. (Edelman, 2017)

Guzti honetaz gain, arazo sozialak sortuko dira. Erakundeek daukate arazo sozialak ebazteko betebeharra, eta erakundeengan konfiantza eduki gabe, herritarrek arazoak ebazteko ez lukete erakundeetara joko. (Beramendi, Delfino, & Zubieta, 2016) Honek hainbat ondorio negatibo sortuz, besteak beste, arazoak bakoitzak bere kabuz ebaztea

hautatzea, arazoak ebazteko indarkeriaren erabilera hautatzearen probabilitatea areagotuz.

Baita ere, partaidetza eta esku-hartzeak gutxituko dira. Herritartasun konpromisoa bermatzen dituzten ekintza formal eta informaletan parte hartzea txikiagoa izango da, interakzio sozialak gutxituz eta ondorioz elkar arauak gutxituko lirateke, delituak burutzeko inguru aproposago bat sortuz. (Jorge, 2006)

Partaidetzaren gutxitzeak arlo politikoan eragingo du, abstentzioetan nabaritu da, jende gehiagok ez du parte hartuko hauteskudetan ez duelako sistema politikoan konfiantzarik. (Paramio, 1999)

Bestetik, borondatezko ekintza eta lanak burutzen dituzten pertsonen kopurua murriztu egingo da. Ikerketen bidez, frogatu da borondatezko lanetan parte hartzen duten pertsonen konfiantza sozial altuagoa daukatela, lan hauetan parte hartzen ez dutenek baino. (Vázquez García, 2009) Konfiantza handia dagoen gizarte batean boluntariora lan gehiago burutuko dira, gizartea hobetuko denaren konfiantza daukatelako. Beraz, ikusi dezakegu bai arlo politikoan eta bai arlo sozialean pertsonen parte-hartzea gutxituko dela, honek aldi berean kapital sozialaren gutxitze gehiago sortuz.

Erakundeengan konfiantza galtzeak buruzagiengan eta gobernariengan konfiantza galtzea ekarriko du, estatuko egoera ondo kudeatzen ez dakitelakoaren sentazioarengatik. Honek, aldaketa handi baterako beharra sorraraziko du (Edelman, 2017) muturreko alderdi politikoaren diskurtsoak gorai patuko dira, ez bereziki hauen edukiarengatik, baizik eta momentuko egoera aldetzeko nahiarengatik. Fenomeno hau azken urteetan Espainian indarra irabazi duen VOX alderdi politikoarekin erlazionatu dezakegu. Gobernarietan eta politikoetan konfiantza orokor gutxi egon da azken aldian Espainian, eta honek aldaketa baten beharra sortu du. Ondorioz, hainbat dira hauteskudetan muturreko VOX alderdi politikoa bozkatu duten pertsonak, ez zehazki alderdi honek ezarri nahi dituen neurriekin ados daudelako, baizik eta estatuko egoeraren aldaketa sakon bat lortu nahi dutelako.

Azkenik, erakundeekiko konfiantza faltak legitimitatean eragina edukiko du. Erakundeekiko konfiantza baxua bada, hauek burutuko dituzten ekintzetan konfiantza gutxiagoa edukiko dugu, deslegitimazioa areagotuz, ondorio hau aurrerago aztertuko dugu sakonki, bereziki justiziarekiko konfiantzan zentratuz.

Guzti honek, gizarte guztian mesfidantza sentazioa areagotzea sortuko du, ala ere, esan beharra dago, pertsonarteko konfiantzak erakundeekiko konfiantzan eragin gehiago duela alderantziz baino, AEBko kasuan adibidez frogatu dute, pertsonarteko konfiantzak konfiantza politikoan eragin gehiago dauka alderantziz baino. (Segovia, Haye, González, Manzi, & Carvacho, 2008).

Hau da, pertsonarteko konfiantzak eragin gehiago edukiko du bai erakundeekiko konfiantzan eta bai konfiantza orokorrean. Ala ere, puntu honetan ikusi dugu erakundeekiko konfiantza faltak ez duela ondorio positiborik ekarriko gure gizartera, eta fenomeno hau eta kapital sozialaren gainbehera elkar-sustatzen dira.

### **2.3. Justiziarekiko konfiantza**

Gizarteko konfiantza aspektu orokorren baitan aztertu ondoren, kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzan zentratuz, puntu honetan justiziarekiko dagoen konfiantza aztertuko dugu sakonki.

Erakundeekiko konfiantzarekin gertatzen den moduan, justiziarekiko konfiantza ez da gauza finko bat, faktore askok eragiten dute, esanguratsuenak orain aztertuko ditugunak izanik.

Lehenik eta behin esan behar dugu, pertsonen justiziari buruz galdetzerakoan, ez dutela justizia ondo definitutako gauza bat bezala irudikatzen, gai konplexu eta lauso bat bezala baizik.

Nahiz eta ez jakin justizia ondo definitzen, honi inguruko iritzia eskatzerakoan ez daukate zailtasunik azkar erantzuteko. Ondoren ordea, iritzi horren argumentu edo arrazoiak eskatzerakoan gehienek ez daukate argumentu argi edo arrazoitu bat, baina ala ere ez dute bere iritzia aldatzen. (Toharia Cortés & García de la Cruz Herrero, 2005, pág. 43)

Hau kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu justiziarekiko konfiantza aztertzea arlo konplexu bat dela, esan bezala, herritarrek automatikoki iritzi bat ematen dutelako argumentu eta arrazoiak kontuan hartu gabe.



### **2.3.1. Justiziarekiko konfiantza faltan eragiten duten faktoreak**

Jarraian, gure ustez herritarren justiziarekiko konfiantza faltan gehien eragiten duten faktore esanguratsuenak hautatu ditugu, konfiantza faltaren fenomenoaren modu oso batean aztertzeko helburuarekin.

#### **Justiziaren politizazioa**

Lehenik eta behin, justiziaren politizazioa aztertuko dugu, kontsideratzen baitugu Espainian oso nabaria dela, batez ere ezkutuan.

Praktikan Espainiako justiziaren politizazioak duen eragina ikusi baino lehen, teorikoki politizazio hau nola erregulatzen den ikusi behar dugu.

Estatu Espainiarrean, Konstituzioak adierazten duen bezala, hiru botere mota daude; botere legegilea, exekutiboa eta judiziala. Teorian, botere hauek beraien artean independenteak izan behar dute zuzenbidezko estatu bat edukitzeko eta legitimazio demokratikoa egoteko (Martínez i Coma & Sanz Labrador, 2009). Espainiaren kasuan, konstituzioak Estatu Espainiarra zuzenbidezko estatu demokratiko bat dela dio (Espainiako konstituzioko 1.1.art), baina ez daukagu estatuko botereak independenteak direla esaten duen artikulurik. Beraz, teorikoki ikusi dezakegu nola zuzenbidezko estatu demokratikoaren kontzeptua ez den bermatzen.

Kasu honetan, botere judizialaren politizazioa aztertu nahi dugu, baina esan beharra dago Espainian politikaren judizializazioa ere oso nabaria dela. Politikaren judizializazioaren gehiegikeriak, justiziaren politizazio batera eramaten gaitu aldi berean, (Cámara Ruiz, 2016) Modu baten bi botereen arteko nahasketa bat gauzatzen da. Honek, botere mugak ongi definituta ez daudela adierazten du.

Espainiaren kasuan, botere legegileak botere judizialean eragin zuzena dauka Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak izendatzen baitu: BJKN-a 21 kidez osatuta dago, horietarik hamar, kongresuak izendatzen ditu eta beste hamarrak, senatuak, presidentea Auzitegi Goreneko presidente bera delarik (Espainiako Konstituzioko 122.art).

Beraz, teorian botere judiziala beste botereekiko independentea izan beharko luke, baina teoria berean, independentzia hori kideen izendapenean urratzen dela ikusi dezakegu.

Izendapen mota hauek ez dira soilik BJKN-an ematen, Auzitegi Konstituzionaleko kideak ere beste botereek izendatzen dituzte. Auzitegi Konstituzionala 12 kidez osatuta dago: Horietatik lau kongresuak izendatzen ditu, beste lau senatuak, bi gobernuak eta beste bi Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak. (Espainiako Konstituzioko 159.art)

Auzitegi Gorenaren kideen kasuan, ez dituzte beste botereek izendatzen, BJKNak izendatzen ditu, eta esan bezala kide hauek beste botereengandik izendatuta daude, beraz argi geratzen da Auzitegi Goreneko kideen izendapena guztiz independentea ez dela. (Espainiako konstituzioko 123.art)

Estatuko fiskaltza generalarekin gauza bera gertatzen da. Erregeak izendatuko du Gobernuaren proposamenaren baitan eta BJKNren iritzia kontuan hartu ondoren. (Espainiako konstituzioko 124.4.art)

Hurbiltasun politikoarengandik hautatzen dira kide guzti hauek, beraz, Botere Judizialeko organo garrantzitsuenak independentziarik gabe sortzen badira, beste botere judizialeko organo guztiak independienteak izatea espero behar dugu?

Epaile eta magistratu orokorreko hautaketei dagokionez, Espainian, oposizio, konkurtso edo konkurtso-oposizio sistemaren bitartez burutzen da eta ez hauteskunde sistemaren bitartez beste estatu batzuen antzera, adibidez AEB-etan. Tradizionalki epaileen hautaketa sistema mota hau politizaziorako bide bat izan da, alderdi politikoen onurarako epaile influentziagarriak hautatzeko aukera ematen baitu. (Granda Alonso, 2015, pág. 404).

Horrelaxe, estatu demokratiko bateko printzipio garrantzitsuenak kolokan jartzen direla ikusi dezakegu, botere judizialak ez duelako herriaren nahia errepresentatzen, baizik eta beste botereen nahiak (exekutiboa eta legegilea), honek dakarren partidismoarekin. (Granda Alonso, 2015).

Politizaizo hau ez dugu soilik eremu teorikoan ikusten, praktikan ere independentzia honen falta hainbat ekintzetan ikusi dezakegu.

Politikariak epaileengan eragiten dute. Ez dira biak zuzenean kontaktuan jartzen, baina epaile batzuk aitortu izan ohi dute bien arteko lagun batek beraiekin kontaktatzen dutela gomendioak burutzeko. (Gómez Bermúdez, 2017)

Epaileen elkarte ezberdinek politikariak burututako presioak salatu dituzte, adibidez, “Jueces para la Democracia” izeneko elkarteak Juana Rivas-en kasuan jasandako presio politikoak salatu zituzten (Álvarez, 2017). Nahiz eta etikoa eta logikoa izan politikariak eskatutakoa, epaileei sententzia batean ezarritako neurriak bertan behera uztea eskatzen zieten, konstituzioaren arabera epaileek neurri horiek aurrera eramateko obligazioa dutelarik. Kasu hauetan justizia eta politikaren arteko botereen liskarra sortzen da eta honek bi botere hauen arteko mugak are eta ahulagoak ikustaraztea eragiten du, justiziaren politizazio sentsazioa areagotuz.

Korruptzio kasuetan presio politikoa areagotu egiten da, eta ez da soilik arlo judizialean ematen, arlo polizialera ere zabaldu da, Gürtel kasuan bezala adibidez, non kasuaren ikerketa bertan behera uzteko presioak burutu ziren. (Domínguez, 2017).

Bestetik, korruptzio kasuak arlo politikotik haratago burutzen direla ikusi dezakegu. Botere judizialera ere zabaltzen dira, hain zuzen ere Auzitegi Goreneko eta BJKNko Carlos Dívar presidentea egon zen korruptzio kasu batean murgilduta. Beraz, botere judizialeko ordezkari gorenak korruptzio kasu batean murgilduta badago, ze espero beharko dugu beste botere judizialeko kideetaz?

Villoria Mendiaren esanetan (2007), Espainian eragin politikoaren bitartez korruptzio judiziala dago. Gobernu Judizialeko organoko kideek influentzia eta presio politikoa jasotzen dute, postu horretan kokatzearen ordez erabakiak kriterio alderdikarien baitan hartzeko.

Estatu batean korruptzio politiko asko dagoenean, politikariak magistratu eta epaile influentziagarriak hautatzen dituzte, hauek beste epaileei eragiteko intentzioarekin eta alderdi politikoko kideen inpunitatea bermatzeko. Ministeritza fiskalan eta Polizian ere eragiten dute, ikerketak oztopatzeko edo bertan behera uzteko helburuarekin. (García Añón & Pía Iglesias, 2011, pág. 3).

Politikarien eragina hain nabari da, Konstituzio Auzitegiko eta Auzitegi Goreneko hainbat kideek alderdi politiko baten kideak izan ohi direla, orain dela gutxi arte boterean zegoen alderdi politikoarenak hain zuzen ere, Alderdi Popularrarenak . Adibidez, Andrés Ollero Tassara 19 urtez PPko diputatua izandakoa edo Vicente Margo PPko senataria.

Espainiako politizazioa hain nabaria da, GRECO-k (Korruptzioaren Aurkako Estatu Taldea) 2016 urtean Espainiar estatua kritikatu zuela bere independentzia judiziala indartzeko neurriak ez hartzeagatik, bereziki Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kideak izendatzeko prozesuari erreferentzia eginez. (Duch, 2016)

Izan ere, izendapenak ez dio soilik organo horri afektatzen baizik eta Espainiako organo judizial guztiei BJKN baita Espainiako epai eta magistratu guztiak antolatu eta gestionatzeko arduraduna eta paradajikoki organo judizialen independentzia bermatzeko erantzulea.

Azkenik, puntu honetan interesgarria iruditzen zaigu indultuen gaia aipatzea. Indultua Espainiako Konstituzioko 62.i. artikuluan tipifikatua dagoen tresna bat da eta honen bidez, botere exekutiboak epaile edo magistratu batek ipinitako zigorra kendu edo aldatu dezake.

Indultuak errege dekretuen bidez ematen dira B.O.E.-n argitaratuz, baina herritarrentzat ez daude indultuen datu ofizialak eskuragarri.

Tresna honen kasuan ikusten dugu botere exekutiboa botere judizialaren gainetik dagoela. Egia da indultua beharrezkoa dela justiziak bere eginkizunak gaizki burutzen dituen kasuetarako, azken baliabide bezala erabiltzeko, arazoa da gaur egun indultuei buruzko datu ofizialik ez daudela eta ezinezkoa dela zenbat ematen diren jakitea. Horrexegatik, agintean dagoen alderdi politikoak modu arbitrarioan eman ditzake indultuak, politikarekin erlazionatuta dauden edo pertsona boteretsuak direnei immunitate juridiko bat eskainiz.

Adibide bezala, Alfredo Saez-en kasua aipatu dezakegu. Santander bankuaren kontseilari ordezkaria zen, eta nahiz eta Auzitegi Gorena ados ez egon indultatu zuten (El País, 2011).

Honek botere exekutiboa botere judizialak baina botere gehiago daukala agerian uzten du, eta teoriarik demokrazia batean egon beharko lukeen botere banaketa bat ez dagoela adierazten du.

Beraz, ikusi dezakegu justiziaren politizazioa oso nabaria dela Espainian eta herritarrak albiste eta kasuen bidez politizazio hau nabari dezaketela. Ondorioz, justiziarekiko konfiantzan eragiten duen faktoreetako bat dela esan dezakegu.

### **Justiziaren partzialtasunaren pertzepzioa.**

Lanza de Vasto-k zioen *“Lo contrario a la justicia no es la injusticia: es la parcialidad”*. Gure kasuan, herritarren partzialtasunaren kontzeptua aztertu nahi dugu, justiziarekiko konfiantzan eragina duen faktoreetako bat den ikusteko. Horretarako partzialtasuna hiru ikuspuntu ezberdinetik aztertuko dugu.

Lehenik eta behin, justizia eta beste botereekiko independentzia kontuan hartu behar dugu. Ikuspuntu hau jada aurreko puntuan aztertu dugu, eta ikusi dugun bezala justiziaren independentzia gaur egun zalantzan dagoela esan dezakegu.

Ondoren, epaile eta magistratuen independentzia aztertu behar dugu, hauek baitira justizia banatzen dutenak eta bere lana objektiboki egiten ez badute, justizia administrazio osoaren inpartzialtasuna kolokan jarriko da. Azkenik, justizia administrazioaren langileen ezaugarriak hartuko ditugu kontuan, herritar guztion errepresentazio bat izan behar dutelako justizia erakunde partzial bat bezala irudikatzeke.

Espainiako konstituzioak dioen moduan, pertsona guztiek daukate eskubide guztiak errespetatzen dituen prozesu judizial bat edukitzeko eskubidea (Espainiako konstituzioko 24.2 artikulua), horietako eskubide bat epaile inpartzial bat edukitzeko eskubidea izanik. (Wolters Kluwer)

Inpartzialtasunak eraginkortasunaren ikuspuntu batetik aztertuz, epailearen paperari erreferentzia egiten dio. Epaile batek zuzenbidearekiko zintzo izan behar du. Prejuizioak eta kontsiderazio subjektiboak alde batera utzi behar ditu, eta epaiketa faktore objektiboen bidez burutu beharko du. Epailea prozesuaren objektu eta parteekiko independentea izan behar du inpartzialtasuna bermatzeko (Aguiló, 1997).

Azken urteetan hainbat kasu ezagunetan ikusi dugu inpartzialtasun hau kolokan egon dela. Adibidez, Gürtel kasuan Concepción Espejel eta Enrique López magistratuak PParekin elkartasuna zeukatela ikusi zen. (Hernández & Gil, 2016)

Epaile eta magistratuen inpartzialtasuna ezinbestekoa da justiziarekiko konfiantza edukitzeko, inpartzialtasun hau kolokan jartzen bada justizia administrazioa guztiarekiko konfiantza kolokan jarriko da.

Bestetik, justizia ikuspuntu estruktural batetik ere inpartziala izan behar du. Justizia administratu behar duten pertsonen gizartearen isla adierazgarri bat izan behar dute (Martínez i Coma & Sanz Labrador, 2009).

Sexu, klase sozial, ideologia, arraza eta adinari dagokionez, mota guztietako epaile eta magistratu egon behar dute, herritar guztien eskubideak bermatuko direnaren sentsazioa edukitzeko.

Laburbilduz, orain arte aztertutakoarekin ikusi dezakegu justizia ez dela inpartziala beste botereekiko eta epaile eta magistratuak bere lana burutzerakoan ez direla guztiz inpartzialak, beraz bi elementu hauek justiziarekiko konfiantzan eragiten duten faktoreak direla kontsideratzen dugu. Bestetik, justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen ezaugarriei buruzko datuak atal enpirikoan aztertuko ditugu, datuen bidez ikusteko ea langileak gizarte osoaren adierazgarri diren ala ez, eta honela konfiantzan eragiten duen faktoreetako bat den ikusteko.

### **Justiziaren eraginkortasun faltaren pertzepzioa**

Konstituzio Auzitegiak 45/1990 sententzian adierazi zuen *“la Administración de Justicia en España debería mejorarse, puesto que no ha alcanzado, ni mucho menos, el nivel de eficacia que la Constitución promete”* (Ruiz Álvarez, 2016)

Lehenik eta behin, justiziaren eraginkortasunean zentratu baino lehen, komunikabideek iritzi publikoan daukaten eragina azpimarratu nahi dugu. Esan bezala, komunikabideek aukeratutako gaiak izango dira ezagunenak, eta ondorioz kritikatuena, justizia administrazioaren papera zalantzan jarriz.

Kasu ezagun hauetan bereziki garrantzitsua da justiziaren funtzionamendu egoki bat egotea baina askotan ez da hau gertatzen, eraginkortasuna zalantzan jarriz.

Hau kontuan hartuta, gaur egun gai kritikatuena edo polemikoa aipatuko ditugu, hauek kontsideratzen ditugulako eraginkortasunaren baitan justiziarekiko konfiantzan eragin gehien daukatena.

Gizartearen pentsamendua aldatzen doa eta justizia eta arauak gizarteko pentsamenduarekin batera aldatuz joan beharko lirateke. Justizia eta legeak pentsamendu sozial berriei egokitzen ez direnean justiziaren deslegitimazio bat sortuko da eta justiziaren eraginkortasuna zalantzan jarriko da.

Azkenaldian hainbat arlotan gertatu da hau, adibidez, genero indarkeriaren arloan. 2003 urtetik gaur egun arte 999 hildako biktima egon dira genero indarkeriaren ondorioz (Ministerio de la presidencia, relaciones con las cortes e igualdad, 2019).

Talde feministek diote, delitu mota hauek patroia batzuk dituztela eta justizia eta poliziaren arlotik galarazi ditzazkegula. Hiltzaile matxista gehienek, hilketak burutu baino lehen mehatxu eta kontrol ekintzengatik salatuak izaten ohi dira. Honek menderatze, abusu, larderi, kontrol... klima baten indizioak dira eta justizia eta poliziaren ardura da kasu hauetan lehen bai lehen esku hartzea delitu gehiago eta larriagoak saihesteko.

Jokaera hauek larriak dira eta genero indarkeri delituak bezala epaituak izan beharko lirateke, ez arazo familiarak bezala.

Genero indarkeriaren ondorioz hildako emakumeek aurretik denuntzia bat jarri badute, sistema juridikoa ongi funtzionatu ez duenaren seinale izango da, hau da justiziaren eraginkortasun faltaren seinale.

Epaitegiei dagokionez, genero indarkeriaren 10etik 4 kasu genero indarkeriari buruzko epaitegi ez espezializatuetan burutzen dira. Gaur egun, Espainian soilik 106 epaitegi daude genero indarkerian espezializatuak eta 2011 urtetik ez da berri bat sortu. (Assiego, 2017)

Bestetik, genero indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak biktimizazio bikoitza jasateko arriskua daukate, bai osasun, polizia, justizia arloan edo sozialki jasaten duten tratuan. *“La víctima pasa de estar sometida al maltratador a estarlo al Estado”* Maqueda, 2006 (Aranda López, Montes-Berges, Catillo-Mayén, & Higuera, 2014, pág. 12).

Beraz, bai epaitegiei dagokionez, bai biktimaren tratuari dagokionez, genero indarkeriaren kasuan justizia eraginkorra ez dela ikusi dezakegu.

Epaileen eskutik ere ikusi dezakegu ez dutela genero indarkeriari buruzko delituetan behar bezala jokatzeko; “La manada” izeneko kasu mediatikoan, magistratuek agresio sexuala beharrean, abusu sexuala izan zela kontsideratu zuten, biktimak erresistentzia ezarri ez zuelako (Ubieto Oliván, 2018).

2016 urtean, Maria del Carmen Molina Mansilla epaileak, bere mutil lagun ohiarengandik agresio sexual bat jasan zuen neskari hurrengo galderak egin zizkion: “¿Cerró bien las piernas?” “¿Cerró toda la parte de los órganos femeninos?” (G. Sevillano, 2017).

Zigorrei dagokionez, “Condenas mutuas” izeneko kasuetan, genero indarkeriaren biktima den emakumea babesgabe uzten da. Kasu hauetan, emakumeak gizonaren indarkeriatik defendatzeko erresistentzia egiten du, eta ondorioz gizonak ondorio fisikoak jasaten ditu. Epaileek bien aldetatik lesio delituak daudela kontsideratzen dute eta bieki lesio delituen zigorra aplikatzen die (Bodelón, 2014).

Epaileen jarrera arlo honetan askotan egokia ez dela ikusi dezakegu, eta hau eraginkortasun faltaren adierazpen bat da. Epaileek genero indarkeriazko delituak epaitzeko informatuagoak eta prestatuagoak egon beharko lukete.

Gaur egun gizartean, geroz eta gehiago, genero indarkeriaren aurkako mugimenduak sortarazi dira. Historikoki normalizatuak zeuden portaerak gaur egun matxistak kontsideratzen dira eta azken urteetan gai honi buruzko pentsamendua aldatzen joan da feminismoak indarra hartzen doalarik. Justizia, ordea, gai honetan gizartearen pentsamendua baino motelago aldatzen doala ikusi dezakegu aurretik aipatutako kasuetan ikusi dezakegun bezala. Honek, justizia eta herritarren pentsamendua bat ez datozela adierazten du eta ondorioz honekiko mesfidantza handitzen da.

Justiziaren eraginkortasuna zalantzan jarri denaren beste kasu ezagun bat, orain dela bi urte Altsasun gertatutakoa da. Audientza Nazionalak taberna batean sortutako borroka bat gertaera terroristatzat hartu zuen. 375 eguneko espetxe zigorra eskatzen zuten zortzi



gazteentzat eta honek altxamendu asko sortu zituen. Epaiketa egunean 80.000 pertsona bildu ziren kasu horretan justiziaren funtzionamendua salatzeko (Mazkiaran, 2018).

Kasu honetan ere, ikusi dezakegu herritarrak taberna bateko liskarra ez dugula jokabide terroristatzat joko, baina justiziak ordea beste pentsamendu zaharkituago bat daukala dirudi. Herritarren pentsamendua justiziarekiko planteamenduarekin kointziditzen ez duenez, honen eraginkortasuna kolokan jartzen da.

Beste kasu bat, frankismoarekin azken aldian sortu den polemika da. Frankoren gorpua lurpetik ateratzearen planteamenduarekin azken aldian polemika sortu da, frankismoa goraipatzen duten jokabideak areagotu edo azaleratu baitira. Izan ere, beste hainbat herrialdetan diktaduraren goretsiak delituak dira gaur egun, baina Espainiaren kasuan ordea, orain dela gutxi arte ez zen delitu honen implementazioa eztabaidatu ezta planteatu ere (Rosa, 2016).

Honek, Espainiak justizia zaharra duenaren sententzia transmititzen du eta batez ere beste herrialdeko justiziekin alderatuz atzeratua dagoenaren sententzia sortarazten du.

Bestetik, azken urteetan azaldu diren korrupzio kasuetan justiziaren eraginkortasuna ere zalantza jarri da. Pertsonak ez dira berdintasunez tratatu, ez soilik prozesu judizialean lehen aipatutako presio politikoak erabiliz, baizik eta zigorren exekuzioetan ere bai.

Adibidez, Carlos Fabra Cerras-ek, Castellongo presidentea zena, espetxean tratu pribilegiatua jasaten du, funtzionarioen partetik tratu espeziala jasoz.

Francisco Granados-ek ere, PPko Madrileko idazkari nagusia izan zena, hainbat pribilegio ditu espetxean. Bera ingresatu baino lehen bere moduluko preso arriskutsuak lekuz aldatu zituzten eta bere gelan telebista bat jarri zioten (elplural.com, 2016).

Iñaki Urdangarinek ere, Cristina de Borbón infantaren senarrak, espetxean dituen instalazio pribilegiatuak espetxeratuen arteko tratu ezberdinak azaleratzen dituzte (Navarro, 2018).

Guzti honek, justizia sistemak herritar guztiak berdintsu tratatzen ez dituenaren adierazle da, teorikoki honela izan beharko zuenean. Honekin, eraginkortasuna kolokan jartzen da eta guzti honek logikoki justiziarekiko konfiantza galtzea du sortzen, izan ere, teorian eta legez bete beharko lirakeen gauzak urratzen baitira.

Beste hainbat gai daude Espainiako justiziaren eraginkortasuna zalantzan jartzen dutenak, adibidez, Estrasburgoko epaitegiak Arnaldo Otegi jasotako epaiketa inpartziala izan ez zela esan zuenean (Marraco, 2018).

Honek Espainiako justiziaren eraginkortasuna eta inpartzialtasuna kolokan jartzen du, ez bakarrik Estatuko herritarrentzat, baizik eta beste herrialdeen begietara ere.

Espainiako justiziaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duten hainbat eta hainbat kasu aurkitu ditzakegu, sistemaren hutsegiteak agerian uzten dituztenak.

Bestetik, eraginkortasuna aztertzeko garrantzitsua da epaiketa bat burutzeko beharrezkoa den denbora. Nahiz eta orokorrean Espainiar herritarrek epaiketa batek irauten duen denbora asko dela uste, beste herrialdeekin alderatuz, Espainiako epaiketen denbora egokia dela ikusi dezakegu (García España, 2013).

Beraz, denboraren aldetik justizia teoriar eraginkorra dela esan dezakegu, baina herritarren ikuspuntutik ordea ez.

Gertaera hau atal enpirikoan aztertuko dugu sakonago, datuez bidez, azalpen bat emateko intentzioarekin.

Laburbilduz, ikusi dezakegu gaur egungo justiziaren eraginkortasuna zalantzan jarri dezakegula, batez ere kasu mediatikoengandik jasotako informazioarengatik. Herritarren pentsamendua eta justizia aplikatzeko moduak ez datozte bat, eta honek justizia gaizki funtzionatzen duenaren seinale da. Guzti honekin ondorioztatu dezakegu eraginkortasuna justiziarekiko konfiantzan eragiten duen faktore bat izan daitekela.

### **3. ATAL ENPIRIKOA**

Orain arte justiziarekiko konfiantzan eragiten duten faktoreak aztertu ditugu modu teoriko batean. Orain, atal enpirikoan, alde batetik, faktore hauek konfiantzan zenbateko eragina daukaten aztertuko dugu, eta bestetik, datu eta estatistiken bidez konfiantza horretan eragiten duten faktore berriak bilatuko ditugu, guzti hau, gure hipotesiak frogatzen ditugun heinean.


### 3.1. Datu sekundarioen analisia

Lehenik eta behin, datu sekundarioen analisi bat burutuko dugu, esan bezala, gai honi buruz hainbat datu jasota daudelako, nahiz eta ondoren datu hauekin ez diren ikasketa sakonak burutu.

#### Kapital sozialaren inkesta


Teorian bezala, kapital soziala aztertzen hasiko gara. Puntu honetan, kapital sozialak azken urteetan gainbehera bat izan duen aztertzea dugu helburu, ondoren gainbehera honek erakundeekiko konfiantzan eta bereziki justiziarekiko konfiantzan eragina izan duen aztertzeke.

Estatuko azken urteetako kapital sozialaren bilakaera aztertuz, ikusi dezakegu jatsiera bat gauzatu dela, bereziki 2008 urtetik aurrera.



*Irudia 1 Espainiako kapital sozialaren bilakaera historikoa (1964-2012)*

Iturria: *Ivie-ko datu basea.*



*Irudia 2 Kapital sozialaren bilakaera historikoa Espainian eta Euskal Herrian (1983-2012)*

Iturria: *Ivie-ko datu-basea*


Bestetik, Espainia eta Euskal Herriko datuak alderatuz, ikusi dezakegu, Euskal Herrian Estatu mailan baino kapital sozial handiago dago. Hala ere, orokorrean gora behera berdinak gauzatzen dira. 1998 urtetik kapital sozialaren gorakada nabari bat dago 2007-2008 urte arte, estatuko krisi ekonomikoaren hasierarekin bat eginez.

**Datuak aztertuz, baieztatu dezakegu gure hipotesia betetzen dela, izan ere azken urteetan, 2007- 2008 urtetik, kapital sozialaren gainbehera bat sortu da bai Espainian eta bai Euskal Herrian.** Ala ere, esan beharra dago 2012 urteko kapital soziala 1983-1997 urte artekoa baino altuagoa dela.

### 3.1.1 Erakundeekiko konfiantza maila orokorrean

Jada, 2008 urtetik kapital sozialak gainbehera bat jasan duela ikusita, puntu honetan, gainbehera honek erakundeekiko konfiantzan eragina izan duen ala ez aztertuko dugu. Bestetik, erakunde ezberdinen arteko konfiantza aztertuz, erakundeen ezaugarrien baitan konfiantza handitu edo txikitzeko faktoreak identifikatuko ditugu.

Lehenik eta behin Espainiako erakunde ezberdinen konfiantza aztertuko dugu urteen baitan.



*Irudia 3 Erakundeekiko konfiantza Espainian (1994-2016)*

Iturria: Nik burututako grafikoa CISeko serie temporalen bidez. Datuak lerro-joerez bidez adierazita.

Galdera: *A continuación, me gustaría que me dijese el grado de confianza que tiene Ud. en una serie de instituciones, utilizando una escala de 0 a 10 en la que 0 significa que no tiene Ud. 'ninguna confianza' en ella y 10 que tiene 'muchísima confianza'*

Espainia mailan, orokorren erakundeekiko konfiantzak beherakada bat jasan du.


Polizia da konfiantza gehien sortarazten duen erakundea (5,95) gutxiena berriz, alderdi politikoak dira (2,23). 10 puntutatik konfiantza gehien lortzen duen erakundeak 5,95eko

puntuazioak edukitzea orokorrean erakundeekiko konfiantza baxua dagoela adierazten digu.

Bestetik, ikusi dezakegu orokorrean 2008 urtetik aurrera erakunde guztien konfiantzak beherakada bat jasan duela, eta ondoren 2012 urtetik aurrera goranzko joera hartzen du berriro. 2008an bai kapital sozialak eta bai erakundeekiko konfiantzak gainbehera bat jasaten dute, beraz printzipioz esan dezakegu erlazioak egon ahal dira, ala ere erlazio hau aurrerago aztertuko dugu sakonago.

### Erakunde desberdineko konfiantza Euskadi eta Espainian

Jarraian, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza ikusiko dugu, Espainiako erakundeekiko konfiantzarekin konparaketak eginez.



Irudia 4 Erakundeekiko konfiantza Euskal Herrian (1999-2018)

Iturria: (Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea, 2018)

Galdera: Jarraian zenbait instituzioren buruz galdetu nahi nizuke. Aipatuko dizudan bakoitzarekiko, esaidazu, mesedez, gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat ez duzun konfiantzarik.

Euskal Herriaren kasuan, konfiantza gehien sortzen duten erakundeak, Eusko Jaurlaritza (%67) , herriko udalak (%67) eta Eusko Legebiltzarra (%63) dira. Bestetik, konfiantza gutxien sortzen dutenak, diputatuen kongresua (%19), bankuak (%15) eta alderdi politikoak direla ikusi dezakegu.

Bai Espainia eta bai Euskal Herriko kasuan, alderdi politikoak dira konfiantza gutxien sortarazten duen erakundea. Hau, lehen aipatu dugun moduan, Espainia mailan politika burutzeko bereganatu den moduarengatik izan daiteke, hau da, politika burutzeko modu negatiboa, non alderdi politikoen artean erabakiak hartzeko ados jartzen saiatu beharrean bata besteari gauzak leporatzen diren. Honek herritarrak alderdi politikoekin identifikatzeko zailtasunak sortuko ditu eta ondorioz hauekiko konfiantza gutxituko da.

Espainiaren kasuan 14 erakundeetatik 12 kokatzen dira 5 punturen azpitik, eta Euskal Herriaren kasuan, 15 erakundeetatik 10 erakundeengan %50ak baina gutxiago konfiantzen du, eta horietatik, 7 erakundeetan %20ak baina gutxiagok.

Nahiz eta konfiantza neurtzeko metodologia berbera ez izan, begi bistakoa da bai Euskal Herri mailan eta bai Espainia mailan erakundeekiko konfiantza oso baxua dagoela.

**Beraz, lehen begirada batean esan dezakegu gure hipotesia ez dela betetzen, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza ez baita Espainiakoa baina altuagoa, antzekoak dira, bietan konfiantza maila oso baxua izanik.**

## **Erakundeekiko konfiantza eta kapital sozialaren arteko erlazioa**

Puntu honetan kapital sozialak erakundeekiko konfiantzan eragina daukan ala ez ikusiko dugu. Horretarako, kapital sozialaren beherakada eta gorakadak Espainiako eta Euskal Herriko erakundeekiko konfiantzarekin alderatuko ditugu, eta azkenik, kapital sozialaren ezaugarri konkretuak erakundeen konfiantzan duten eragina aztertuko dugu.

Euskal Herriko kasuan, Espainiako erakundeekiko konfiantza mailen antzera, 2008 urtetik aurrera konfiantza jaisten dela ikusi dezakegu, ondoren, 2012 urtean errekeratzen hasten delarik. Euskal Herriko kasuan, azken urteko datuak ditugunez, 2016 urtetik aurrera erakunde guztietako konfiantzak berriro beherakada bat jasaten duela ikusi dezakegu, baina datu hau tamalez ezin dezakegu Espainiakoarekin alderatu.

Lehen aipatu dugun bezala, kapital sozialaren gainbehera eta erakundeekiko konfiantzaren gainbehera epe berean sortzen direla ikusi dezakegu, beraz lehen begirada batean esan dezakegu erlazionatuak egon daitezkeela. Interesgarria izango litzateke 2012 urtetik aurrerako kapital sozialaren datuak edukitzea erakundeekiko konfiantzaren antzera gorakada bat jasaten duen ikusteko, baina tamalez ez ditugu datuak ez ditugu eskuragarri.

Harritzekoa da 2001 urtetik aurrera kapital sozialak esanguratsuki gora egiten duela. Kasu honetan ikusi dezakegu nahiz eta kapital sozialak 2001 urtean goraka egin, erakundeen konfiantzak ez duela goraka egiten, beraz baieztatu dezakegu kapital sozialak erakundeekiko konfiantzan eragiten duela? 2001 urtean Estatu mailan soldata eta lanpostuen gorakada bat gauzatu zen, ongizate maila hobetu zen eta ikasketa mailen gehikuntza bat gauzatu zen. (Pérez García, Montesinos Santalucía, Serrano Martínez, & Guevara Radoselovics, 2005) 35 Guzti honek kapital sozialaren gorakada sortu zuen 2001 urtetik aurrera, baina erakundeekiko konfiantzan ordea ez.

Bestetik, Euskal herriko kapital soziala Espainiakoa baina handiagoa dela ikusita, printzipioz ondorioztatu dezakegu Euskal Herrian erakundeekiko konfiantza Espainia mailakoa baina altuagoa izango dela, eta modu berean justiziarekiko konfiantzarekin gertatuko dela. Baina *Irudia 2-n* ikusi dezakegun bezala Euskal Herrian Espainian baino kapital sozial gehiago egon arren, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza Espainiakoa baina handiagoa ez dela ikusi dezakegu. Hau kontuan hartuta eta ikusiz 2001 urteko kapital sozialaren gorakadak erakundeen konfiantzan eraginik ez duela, **baieztatu dezakegu kapital sozialak eta erakundeekiko konfiantzak ez daukatela erlazio positiborik.**

Ala ere, erlazio hau sakonago aztertzeko helburuarekin, jarraian, kapital sozialaren baitan kokatzen diren ezaugarriak bakarka aztertu nahi ditugu, ikusteko ea hauetako batek erakundeen konfiantzan eragiten duen nabarmenki.

Hurrengo taulan pertsona bakoitzak erakundeekiko konfiantzan duen aldaketa ikusi dezakegu kapital sozialaren ezaugarrien baitan:



*Taula 1 Erakundeekiko konfiantzan gehien eragiten duten kapital sozialaren azpi arloak 2017 urtean.*

	<b>Erakundeekiko konfiantzaren batezbestekoa</b>
<b>Guztira</b>	4,81
<b>Konfiantza orokorra</b>	
Baxua	3,52
Ertaina	4,66
Altua	5,46
<b>Profesionalenganako konfiantza</b>	
Baxua	2,58
Ertaina	4,82
Altua	6,74
<b>Hauteskundeetako parte-hartzea</b>	
Baxua	5,12
Ertaina	4,54
Altua	4,72
<b>Komunikabideetarako sarbidea</b>	
Baxua	5,08
Ertaina	4,79
Altua	4,77
<b>Kohesio soziala</b>	
Baxua	3,31
Ertaina	4,57
Altua	5,34

Iturria: *Eustat. Capital sozialari buruzko inkesta*

Kapital sozialaren azpi arlo guzti hauetatik soilik batzuk eragiten dute erakundeekiko konfiantzan:

- Konfiantza orokorra: konfiantza orokor baxua daukatenak 3,52ko batezbesteko konfiantza daukate erakundeekiko konfiantzan, konfiantza orokor handia dutenek ordea 5,46.

Teorian aipatu dugun bezala, gizarte bateko konfiantza orokorra zenbat eta baxuagoa izan, erakundeekiko konfiantza ere baxuagoa izango da. Esan bezala, gizarte mota hauetan azpi taldeak sortuko dira, non instituzioen funtzioak bereganatuko dituzten, erakunde formalen esku-hartzea gutxituz eta ondorioz hauekiko konfiantza ere gutxituz. Konfiantza orokor altua dagoenean ordea, azpi talde eta erakundeen arteko esku hartzearen oreka bat sortuko da, beraz ikusi dezakegu praktikan ere konfiantza orokorra eta erakundeekiko konfiantzak erlazio positibo bat daukatela.

- Profesionalenganako konfiantza: profesionalengan konfiantza gutxi dutenek erakundeekiko konfiantzan 2,58ko batezbestekoa konfiantza daukate, profesionalengan konfiantza altua dutenek ordea 6,74. Hau logikoa iruditzen zaigu, teorian aipatu dugun bezala, profesionalak dira erakundeen estruktura osatzen duten pertsonak, beraz estruktura osatzen duten pertsonengan konfiantza baxua badago erakundearekiko konfiantza baxua egongo da.
- Kohesio soziala: kohesio sozial baxua edukiz 3,31ko batezbestekoa daukate erakundeekiko konfiantzan eta altua izanik 5,34. Kohesio soziala aipatu dugun bezala, kapital sozialaren azpi ezaugarri bat da eta zenbat eta kohesio sozial gehiago egon, orduan eta kapital soziala gehiago egongo da. Kohesio sozialak gizarteko konfiantza orokorra areagotzea dakartza eta esan bezala konfiantza orokorrak erakundeekiko konfiantza handitzen du.

Azpi arlo guzti hauetatik profesionalenganako konfiantzak dauka eragin handiena erakundeekiko konfiantzan (2,58-6,74ko batezbesteko konfiantza aldatuz). Logikoa da, azpi arloetatik honek zuzenean erakundeetan eragina daukalako, esan bezala, profesionalak baitira erakundeak osatzen dituzten pertsonak.

Esanguratsua iruditu zaigu, azpi arlo batzuk erakundeekiko konfiantzan alderantziz eragiten dutela, erlazio negatibo bat edukiz:

- Hauteskundeetako parte-hartzea: parte-hartze baxua edukiz 5,12ko batezbesteko konfiantzan daukate erakundeekiko eta parte-hartze altua edukiz 4,72. Teorikoki, lehen aipatu dugun bezala, erakundeekiko konfiantza baxua egonda politikariekiko konfiantza gutxiago egongo da, alderdi politikoekin identifikatzeko zailtasun gehiago egongo delako, ondorioz hauteskundeen parte-hartzea txikiagoa izango da. Praktikan ordea ikusi dezakegu **hauteskundeetako parte-hartzeak eta erakundeekiko konfiantzak erlazio negatibo bat daukatela**, hau da, zenbat eta parte-hartze altuagoa eduki hauteskundeetan orduan eta konfiantza gutxiago edukiko da erakundeetan. Fenomeno honi esplikazio bat bilatu nahian, izan daiteke erakundeekiko konfiantza falta sistema demokratikoaren funtzionamenduaren desadostasunaren adierazle bat izatea, ondorioz, gaur egungo sistemaren aldaketa baten beharra sortuko da, eta honek, herritarrak hauteskundeetan parte hartzera bultzatuko ditu, aldaketa hori gauzatzeko intentzioarekin. Kontrako egoeran ordea, sistema demokratikoarekin ados egonda, erakundeekiko konfiantza altua egongo zen eta herritarrek hauteskundeetako esku-hartzea beharrezkoa ez zuten ikusiko.
- Komunikabideetarako sarbidea: baxua edukiz 5,08ko batezbesteko konfiantza daukate erakundeekiko, altua edukiz ordea 4,77. Kasu honetan, errealitatearen datuak teoriarekin bat datoz, esan bezala, komunikabideetan gehien agertzen diren gaiak maizago zalantzan jartzen direlako. Gaur egun, erakundeekiko gaiak oso ugariak dira komunikabideetan, beraz, zenbat eta komunikabide gehiago ikusi orduan eta probabilitate gehiago erakundeen funtzionamendua zalantzan jartzeko, hauekiko konfiantza birplanteatuz.

Ikusi dezakegu azpi-arlo guzti hauek ez dutela modu esanguratsuen erakundeekiko konfiantzan eragiten 2,24-6,74 punturen artean aldatzen baitute erakundeekiko konfiantza. Hau kontuan hartuz, eta ikusiz 2001. urtean kapital sozialak edukitako gorakadak erakundeekiko konfiantzan eragin ez duela **esan dezakegu, kapital sozialaren gainbeherak ez duela nabarmenki eragiten erakundeekiko konfiantzan**, beraz gure hipotesia ez da betetzen.

## **Konfiantzan eragina duten erakundeen ezaugarriak**

Behin, kapital sozialak erakundeengan eragina ez duela ikusi ondoren, erakunde batetik bestera dagoen konfiantza ezberdintasunaren azalpenak bilatu nahi ditugu. Horretarako, erakundeen ezaugarrien baitan aztertuko dugu konfiantza.

Alde batetik, kusi dezakegu gertuago sentitzen diren erakundeak urrutiago sentitzen direnak baina konfiantza gehiago sorrarazten dutela: Eusko Jaurlaritza (%67), herriko udala (%67) Eusko legebiltzarrak (%63), eta bakoitzaren diputazioak (%62), Europar batasuna (%46), Gobernu zentrala (%22) eta diputatuen kongresua (%19).


Mundu mailan, gobernu lokala eta zentralaren arteko konfiantza orekatuta dago. Espainiaren kasuan berriz, beste herrialde batzuen antzera (AEB, Herbehereak, Singapur...) konfiantza gehiago dago gobernu lokaletan zentrolean baino. Espainian %35 konfiantzen dute gobernu lokaletan, gobernu zentrolean ordea soilik %29ak konfiantzen du. (Edelman, 2015)

Aipatzeko da Europako herrialdeekin alderatuz Euskal Herriak daukala udalekiko konfiantza (%73), herrialdeko gobernuarekiko konfiantza (%74) eta herrialdeko parlamentuarekiko (%69) konfiantza handiena, Espainiak azkeneko postuak lortzen dituen bitartean. (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2017, págs. 167-169)

**Beraz ikusi dezakegu Euskal Herrian gertuago sentitzen diren erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, Eusko legebiltzarra...) Espainia mailako erakundeetan (gobernu zentrala...) baino konfiantza gehiago dagoela, gure hipotesia baieztatuz.**

Bestetik, orokorrean erakunde altruistetan konfiantza gehiago dagoela planteatu dugu.


Erakundeak lau multzo orokorretan kokatuz; Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE), enpresa erakundea, komunikabidea eta gobernua ikusi dezakegu GKEak sortarazten dutela konfiantza gehien mundu mailan.



*Irudia 5 GKE, Enpresa erakundeak, Komunikabideak eta Gobernuarekiko konfiantza Mundu mailan 2017 urtean.*

Iturria: (Edelman, 2017)

Espainiaren kasuan ere GKE-ak sortarazten dute konfiantza gehien.



*Irudia 6 GKE, Enpresa erakundeak, Komunikabideak eta Gobernuarekiko konfiantza Espainia mailan 2018 urtean.*

Iturria: (Edelman, 2018)


Beraz, bai mundu mailan bai Espainia mailan ere, Gobernuak kanpoko Erakundeek sortarazten dute konfiantza gehien. **Honekin ondorioztatu dezakegu erakunde guztien artetik erakunde altruistak direla konfiantza gehien sortarazten dutenak** eta ez talde edo interes pertsonala duten erakundeak. Kasu honetan ere gure hipotesia bete dela ikusi dezakegu.

Erakunde batzuen motibazioak ordea, ezin dira hain erraz klasifikatu, eta honek erakunde horiei buruzko konfiantzan eragina dauka. Esan dezakegu justiziaren kasuan sentimendu anbiguo bat daukagula. Izan ere, printzipioz, sistema eta botere judiziala organo independenteak dira eta pertsona edo talde kaltetuak babesteko sortuak daude. Teorian, izaera altruista bat daukala ukaezina da. Baina bestalde, askotan gobernuaren intentzio edo interesen baitan jokatzen duela ikusi daiteke, eta honek izaera altruista hori kolokan jartzen du. Hau izango litzateke justizia sisteman erakunde altruistetan dagoen konfiantza maila altua aurkitzen ez dugunaren arrazoia.

### **3.1.2 Justiziarekiko konfiantza maila**

Behin erakundeekiko konfiantza aztertu ondoren, puntu honetan justiziarekiko konfiantzan zentratuko gera. Horretarako, lehenengo justiziarekiko konfiantza orokorra aztertuko dugu, ondoren nazioarteko konparaketa bat gauzatuko dugu Espainiako eta Euskal Herriko konfiantza beste herrialdekoekin alderatzeko. Espainia mailan, autonomia erkidegoen baitan dagoen konfiantza ikusiko dugu, Euskal Herria gainontzeko autonomia erkidegoekin alderatuz konfiantza gehiago dagoen ala ez ikusteko. Azkenik, konfiantza faktore pertsonalen baitan aztertuko dugu, faktore soziologikoez gain faktore pertsonalak konfiantzan eragina duten ala ez ikusteko.

### Bilakaera historikoa



#### *Irudia 1 Justizia Epaitegietako konfiantza Espainian (2002-2011)*


*Iturria: Cis A.6.03.03.005 serie-temporala*

*Galdera: "Voy a leerle una lista de una serie de instituciones. ¿En qué medida confía Ud. en cada una de ellas en una escala de 0 a 10, en la que el 0 significa 'ninguna confianza' y el 10 'total confianza'?"*

Espainiaren kasuan ikusi dezakegu justiziaren konfiantzak hainbat gorabehera dituela urteetan zehar, baina orokorrean ez da asko aldatu, 2002 urtetik 2011 urte arte 10eko eskala batean 3,74 eta 5,2 punturen artean soilik aldatzen baita.

Justiziarikiko konfiantzan kapital sozialak eragin zuzenik ez duela ikusi dezakegu, izan ere 2001-2007 urte artean, kapital sozialaren gorakada sortzen denean, justiziarikiko konfiantzak ez du gorakada esanguratsurik jasan, eta bestetik, 2007-2008 urte artean kapital sozialak jasaten duen gainbeherak ez du ezta ere justiziarikiko konfiantza murrizten, kontrakoa baizik, ikusi dezakegu 2008 urtetik aurrera justiziaren konfiantzak gorakada bat jasaten duela.

**Beraz, kapital sozialak ez du ez erakundeekiko konfiantzan eraginik, ezta justizia epaitegien konfiantzan eraginik ezta ere.**



*Irudia 2 Sistema judizialean konfiantza duten pertsonen portzentaila Euskal Herrian (%) (1999-2018)*

Iturria: (Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea, 2018)

Euskal Herrian justizia epaitegietakoko konfiantza % 26- %44ren artean kokatzen da 1999 eta 2006 urteen zehar. Kasu honetan ez ditugu antzekotasunik aurkitu Espainia eta Euskal Herriaren artean, baina hau bi iturri ezberdinetatik jasotako datuak direlako izan daiteke.

Euskal Herriaren kasuan ez da Espainiaren kasuan bezala 2012ko beherakada bat sumatzen, baina 2009 urtetik 2014 urte arteko beherakada orokor bat bai ordea.

Esan beharra dago justiziarekiko konfiantzaren bilakaera historikoari buruzko datuak oso urriak direla, eta honek azterketa sakon bat egitea galarazten digu.

**Hau kontuan hartuta atera dezakegun ondorio bakarra da: bai Espainia eta bai Euskal Herrian justizia epaitegiekiko konfiantza baxua izan da urteen zehar.**

### **Nazioarteko konparaketa**


Erakundeekiko konfiantza eta justiziarekiko konfiantza aztertzeke bai Euskal Herri mailan, bai Espainia mailan, erreferentzia bat edukitzea garrantzitsua da, konfiantza maila



hori zerbaitekin alderatzeko. Horretarako, nazioarteko konparaketa bat burutuko dugu, Espainiako konfiantza maila non kokatzen den ikusteko eta konfiantza maila baxu hau larria den ala ez aztertzeko.

Erakundeekiko konfiantzari dagokionez, mundu mailan, 28 herrialdeetatik, China da bere erakundeengan konfiantza gehien duen herrialdea (74) eta Errusia gutxien duena (36). Espainia 12. postuan kokatzen da 47 puntu edukiz, beraz erakundeekiko konfiantzan beste herrialdeekin konparatuz deskonfiantza haundia dagoela esan dezakegu ez baita 50 puntutara iristen. Mundu mailako erakundeekiko media 48koa da, beraz Espainia puntu batez egongo zen batezbesteko horren azpitik (Edelman, 2018, pág. 6).

Ondorioz, esan dezakegu Espainian erakundeekiko dagoen konfiantza maila baxua arazo bat dela, beste herrialdeekin alderatuz konfiantzaren batezbestekotik bera baitdago.



*Irudia 9 Justiziariekiko konfiantza Europar Batasunean 2018 urtean*

Iturria: (European Commission, 2018)

Justizia sistemari dagokionez, Europar Batasuneko herrialde guztiak kontuan hartuz, gehienek bere herrialdeko justizia eta sistema legalarekiko konfiantza daukate (%53), baina konfiantzen ez dutenen portzentaila oso altua da (%43), ez dakitenek edo erantzun nahi ez dutenak %4a izanik. Horrexegatik esan dezakegu Justizia sistemaren konfiantza orokorrean Europa mailan baxua dela.

Herrialdeak bakarka aztertuz, Dinamarka (84%), Finlandia (%83) eta Herbehereak (81%) dira beraien justizia eta sistema legalean konfiantza gehien duten herrialdeak, azkenekoak Eslovenia (24%), Kroazia (%22) eta Bulgaria (%19) izanik.

Nahiz eta 2017 urtean bezala, Espainia azken hirugarren postuetan ez egon, Europar Batasuneko 28 herrialdeetatik, Espainia 22. postuan egotea kezkarria dela kontsideratzen dugu.

Bestetik, ikusi dezakegu Euskadiren justiziarekiko konfiantza oso txikia dela gainontzeko Europako herrialdeekin eta Espainarekin alderatuz. Europar batasuneko 28 herrialdeekin alderatuz, Euskadi 25. postuan kokatzen da Justiziarekiko konfiantzari dagokionez, soilik %28ak konfiantzen du eta %66ak ez dauka konfiantzarik, honek Espainia eta Europar batasuneko batezbestekotik behera kokatuz.

**Hortaz, Espainiarekin eta Europako batezbestekoarekin alderatuta Euskadin justiziarekiko konfiantza gutxiago dago, gure hipotesia betetzen ez delarik.**

Justiziarekiko konfiantza orokorran ikusi ondoren, justiziaren baitan dauden hainbat ezaugarri aztertuko ditugu, Espainiako konfiantza maila baxuari azalpen bat emateko helburuarekin.

Inpartzialtasunari dagokionez, 28 herrialdeetatik Espainia 23. postuan dago, soilik Eslovenia, Italia, Bulgaria, Eslovakia eta Kroaziaren aurretik. %39ak soilik positiboki baloratzen du Espainiako justiziaren inpartzialtasuna %48ak negatiboki baloratzen duen bitartean (European Commission, 2018, pág. 41).

**Inpartzialtasuna izan daiteke justiziarekiko konfiantza erabakitzen duen ezaugarria.** Izan ere, Europa mailan inpartzialtasunari dagokionez okerrago baloratzen diren herrialdeak justiziarekiko konfiantza gutxien dituzten herrialdeak dira; Justiziarekiko inpartzialtasunean azken postuetan kokatzen diren Bulgaria, Kroazia, Eslovenia eta Eslovakia, justiziarekiko konfiantzarekiko nazio arteko konparaketan azken

laugarren eta azkeneko postuen artean kokatzen dira. Espainia (21. Postuan) eta Italia (22. Postuan) ordea, nahiz eta inpartzialtasunean azken postuetan kokatu, justizierekiko konfiantzan ez dira hain gaizki kokatzen baina azken postuen artean daude baita ere.

Bestetik, inpartzialtasunaren lehen postuetan kokatzen diren herrialdeak; Dinamarka, Finlandia eta Austria, justizierekiko konfiantzan lehen postuetan kokatzen dira.

**Beraz, esan dezakegu inpartzialtasuna eta justizierekiko konfiantza elkar erlazionatuta daudela.**

Bestetik, justizierekiko dagoen inpartzialtasuna pertzibitzeko arrazoiaren artean hiru faktore aztertu dira; Gobernu eta politikariek burutzen dituzten interferentziak edo presioak, interferentzia edo presio ekonomikoak eta epaileen inpartzialtasuna. Espainiaren kasuan gobernu eta politikariek burutzen dituzten influentzia izango da inpartzialtasun pertzepzioaren arrazoi printzipala. Teoriarekin esan bezala, Espainian botereen arteko mugak ahulak dira eta politikariak justiziarengan eta poliziarengan burutu dituzten presioen hainbat kasu azaleratu dira. Beraz, Espainian politikariek eta gobernuak justiziarengan daukan eragina faktore oso garrantzitsua dela ikusi dezakegu justizierekiko konfiantzan. Bestetik, herrialde guztiak aztertuz, ikusi dezakegu gobernuak eta politikariek egiten dituzten presioak eta interferentzia ekonomikoak direla inpartzialtasunaren pertzepzioaren arrazoi nagusiak, gutxien eragiten duena epaileen inpartzialtasuna izanik. (European Commission, 2018, pág. 42)

**Beraz, baieztatu dezakegu politikariak eta gobernuak justizian burutzen duten eragina eta justizierekiko konfiantza elkar erlazionatuak daudela.**

Justizia sistemaren beste ezaugarrien azterketarekin jarraituz, aktibitate judizialaren ebaluazioak burutzea oso garrantzitsua dela kontsideratzen dugu, hauek erakutsiko baitute justizia sistemaren baitan gauzak gaizki edo ondo burutzen diren, eta konfiantza maila justizierekiko funtzionamenduari bat datorren ala ez ikusteko balioko digute.

7 ebaluazio mota burutu daitezke; Urtero burututako ekintzen txostena, atzeratutako kasu kopurua, kalitate eta etekinen adierazleak, ohiko ebaluazio sistema, kalitatea ebaluatzeko dauden langile espezializatuak gorte bakoitzeko, kasuen ebazpenak irauten duten denbora eta beste elementu batzuk.

Espainiaren kasuan, atzeratutako kasuak eta kalitatea ebaluatzeko dauden langile espezializatuak gorte bakoitzeko izan arren, gainontzeko ebaluazioak ditugu.

2017ko datuak kontuan hartuz, aldarapen positiboak ditugu, izan ere orain dela urte bateko datuak kontuan hartuz, Espainian soilik, atzeratutako kasu kopuruen eta ohiko ebaluazio sistema motako ebaluazioak genituen, ebaluazio metodo gehienak zituen herrialdeen artean azken laugarren postuan kokatuz. Gaur egun ordea, Espainia 15. postuan kokatzen da. Beraz nahiz eta arlo honetan hobekuntzak burutu ditzakegun, jada urte batetik bestera hobekuntzak burutu direla ikusi ditzakegu (European Commission, 2018, pág. 35).

Kasu honetan justiziarrekiko konfiantzako eskalan ditugun herrialdeak ez datoz bat sistema bakoitzaren baitan burutzen dituzten ebaluazioaren eskalarekin. Beraz **esan dezakegu sistema judizialean burutzen diren ebaluazio mota eta kopuruak ez daukatela erlaziorik justiziarrekiko konfiantzarekin**. Honek, noski ez du esan nahi ebaluazio hauen baliagarritasuna edo beharra garrantzitsua ez denik.

Kasuei buruzko informazioari dagokionez, Espainia hirugarren postuan aurkitzen da prozesu judizialen ordutegia, atzerapenei buruzko informazioa eta kasuaren prozesuari buruzko informazioa egoki jakinarazteagatik (European Commission, 2018, pág. 41). Beraz, kasuei buruzko informazioa egokia dela ikusiz, esan dezakegu honek ez duela justiziaren konfiantzan eraginik. Kasu honetan ere, **prozesuko informazioak eta justiziarrekiko konfiantzak erlaziorik ez duela ikusi dezakegu, herrialdeen baitan informazioa aztertzen duen eskala eta justiziarrekiko konfiantza aztertzen duen eskala ez datoztelako bat**.

Kasuak ebazteko denborari dagokionez, nazioarteko konparaketa eginez, ikusi dezakegu 21 herrialdeetatik Espainia 17. postuan kokatzen dela, Dinamarca lehen postuan dagoelarik. Nahiz eta 2010 urtetik (291 egun kasu bat ebazteko) Espainian kasu bat ebazteko beharrezkoak diren egunak gutxitu egin diren 2016 urte arte (227 egun kasu bat ebazteko), nazioarteko konparaketan denboraren aldetik gauzak hobetu behar direla ikusi dezakegu, Dinamarkarekin alderatuz batez ere (21 egun kasu bat ebazteko) (European Commission, 2018, pág. 3). Beraz, ikusi dezakegu Espainiako justizia nahiko motela dela eta horrexegatik ondorioztatu dezakegu kasuak ebazteko denbora izan daitekela justiziaren konfiantzan eragiten duen faktore bat. Baina ondoren, beste herrialdeen kokapena aztertuz, ikusi dezakegu justiziarrekiko konfiantzan azken postuetan kokatzen

diren herrialdeak prozesuak ebazteko behar duten denboraren grafikoetan lehen postuetan kokatzen direla (Bulgaria 9. postuan, Eslovenia 7. postuan eta Polonia 6. postuan) . Horrexegatik esan dezakegu **herrialde bateko sistema judizialak prozesu bat ebazteko behar duen denbora eta berekiko daukagun konfiantza mailak erlazio zuzenik ez daukatela.**

Hala ere, kontuan hartu behar dugu Espainiako prozesuak azkarragoak izar beharko liratekela, denbora asko irauten baitute beste herrialdeekin alderatuta.

**Laburbilduz, esan dezakegu inpartzialtasuna dela justiziarekiko konfiantzan modu zuzenean eragiten duen ezaugarri bakarra.**

Hala ere, nazioarteko konparaketa honen bidez ikusi dugu arlo gehienetan Espainia azken postuetan kokatzen dela gehienetan, eta honek Espainiako justizia administrazioaren funtzionamendu txar bat adierazten digu.

Beste herrialdeekin alderatuz, Espainiaren justiziaren funtzionamendu txarrari azalpen bat bilatu nahian, ikusiko dugu ea justizia sisteman beharrezkoak diren baliabideetan inbertitzen den ala ez. Baina gobernuak justizia epaitegietan burutzen duen inbertsioa beste herrialdeekin alderatuz oso handia dela ikusi dezakegu; 28 herrialdeetatik 11. postuan kokatzen baita. Bestetik, Dinamarka arlo guztietan bere herritarren eskutik hoberen baloratzen duten justizia sistema izanik, finantziario baliabideen postuan azken bigarrena dagoela ikusi dezakegu (European Commission, 2018, pág. 13).

Baliabideak Dinamarkarekin alderatzea interesgarria iruditzen zaigu, izan ere, ikusi ditugun konparaketetan herrialde hau lehen postuetan kokatu da, eta Espainia berriz azkenekoetan.

Esan bezala, Dinamarkako gobernuak orokorrean justizia administrazioan Espainiak baino diru gutxiago gastatzen du. Dinamarkak bere BPGren 0,17 inbertitzen du sistema judizialean, Espainiak ordea 0,33a.

Baliabide pertsonalei dagokionez, Espainian ere gehiago inbertitzen da, 100.000 biztanleko 12 epaile ditugu, Dinamarkan 100.000 ordea 6,5 (European Commission, 2018, pág. 13). Epaitegietan ematen diren kasu kopuruak ere gutxiago dira Espainian (4,2) Dinamarkan baino (38,8) (European Commission, 2018, pág. 1).

**Beraz, baieztatu dezakegu Espainiako sistema judizialean burutzen den inbertsioa ez dela honen funtzionamendu txarraren arrazoia, ezta ere justiziarekiko konfiantzan eragiten duen arrazoia.** Izan daiteke, inbertsio hau gaizki bideratzen dela eta funtzionamendua hobetzeko balio ez izatea.


**Honek erakusten digu baliabide ekonomikoak ez dutela justiziarekiko balorazio positibo bat ziurtatzen.**

Beraz, justiziaren ezaugarriak aztertu ondoren, Espainiako kasuan inpartzialtasuna kontsideratzen dugu dela justiziarekiko konfiantzan eragiten duen ezaugarri bakarra.

### **Autonomia Erkidego desberdinen arteko konparaketa**

Espainiako justiziarekiko konfiantza maila nazioarteko konparaketan aztertu ondoren, Espainiar estatuaren baitan ere konparaketak burutzea interesgarria iruditzen zaigu. Honela ikusiko dugu ea Euskal Herrian Espainian baino justiziarekiko konfiantza handiagoa dagoen, eta bestetik, autonomia erkidegoen baitan konfiantza aldatzen doan edo Estatu mailan konfiantza orokor antzekoa dugun ikusiko dugu.

Justiziarekiko konfiantza mailari buruzko datuak Autonomia erkidegoen baitan soilik Botere judizialeko web orrialdean aurkitu ditzakegu. Justiziari buruzko konfiantzari buruzko galderak 6 urtero burutzen dira eta azkeneko datuak 2013 urtekoak ditugu, beraz nahiz eta orain dela 5 urtekoak izan, hauek aztertuko ditugu, esan bezala gaur egun ditugun datu bakarrak direlako.



*Irudia 3 Justiziaren konfiantza maila Espainiako autonomia erkidegoen arabera 2013 urtean.*

Iturria: BJKN-ko web orria.

Lehenik eta behin, ikusi dezakegu autonomia erkidegoen baitan konfiantza maila ez dela asko aldatzen 10 puntutatik 2,5-3,7 punturen artean aldatzen da, batezbestekoa 3,1 puntu delarik.

Guztien artetik, Galiziak dauka batezbesteko puntuazio baxuena (2,5) eta altuenak Murtziak eta Melillak (3,7). Euskal Herriak 2,8kin puntuatzen du justiziarekiko konfiantza, Espainiako batezbesteko konfiantza mailara ez da iristen eta justiziarekiko konfiantzari puntuazio gutxiena ematen dien autonomia erkidegoen artean kokatzen da.

Hala ere, puntuazioak 2,5 eta 3,7 punturen artean kokatzen da, beraz, autonomia erkidegoan justiziarekiko konfiantzaren ezberdintasun esanguratsurik ez daudela ikusi ditzakegu eta Estatu mailan justiziaren kontzeptua nahiko homogenoa dela esan dezakegu.

Beraz, aurretik esan bezala, autonomia erkidegoen baitan justizia administrazioarekiko konfiantzan ezberdintasunik aurkitu ez ditugunez, Euskal Herriko justiziarekiko konfiantza Espainiakoarena baino altuagoa ez dela ikusi dezakegu berriro ere.

## Talde sozialen araberako desberdintasunak Espainian eta Euskadin


Orain arte justiziarekiko konfiantza arlo orokorren baitan (kapital soziala, erakundeekiko konfiantza eta krisi ekonomikoa) eta justiziaren ezaugarriak nazioarteko konparaketa eginez aztertu dugu. Orain ordea, biztanleriaren norbanakoaren ezaugarrietan zentratuko gara hauek justiziarekiko konfiantzan eragina duten aztertzeko helburuarekin.

### Generoa

Justiziaren konfiantza generoren arabera aztertuz, emakumeen konfiantzaren batezbestekoa 10 puntutik 3,1koa da eta gizonena 3,0koa (Instituto Nacional de Estadística. Eurostat, 2013). Ezberdintasun esanguratsurik ez dagoenez ondorioztatu dezakegu **generoak ez daukala justiziarekiko konfiantzan eraginik**.

### Adina

Biztanleriaren adinaren arabera justiziaren konfiantzan ezberdintasunak aurkitzen ditugun aztertuko dugu jarraian.




*Irudia 4 Justiziarekiko konfiantza adinaren baitan 2013 urtean.*

Iturria: (Instituto Nacional de Estadística. Eurostat, 2013)

Ikusi dezakegun bezala ez ditugu ezberdintasunik atzematen adinaren arabera. Zerbitzuen balorazioari dagokionez ordea, ezberdintasun nabariagoak aurkitu ditzakegu.





*Irudia 5 Justizia administratiboarengandik jasotako zerbitzuen balorazioa adinaren baitan 2013 urtean.*

Iturria: (Herri administrazio eta justizia saila, 2013)

Gazteenak balorazio puntuaketa txikiena (3,81) ematen dutela aztertu dezakegu adin handikoek hobeagoa ematen duten bitartean. Hala ere desberdintasun hau ez da oso esanguratsua (Herri administrazio eta justizia saila, 2013, pág. 11).

Beraz, ondorioztatu dezakegu konfiantzaren aldetik adinen arabera ez ditugula ezberdintasunik aurkitzen, baina **jasotako zerbitzuaren kasuan, gazteek badirudi justizia administrazioaren zerbitzuak okerrago baloratzen dituztela**. Hau bi kausen ondorioz izan daiteke, lehen, pertsona gazteek zerbitzuetatik gehiago exigitzen dutenaren seinale izan daiteke, pertsona adintsuak jasotako zerbitzuarekin gehiago konformatzen diren bitartean eta bigarrena, justizia administrazioak gazteen behar eta nahiak ez dituztela adintsuenak bezain kontuan hartzen.

### *Ideologia*

Jarraian, justiziaren konfiantzan ideologiak eragina duen ala ez aztertuko dugu, ideologia politikoan zentratuz.

Horretarako, justiziarekiko konfiantzan gehienbat konfiantzen duten eta gehienbat konfiantzen ez duten pertsonen hauteskundeetan bozkatu ohi zuten alderdiak aztertuko ditugu, ideologia eta justiziarekiko konfiantzaren artean erlazio bat ezarri nahian.

*Taula 2 2014 urteko Euskal herriko justiziaren epaitegiarekiko konfiantza maila 2012 urteko hauteskundeetako bozkaketaren arabera*

	EAJ/PNV	EH BILDU	PSE- EE	PP	UPD	Besteak	Absten	Ed- Ee
Gehienbat konfiantza du	28	14	36	42	23	29	28	21
Gehienbat ez du konfiatarik	59	78	52	38	65	60	54	56
Ed-Ee	13	8	12	20	12	11	17	23

Iturria: (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2014)

Lehenik eta behin atentzio deitzen digu ideologia politiko ezkertiar eta eskuindarren arteko ezberdintasuna. Ezkertien kasuan, orokorrean justizian gutxiago konfiantzen dutela ikusi dezakegu. Gehienbat konfiatzen ez dutenaren zifrarik altuenak EH Bilduko bozkariak daukate, hauen artean %78ak gehienbat ez du konfiantzen justiziarengan. Ondoren UPDko bozkarik egongo ziren %65ak gehienbat konfiantzen ez dutelarik. Bestetik, PPko bozkariek daukate justiziarengan konfiantza handiena (%42).

Ezkertiar eta eskuindarren arteko ezberdintasunaren salbuespena daukagu PNV eta PSEko bozkarietan, azken hauek ezkertiarrek izan arren PNVko bozkariek baino gehiago konfiantzen baitute justiziarengan.

Bestetik aipatzekoa da hauteskundeetan parte hartu ez zuten pertsona gehienak (54%) ez duela konfiatarik justizian.

Eskuindar eta ezkertiarren arteko ezberdintasun hau urteetan zehar mantentzen den ala ez ikusteko, 2016 urteko erantzunak aztertuko ditugu 2015ko hauteskundeko botoak kontuan edukiz.

*Tula 3 2016 urteko Euskal herriko justiziaren epaitegiarekiko konfiantza maila 2015 urteko hauteskundeetako bozketaren arabera.*

	EAJ/ PNV	EH BILDU	PSE- EE	PP	PODE MOS	CIUDA DANOS	Besteak	Absten.	Ed- Ee
Gehienbat konfiantza du	30	16	37	54	27	46	26	27	26
Gehienbat ez du konfiatarik	61	80	56	41	65	47	68	65	59
Ed-Ee	9	4	7	5	8	7	6	9	15

Iturria: (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2016)

Kasu honetan PODEMOS eta CIUDADANOS alderdi politiko berriak ditugu eta UPD kanpoan geratzen da.

2012ko hauteskundeekin alderatuz erantzun antzekoak aurkitzen ditugu, bi aldeetako ezberdintasuna mantentzen; Ezkertiar politika ideologia duten pertsonak justizian gehienbat ez dute konfiatarik, eta eskuindar gehienak bai.

Kasu honetan ere EH bildu bozkatu duten pertsonak dira konfiantza gutxien dutenak (%80), eta ondoren, Podemos alderdi politikoa bozkatu dutenak (%65). Alderdi eskuindarrak bozkatzeko duten herritarrek daukate justiziarengan konfiantza gehiago; PP (%54) eta Ciudadanos (%46) alderdi politikoak bozkatzeko dutenak hain zuzen ere.

2015ko erantzunen antzera, PNVko bozkariek PSEkoek baino konfiantza txikiagoa daukate, ezkertiar eta eskuindarren arteko egin dugun ezberdintasuna hausten.

Azkenik, parte hartu ez zuten pertsonen gehiengoak (%65) justiziarengan konfiatarik ez dutela ikusi dezakegu.

Ideologia eskuindarra daukatela kontsideratzen duten pertsonak konfiantza gehiago daukate erakundeetan, parlamentuan, sistema legalean, polizian eta politikoetan besteak beste, baina pertsonengan orokorrean gutxiago konfiatzen dute (Fernández de Guevara Radoselovics, Pérez García, & Serrero Martínez, 2015, pág. 105)

Beraz, ondorioztatu dezakegu ideologia eskuindarra daukaten pertsonak justiziarengan konfiantza gehiago daukatela.

Gertakizun honek hainbat azalpen posible eduki ditzake. Lehenik eta behin, pertsona eskuindarrak gaur egungo sistema kapitalistarekin ezkertiarrek baina erosoagoak egongo dira orokorrean, beraien ideologiarekin bat datorrelako. Horrexegatik, gizarteko erakundeekiko konfiantza handiagoa edukiko dute eta ondorioz justiziarengan ere bai.

Bestetik, ezkertiarren ideologiak herritarren berdintasuna babesten du eta honek justiziarengan konfiantza gutxiagoa edukitzea sorraraziko du. Izan ere, alde batetik, eta jada azaldu dugun bezala, justiziaren ideia kontzeptu orokor eta abstraktu bat bezala ulertzen da batzuetan. Gaur egun, kapitalismoak sortzen dituen ezberdintasunekin ados ez egotea injustizia sentazioa sor dezake eta justiziarekiko konfiantzan eragin dezake. Bestetik, aztertu dugun bezala, Espainiako justizia ez da independentea, ez teorian, ez herritarren ustetan. Honek, justiziaren aurrean herritarrak ezberdin tratatzen direnaren sentazioa eragingo du eta berdintasunaren aurka doanez, ezkertiarrek konfiantza gutxiago edukiko dute eskuindarrak baino.

Bestetik, PNVren salbuespena daukagu. Honi azalpen bat eman nahian, PNV-k askotan justiziarekiko hainbat eskaera burutu dituzte, Euskal justizia bat eskatuz eta autonomia erkidegoko sistema penitentziario bat aldarrikatuz (Europa press, 2018).

Honek, eskuindar alderdi politikoa izanik, hala ere justiziarekiko konfiantza gutxi edukitzea sorraraziko du gaur egungo sistema judiziala bere ideologiarekin bat ez datorrelako.

Bestetik, ikusi dezakegu **hauteskundeetan abstenitzen diren pertsonen gehiengoak ez dutela justiziarengan konfiatzen**. Kapital soziala aztertu dugunean, ondorioztatu dugu erakundeekiko konfiantza gutxi duten pertsonen hauteskundeetan parte-hartze handiago bat daukatela, modu batean erakundeak eta gizarteko sistema baten aldaketa baten beharra baitute. Justiziarekiko konfiantzan ordea kontrakoa gertatzen da.

Honek adierazten digu, herritarren ustez politikariek justizian aldaketak burutzeko ezintasuna daukatela, edo aldaketak burutuko ez dituztenaren pentsamendua daukatela.

**Laburbilduz, baieztatu dezakegu ideologiak justiziarekiko konfiantzan eragiten duela. Eskuindar eta ezkertiar ideologia duten pertsonen arteko ezberdintasun argi bat daukagu, azken hauek justiziarengan gutxien konfiantzen duten pertsonak izanik.**

## Klase soziala

Ideologia aztertu ondoren klase sozialetan zentratuko gara.

*Taula 4 Justiziarekiko konfiantza maila 2016 urtean Espainian*

	Baxua	Erdikoa	Altua
Gehienbat konfiantzen du	30	33	37
Gehienbat ez du konfiantzen	60	59	60
Ed-Ee	10	8	2

Iturria: (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2016)

Klase sozialaren baitan justiziarekiko konfiantzan ezberdintasunak ikusi ditzakegu. Geroz eta klase sozial altuagoa izan geroz eta konfiantza gehiago dago justiziarengan.

Gaur egungo klase sozialak pertsonen jabetza ekonomikoaren arabera banatzen dira. Beraz, arlo ekonomiko indibidualak kontuan hartuz, diru sarrera altuagoa daukaten pertsonak konfiantza orokor handiagoa edukitzen ohi dute, bai pertsonengan orokorrean, bai erakundeengan eta bai justizia sistemarengan (Herrerros Vázquez, 2010).


**Horrexegatik ikusi dezakegu zenbat eta klase sozial altuagoa eduki orduan eta justiziarekiko konfiantza altuagoa dagoela, gure hipotesia betetzen delarik.**

Fenomeno hau krisi ekonomikoarekin erlazionatua egon dezake. Krisiak herritarren diru sarreran eragina eduki zuen, baina batez ere klase baxu eta ertaineko herritarrengan. Honek beraien konfiantza orokorrean eragina edukiko zuen, eta aldi berean erakundeekiko eta sistema judizialarekiko konfiantzan.

Bestalde, ez dakiten edo erantzun nahi ez duten pertsonen artean ezberdintasunak aurkitu ditugu. Klase sozial baxua duten pertsonen artean 10 pertsonak ez dute erantzun, klase sozial altuko pertsonen artean berriz 2 pertsonak soilik. Hau ikasketa mailarekin erlazionatua egon litzateke, suposatzen baitugu zenbat eta klase sozial altuagoa eduki orduan eta ikasketa maila altuagoak edukitzeko aukera gehiago daudela. Erlazio hau sakonago aztertzea interesgarria iruditzen zaigu, beraz, hurrengo puntuan ikasketa mailan zentratuko gera.

### *Ikasketa maila*

Aurreko puntuan aipatu bezala, printzipioz ikasketa maila eta justiziarekiko konfiantzaren artean erlazio positibo bat dagoela atzeman dezakegu.



*Irudia 6 Justiziarenganako konfiantza ikasketa mailaren arabera Espainian 2013 urtean*

Iturria: (Instituto Nacional de Estadística. Eurostat, 2013)

Ikusi dezakegu zenbat eta ikasketa maila altuagoa eduki orduan eta konfiantza gehiago dagoela justiziarengan, beraz baieztatu dezakegu **justiziarekiko konfiantzak eta ikasketa mailak erlazio positibo bat daukatela.**

Erlazio honi azalpen bat aurkitzeko justiziaren ideia orokorrean zentratuko gera, hau da, bizi justu bat edukitzearen idean. Zenbat eta ikasketa maila altuagoa eduki, orduan eta aukera gehiago edukiko ditugu bizi on bat izateko; lanpostu on bat izateko aukera, diru sarrera gehiago edukitzeko aukera, nahi duguna egiteko askatasun gehiago... eta justizia arloan murgiltzeko segurtasun gehiago baita ere. Horrexegatik, ikasketa mailak bizi "justuago" bat izatearen sentimendua areagotzen du, hau justizia sistemarekiko konfiantzan islatuz. **Beraz, ideologia, klase maila eta ikasketa maila elkar erlazionatuta daude, eta hiruak daukate erlazio positibo bat justiziarekiko konfiantzarekin.**

### *Bizilekua*

Herritarren bizilekuari dagokionez, esan beharra dago orokorrean hirian bertan edo hiritik gertu dauden pertsonak erakundeekiko konfiantza gehiago daukatela herrietan bizi diren pertsonak baino. Lege sistemari eta poliziari dagokionez ordea bizilekuak ez dauka eraginik (Fernández de Guevara Radoselovics, Pérez García, & Serrano Martínez, 2015, pág. 93).

**Beraz, baieztatu dezakegu bizilekuak eta justiziarekiko konfiantzak ez daukatela erlaziorik.**

### *Justizia administratiboarekin kontaktua eduki duten pertsonak*

Puntu honetan, epaiketa bat edo justizia administrazioarekin erlazio eta esperientzia zuzen bat eduki duten pertsonen iritzia aztertuko dugu, batez ere Euskal Herrian zentratuz.

Lehenik eta behin esan beharra dago justizia administrazioarengatik jasotako zerbitzuaren kalitatea espero denarena baina hobea dela; Zerbitzua jaso baino lehen justizia administrazioa 5etik 3,81 puntuekin baloratzen zuten biztanleek, zerbitzua jaso ondoren ordea 3,88ko puntuazioa eman diote (Herri administrazio eta justizia saila, 2013).

*Taula 5 Euskal Herriko justizia administrazioko zerbitzuen onarpen puntuazioa 2013 urtean.*

Ezaugarria	Onarpen puntuazioa
Justizia auzitegien seinale egokiak	95,75%
Instalazio egokiak: aulkiak, komunak, telefono publikoak..	96,97%
Finkatutako epeen baitan zerbitzuan burutzea	97,77%
Intimitatea eta konfidentzialtasuna	98, 20%
Liburuxka informatibo eta formularioen eskuragarritasuna	98,72%
Ingurune baldintza egokiak: garbiketa, tenperatura, argitasuna, isiltasuna...	99,87%
Akatsik gabeko zerbitzua	100,34%
Lehen aldi zerbitzu egoki bat jaso izana	100,56%
Eskaera baten ezeztapena ematekotan, arrazoien azalpen nahikoa	101,32%
Langileen aldetik epeen adierazpen egokia	103,21%
Langileen aldetik hizkuntzaren erabilera argi eta ulergarri baten erabilpena	103,68%
Erabiltzaileak eskatutako hizkuntza kontuan hartzea	103,80%
Eskaintako zerbitzuaren bizkortasuna eta etenaldi ausentziak	103,89%
Arazo bat edukitzekotan, langileen partetik arazoa konpontzeko interesa	104,04%
Galdetutako zalantzak erantzuteko ezagutza maila egokia duten langileak egotea	104,37%
Arreta azkarra eta itxaronaldirik gabe	104,42%
Langileen partetik konfiantza transmititzea	104,71%
Erabiltzaileen beharrak ulertzea eta langileen partetik behar hauek asetzeko intentzioa edukitzea	104,88%
Langileek galderak erantzuteko prestasuna	104,96%
Tratu adeitsu eta begirunetsua langileen aldetik	106,96%
Batazbesteko	101, 97%

Iturria: (Herri administrazio eta justizia saila, 2013)




Orokorrean, biztanleek zerbitzua ezaugarri ezberdinen baitan aztertzean ezaugarri gehienak espero zirenak baino puntuazio hobea lortzen dute, onarpen puntuazio txikiena daukan portzentaia 95,75% izanik (Herri administrazio eta justizia saila, 2013, pág. 25).

Beraz, esan dezakegu **biztanleek administrazio justiziarekiko daukaten konfiantza ez dela errealitatearekin bat etortzen**, zerbitzu hauek jaso ondoren espero zena baino hobea kalifikatzen dutelako justizia administrazioa. Honek adierazten digu orokorrean gizartearen justiziarekiko irudi negatibo bat zabaldua dagoela, errealitatearekin bat ez datorrena.

### *Nazionalitatea*

Biztanleen ezaugarri indibidualak aztertzen, pertsonen nazionalitatearen arabera antzeman ditugu ezberdintasun esanguratsuak.



*Irudia 14. Justiziarekiko konfiantza Espainian nazionalitatearen arabera 2013 urtean.*

Iturria: (Instituto Nacional de Estadística. Eurostat, 2013)

Espainiarrak daukate estatuko justiziarengan konfiantza gutxien (2,9), ondoren Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetako atzerritarrak edukiko dute konfiantza gehiago (4,1) eta azkenik Europar Batasuneko herrialdeetako atzerritarrak edukiko dute konfiantza gehiena (4,2).

Atzerritarrak Espainiako justizia administrazioa Espainiar nazionalitatea daukatena baino hobeto baloratzen dute. Nazioarteko konparaketan ikusi dugu E.B.ko herrialdeak Espainia baino puntuazio altuagoa daukatela justiziarekiko konfiantzan, hortaz, atzerritarrak Espainiako justizia administrazioa bere herrialdekoarekin konparatu ahalko dute, teorikoki “hobeago dena” horregatik hemengo okerrago baloratu beharko zuten, baina kontrakoa gertatzen da.

Guzti hau justizia administrazioaren zerbitzuak jaso ondoren instituzioa positiboago baloratzen denarekin erlazionatuz, ondorioztatu dezakegu berriro ere **Espainiarren konfiantza ez dela errealitatera egokitzen.**

**Justiziarekiko konfiantza norbanakoaren ezaugarrien baitan aztertu ondoren, gure hipotesia betetzen dela esan dezakegu, biztanleen ezaugarri pertsonalak justiziarekiko konfiantzan eragiten baitute.** Aztertu ditugun ezaugarri indibidual guztietatik, ideologiak, klase sozialak, ikasketa mailak, justiziarekiko kontaktu zuzenaren esperientziak eta nazionalitateak eragiten dute justiziarekiko konfiantzan.

Behin herritarren ezaugarriak aztertu ondoren, eta ikusiz hauen balorazioa ez datorrela errealitatearekin bat, justizia administrazioaren baitan lan egiten duten pertsonen iritzia kontuan hartu behar dugu.

### **3.2. Profesionalen eta instituzioen iritzia.**

Justizia administrazioaren baitan lan egiten duten profesionalen eta adituen iritzia aztertuko ditugu puntu honetan. Honela, alde batetik, justiziarekiko daukaten iritzia aztertuko dugu, eta bestetik adituen ustetan herritarrak justiziarengan konfiantza gehiago edukitzeko hartu beharreko neurriak ikusiko ditugu.

#### **3.2.1. Adituak ( Abokatuak, Epaille eta fiskalak)**

Lehenik eta behin aipatu behar dugu justiziaren funtzionamenduari dagokionez, herritar eta profesionalen arteko ezberdintasuna dagoela.

Lehen esan bezala, herritarrek justiziaren zerbitzuak jaso ondoren espero zutena baina hobego baloratzen dituzte. Justizian lan egiten duten profesionalen kasuan ordea, kontrakoa gertatzen da.

Justizia administrazioko profesionalak Euskal Herrian eskaini beharko liratekeen zerbitzua 10etik 8,03 punturekin baloratzen dute, zerbitzua eskaini ondoren ordea 6,14 punturekin baloratzen dute zerbitzuaren kalitatea, herritarrak 7,76ko punturekin baloratzen duten bitartean (Herri Administrazio eta Justizia saila, 2014, pág. 8). Beraz, profesionalak herritarrak ez bezala, zerbitzua gauzatu ondoren justizia administrazioa okerrago baloratzen dute eta herritarrek baino puntuazio baxuago bat emanaz. **Horrexegatik gure hipotesia betetzen ez dela ikusi dezakegu, izan ere justizia administrazioan lan egiten duten pertsonak justizia okerrago baloratzen dute bertan lan egiten ez duten herritarrek baino.**

Nahiz eta orain arte herritarrengan zentratu garen, justiziarekiko dagoen konfiantza maila txikia ez dagokio soilik biztanleria arruntari. Ikusi dugun bezala, justizia administrazioan lan egiten duten pertsonak ere justiziarekiko hainbat desadostasun azaltzen dute. Honen adierazle bat, 2018ko Maiatza justiziarekiko greban epaileen eta fiskalen %60,1ek parte hartu zutela da *“Hoy muchos fiscales, jueces y juezas hemos decidido hacer huelga. Con ella queremos expresar nuestro profundo malestar con los responsables en materia de Justicia ante la dejación y abandono en el que se encuentra este servicio público. Reclamamos una Administración de Justicia del siglo XXI, de calidad y con medios e independiente”* (El Mundo, 2018)

Abokatuek ere justiziaren hainbat arloekin desadostasuna adierazten dute; Abokatuen %86ak dio justizia administrazioa krisi larri bat jasaten dagoela, eta %92ak justizia administrazioa gaur egungo beharretara moldatzeko estatu paktu bat behar duela diote. Ala ere, %88ak justizia administrazioa eskubideak eta askatasunak babesteko demokraziaren azken tresna dela kontsideratzen dute.

Abokatuen ustetan justiziaren arazoak ez dira bertan lan egiten duten pertsonen eraginez sortzen, baizik eta justiziaren antolamenduaren ondorioz; beraien esanetan *“Buenos Jueces, mala Justicia”*. Ondorioz, %88ak dio, gainontzeko instituzioen antzera, justizia administrazioak kanpoko ebaluazio objektibo baten beharra duela.

Abokatuen iritzia sakonki aztertzeko 2015an *Consejo General de la Abogacia*-k egindako ikerketako datuak aztertuko ditugu. Jarraian, abokatuen ustetan justizia administrazioan burutu beharko liratekeen aldaketak ikusiko ditugu:

-Gobernuaren eskutik, justizia benetan hobetzeko intentzioa edukitzea eta ez honetan eragiteko nahia edukitzea (%91). Aztertu dugun bezala, politikariek justizian hainbat eragin burutzen dituzte, baina eragin horiek beraientzako edo alderdi politikoarentzako onurak lortzeko burutzen dira. Abokatuen ustetan, politikariek justizian eragin behar dute, baina sistema guztia hobetzeko, herritar guztien onurarentzat, ez soilik beraien interesentzat. Justizia eraginkorragoa eta eguneratuagoa izateko neurriak hartu behar dituzte. %92ak gauza bera pentsatzen du BJKN-ari buruz. Hau logikoa da, teorian ikusi dugun bezala, organo honetako kideak politikariek hautatzen dituztelako, beraz kide hauek politikariengandik oso influentziagarriak izango direla ondorioztatu dezakegu.

-Errealitate sozialera egokitzen den justizia bat edukitzea (%79). Aurretik ikusi dugun bezala, gaur egungo justizia ez dator bat herritarren pentsatzeko moduarekin, batez ere genero indarkeriaren kasuei dagokionez. Justizia administrazioa gizartearen pentsamenduarekin bat etorri behar du eta delituei buruzko pentsamendu eguneratu bat eduki behar du.

- Justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen koordinazioa hobetu beharko litzateke (%74). Gaur egun justizia administrazioan esku hartzen dituzten zerbitzuak organismo eta administrazio ezberdinen menpe daude, ondorioz, zerbitzuen arteko koordinazioa ez da behar bezain egokia. Horrexegatik, justizia eraginkorragoa izateko hauen arteko koordinazioa hobetu beharko litzateke (Metroscopia, 2015).

Neurri hauetaz gain, abokatuen ustetan *Consejo General de la Abogacia*-k 2009an egindako ikerketan agertzen diren beste neurri hauek ere kontuan hartu beharrekoak direla kontsideratzen dugu;

-Gatazkak konpontzeko beste bide alternatiboak ezarri epaitegietako lana azkartzeko helburuarekin (%89). Kasu espezifikoetan beste bide alternatiboak ezarri, arazo bat konpontzeko beharrezkoa den denbora gutxitzea lortu daiteke, eta gehienetan arazoa modu egokiago batean kudeatzeko aukera eskaintzen digute bide alternatibo hauek, adibidez, bitartekaritza aplikatuz.

-Ofizina judiziala behar bezala antolatuta egon beharko zen ahalik eta funtzionamendu hoberena egon dadin (82%). Hartu beharreko neurri hau batez ere aurrerapen teknologikoei egiten dio erreferentzia. Gaur egun teknologia oso aurreratuta dago eta justizia administrazioak teknologia hauek erabili behar ditu ahalik eta antolakuntza eta funtzionamendu hoberena lortzeko.

-Legedi prozesala aldatu, justiziaren prozesuak azkartzeko helburuarekin (74%). Gatazkak ebazteko neurri alternatiboak ezartzeaz gain, prozesuak azkartzeko legedi prozesala aldatzea beharrezkoa ikusten dute abokatuek (Metroscopia, 2009).

Abokatez gain, asoziazio ezberdinek ere gaur egungo justizia administrazioaren funtzionamendua zalantzan jartzen dute, batez ere politikariek burutzen dituzten eraginak kritikatu.

Guztiek justiziarekiko iritzietan bat egiten dute; Asociacion Profesional de la Magistratura (APM), Jueces por la Democracia (JPD), Asociacion Judicial Francisco de Vitoria (AJFV) eta Foro Judicial Independiente (FJI).

Justizia arlo politikotik urrundu behar dela diote benetan justizia independente eta inpartzial bat bermatzeko. Bestalde, herritarren justiziarekiko konfiantza maila handitzeko neurriak hartu behar direla diote *“aunque es un cliché que la justicia sea partidista, la idea ha calado en la población”*. Nahiz eta herritarrek justiziarekiko daukaten ideia errealitatearekin bat ez etorri, ideia negatibo hori alde batera uzteko neurriak hartu behar dira.

AJFV-ren ustetan bereziki BJKNko kideak hautatzeko moduak dauka biztanlearen justiziarekiko konfiantzan oso eragin negatiboa (eldiario.es, 2018).

Elkarteak aztertu ondoren, orain epaileen iritzi pertsonala hartuko dugu kontuan, justizia sistemaren funtzionamenduari buruzko iritziak eta hauekiko konfiantza aztertuz. Epaileei dagokionez, lehenik eta behin beraien lanari buruzko hainbat kexa dituztela ikusi dezakegu, adibidez, epaileen %84a ez dago bere soldatarekin pozik, soilik %14a ados dago (SIGMADOS, 2015, pág. 10).

Bestalde, epaileen pertsonal kopuruari dagokionez, %48ak epaile eta funtzionarioen pertsonal kopurua handitzea beharrezkoa dela diote. Nazioarteko konparaketan ordea,

ikusi dugu Espainiak beste herrialdeekin alderatuz epaile kopuru gehiago dituela (12 epaile 10.000 biztanleko)

Bestetik, normalean edukitzen duten lan kopuruari dagokionez, %70ak dio gehiegizkoa dela, soilik %27ak dio egokia dela. Ala ere, aurretik ikusi dugun bezala, Espainia Europar Batasuneko beste herrialdeekin alderatuz, kasu kopuru gutxiago dituela ikusi dezakegu (SIGMADOS, 2015).

**Beraz, nahiz eta epaileek pertsonal kopuru eta kasu kopuruei buruzko kezak adierazi, beste herrialdeekin alderatuz, ikusi dezakegu beste herrialdeetan kasu kopuru gehiago eramaten dituztela epaile kopuru gutxiagorekin eta denbora tarte gutxiagoan. Beraz agian ez da ez pertsonal eta ez kasu kopuruaren arazoa izango, baizik eta material edota prozesuen egituraren arazo bat baizik.**

Honen harira, baliabide materialak aztertuko ditugu. Epaileen %47ak eskura dituzten baliabide materialak negatiboki baloratzen dituzte, soilik %23ak egokiak bezala kalifikatzen dituzten bitartean (SIGMADOS, 2015).

Baliabideen artean, lehenengo beharra (%74) epaile eta magistratuen zerbitzuetan informatikako adituak egon beharko liratekela da. Ondoren, peritu kontable talde bat sortu beharko zela diote, soilik epaitegi eta auzitegien zerbitzuetan egoteko (%72). Baita ere, talde espezializatuak sortu beharko zirela diote justizia hazienda-ikuskatzaileak, Espainiako Bankua eta Estatuko funtzionarioen arteko kolaborazio harremanak sustatzeko (%71). Azkenik, korrupzio kausa konplexuei buruzko formazio inisiala eta jarraitua egon beharko zela diote (%66). Beraz, baliabideei dagokionez, epaileen ustetan bere lana erraztuko zuten hainbat aldaketa eta inkorporazio egin beharko lirateke.

Bestetik, epaile penaleei hainbat modifikazio prozesal planteatu zitzairen eta baieztapenekin ados zeuden ala ez adierazi behar zuten:

-Baieztapen gehiena jaso duen aldaketa prozesala, auzitegi probintzialesan korrupzio eta delinkuentzia ekonomikoan espezializatuak dauden epaitegiak sortzea da (%86 ados).

-Bigarren baieztapena, ordezkari publiko eta kargu espezifiko batzuei lekuko frogan LECrim. 410. art eta hurrengoetan ematen zaizkieten pribilegioak aldatzea (%79 ados).

-Azkenik, ahozko epaiketa baino lehenago, proba nuluen alegazioak eta ebazpenak burutzeko momentu prozesal berri bat sortzea (75% ados).

Beraz, zehazki prozesu penalak hobetzeko hainbat neurri hartu daitezke ikusi dezakegu.

Bestalde, komunikabideetan behin eta berriro agertzen da epaitegietan eta auzitegietan burutzen diren ekintzak, eta hauek zuzenki eragiten dute pertsonen daukaten justiziarekiko konfiantzan. Justiziako profesionalen iritzia entzutean ordea, ikusi dezakegu %91ak uste duela komunikabideek ez dutela epaitegietako ekintzak objetiboki adierazten (SIGMADOS, 2015). Beraz, profesionalen aldetik, komunikabideek herritarrei transmititzen dieten justiziarekiko informazioa ez dator errealitatearekin bat, ondorioz, informazio honetatik sortzen duten iritzia ezta. Beraz, herritarren konfiantza ez da errealitatearekin bat etortzen.

Ikerketan BJKN-ari buruz galdetzerakoan epaile eta magistratuen %67a ez dago organo honetako kideak hautatzeko dagoen sistemarekin ados, meritu eta gaitasunak ez dituela kontuan hartzen kontsideratzen baitute. Bestetik, organo honen funtzionamenduari dagokionez %75ak independentzia judiziala behar bezala babesten ez duela uste dute. Beraz, esan dezakegu epaile eta magistratuak ez daudela BJKNko ez kide ez funtzionamenduarekin ados.

Epaile gehienek justiziaren independentzia falta salatzen dute. Baina batzuk aurretik aipatu ditugun epaileen asoziazioen independentzia ere salatzen dute. Printzipioz, asoziazio hauek epaileen lan baldintzak eta interesak defendatzeko eta bermatzeko sortuak dira. Baina hainbat epaileek diote asoziazio hauek botere politikoarengandik influentziatuak daudela, eta justiziaren goi karguetara iristeko plataformak direla. Honela, justiziaren independentzia berriro ere urratzen dela ikusi dezakegu, asoziazioen bitartez epaileen lan baldintzak eta interesak bermatzeko bide zina oztopatzen den heinean. Honen proba bat Espainiako epaileen %50a asoziatuta ez egotea izango litzateke. (Gutiérrez, 2007)

Bestetik, justiziaren prozesuak azkartu behar direla adierazten dute, horretarako ezarritako epeak jatsi behar dira, aldi berean, justiziaren kalitatea jatsi gabe. Baliabide ekonomikoek dagokionez, guk aipatu dugun bezala, Espainian gutxi inbertitzen ez dela diote, inbertsio hori gaizki bideratzen dela baizik. Azkenik, abokatuen iritziarekin bat

etorriaz erreforma informatikoak beharrezkoak direla diote (Ilustre colegio de abogados de Madrid, 2015).

Laburbilduz, ikusi dezakegu herritarren aldetik justiziarekiko konfiantza baxua dela, eta bertan lan egiten duten profesionalen aldetik justiziaren funtzionamendua hobetu behar dela. Beraz, argi geratzen da justizia sistemaren baitan aldaketak burutu behar direla.

### **3.2.2 Eragile publiko desberdinak**

Sistema judizialean lan egiten duten profesionalaz aparte, beste hainbat zerbitzu daude justizia administrazioarekin elkarlanean, eta hauek ere herritarren konfiantza falta sumatzen dute justiziarengan.

Arartekoak 2017ko urteko txostenean justizia administrazioarekin erlazionaturiko 409 kexa jaso zituen. Kexa horien artean 285 erabaki judizial batekin ados ez egoteagatik burutu ziren eta 205 tramitean dagoen prozesu judizial batekin ados ez egoteagatik. Zifra hauek 2016koen antzekoak dira. (Defensor del pueblo, 2017, pág. 111)

Kexa hauek justizia administrazioak zerbitzu publiko bezala dituen arazoak detektatzeko balio digu: Bi arazo printzipal aurkitzen ditugu herritarren partetik, bata justiziaren moteltasuna da, eta bestea, justizia administrazioak dituen zerbitzu informatikoak, profesional bai herritarrak afektatzen dituenak. (Consejo general de la abogacía Española, 2018)

Bestetik, herritarrak eta profesionalak ez dira justizia administrazioarekiko desadostasuna azaleratzen duten bakarrak, hainbat instituziok ere justiziaren funtzionamenduari buruak kexak burutu dituzte. Adibidez, 2018ko urte hasieran Aldundiak justiziarekiko desadostasuna erakutsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Diputazioko euskararen normalizazio planeko bost artikuluko balio gabe utzi zituenean hauen irakurketa murriztaile bat egiteagatik. (El Diario Vasco, 2018)

Beste adibide bat Emakundek burutzen duena izango litzateke. Instituzio honek justiziaren genero indarkerian daukan espezializazio baxua salatzen du, honek dakartzan ondorioekin; biktimari prozesuan garrantzia ez ematea, prozesuaren baitan sentsibilizazio eza, biktima babesteko artzen diren neurri desegokiak... (Emakunde, 2007)



Naiz ete hainbat herritar eta instituzio ezberdinek justiziaren funtzionamendua askotan kritikatu duten, gobernuaren aldetik justiziaren eginkizunak hainbat kasutan justifikatu eta defendatu egin dira. Adibidez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Arnaldo Otegiaren sententzia Bateragune kasuan inpartziala izan ez zela erabaki zuenean. Gobernuak Espainiako justizia inpartziala zala defendatu zuen momentu guztian eta adierazi zuen nahiz eta Estrasburgoko Auzitegiaren erabakia errespetatu, horrek ez zuela Espainiako justiziaren egoera zalantzan jartzen. (La Vanguardia, 2018)

Bai herritar eta bai instituzioen aldetik askotan salatu dira justizia administrazioak gaizki burututako eginkizunak. Gobernuaren aldetik ordea justiziarekiko kritikak oso urriak izan dira, eta justiziaren eginkizunak justifikatzen dituen hitzaldiak ugariak ordea. Honek botere exekutiboa eta botere judizialaren arteko erlazioaren pertzepzioa areagotzea sortuko du.

Laburbilduz, ikusi dugu bai herritar, justizia administrazioan lan egiten duten profesionalek eta instituzio ezberdinek justiziaren zerbitzu eta funtzionamenduak zalantzan jartzen dituztela askotan. Gobernuak ordea, justizia administrazioaren funtzionamendua askotan defendatzen du instituzio honen baitan aldaketak burutu behar direla ukatuz.

## **4. ONDORIOEN ATALA**

Behin justiziarekiko konfiantza teorikoki eta enpirikoki aztertuta, gai konplexu honi buruzko ondorioak aterako ditugu.

### **4.1. Diagnosia**

Lehenik eta behin gaiaren diagnosi bat burutuko dugu. Lanean zehar hainbat ondorio atera ondoren, jarraian konklusio hauek aipatu eta banan-banan aztertuko ditugu.

#### **1- Kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzaren arteko erlazioa ahula da.**

Atal teorikoan ikusi dugu kapital sozialak eta erakundeekiko konfiantzak erlazio positibo bat dutela. Kapital sozialaren gainbeherak pertsonen arteko konfiantza gutxitzea eragiten du eta azken honek erakundeekiko konfiantzaren beherakada dakartza, beraz geroz eta

kapital sozial gutxiago egon geroz eta erakundeekiko konfiantza gutxiago egongo da. Hortaz, planteatu dugun bezala, azken urteetan kapital sozialaren gainbehera bat egon baldin bada erakundeekiko konfiantzaren jaxiera bat gauzatu beharko litzateke.

Atal enpirikoan frogatu dugu 2007-2008 urtetik aurrera kapital sozialaren gainbehera bat gauzatu dela Espainia eta Euskal Herri mailan. Baina Euskal Herrian Espainian baino kapital sozial altuagoa egon arren, Euskal Herrian erakundeekiko konfiantza gutxiago dago, lehen ikusitako erlazio positiboaren arabera erakundeekiko konfiantza handiagoa egon beharko lukenean. Beraz, hemen ikusi dezakegu kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzaren arteko erlazioa ahultzen dela.

Bi elementu hauen artean dagoen harremana ahula dela baieztatzeko beste bi fenomeno kontuan hartuko ditugu; batetik, kapital sozialak 2001 urtean gorakada bat jaso arren, urte horretan erakundeekiko konfiantzan ez dugu igoerarik antzeman, eta bestetik, kapital sozialaren azpi-arloak erakundeekiko konfiantzan modu esanguratsuan eragiten ez dutela ikusi dugu.

Guzti hau kontuan hartuta, ondorioztatu dugu atal teorikoan kontrakoa esan arren, kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzaren artean erlazio esanguratsurik ez dagoela.

Nire aburuz, nahiz eta kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzaren artean erlazioa ahula dagoela ondorioztatu dezakegun arren, bien artean harreman bat dagoela deritzot. Coleman-en kapital sozialaren ikuspuntu indibidualista oso interesgarria iruditzen zait gertaera hau aztertzeko, komunitatearekin ezartzen duen erlazioan zentratuz. Norbanakoen arteko interakzioak komunitatearentzako onurak sortzen ditu, eta aldi berean komunitatearen ongizateak pertsonengan eragin positiboa dauka. Planteamendu honetatik abiatuz, kapital soziala eta pertsonen ongizatearen arteko erlazio bat dagoela uste dut, izan ere, geroz eta pertsonen arteko interakzio gehiago egon, gizarte osoko konfiantza handituko da ongizate egoera bat sortuz, eta honek saihetsezinez erakundeekiko konfiantza handitzea eragingo du. Erlazio hau ahula izan daiteke, baina dudarik gabe bi kontzeptu hauen arteko erlazio bat dagoela esango nuke.

## **2- Espainiako eta Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza oso baxua da.**

Hurrengo ondorioak gure hipotesia baliogabetzen du, Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza Espainiakoa baino handiagoa ez baita.

Lehenik eta behin, esan bezala, bai Espainia eta bai Euskal Herri mailan erakundeekiko konfiantza oso txikia da. Espainia mailan 10 puntutatik konfiantza gehien sorrarazten duen erakundea 5,95-eko puntuaketa jasotzen du soilik, eta 14 erakundeetatik 12k jaso dute konfiantzan bost puntu baino gutxiago. Bestetik, Euskal Herri mailan, 15 erakundeetatik 10etan pertsonen %50ak baino gutxiago konfiatzen du. Ondorioz, begi bistan geratzen da bai Espainia mailan eta bai Euskal Herri mailan erakundeekiko konfiantza oso baxua dela.

Ala ere, Espainiako eta Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza aztertuz, hainbat ezberdintasun aurkitu ditugu. Hasteko, Euskal Herrian gertuago sentitzen diren erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, Eusko legebiltzarra...) Espainia mailako erakundeetan (gobernu zentrala...) baino konfiantza gehiago dago, gure hipotesia baieztatuz. Gertaera hau ez da soilik Euskal Herri mailan gertzen, Espainia mailan ere fenomeno hau ematen da, alegia, %35ak konfiatzen du gobernu lokalean eta soilik %29ak gobernu zentrolean.

Aipatzekoa da munduko gainontzeko herrialde gehienetan gobernu zentrala eta lokalaren arteko konfiantzan oreka bat mantentzen dela, Espainiaren kasuan ordea ez da hau gertatzen, eta Euskal Herriaren kasuan desoreka hau are eta gehiago nabarmentzen da.

Horrez gain, Europako herrialdeak alderatuz, Euskal Herriak dauka udalekiko konfiantza (%73), herrialdeko gobernuarekiko konfiantza (%74) eta herrialdeko parlamentuarekiko (%69) konfiantza handiena, Espainiak azkeneko postuak lortzen dituen bitartean.

Hortaz, nahiz eta Euskal Herrian eta Espainian erakundeekiko konfiantza antzekoa egon, gertuago sentitzen diren erakundeei dagokionez Euskal Herrian konfiantza gehiago dago.

Atal teorikoan aipatu bezala, erakundeen hurbiltasunak konfiantza gehiago sortzen du, erakundearen eskutik herritarren beharrak kontuan edukitzen direnaren sentsazio handiago bat sortzen baita. Herritarron eskubideak bermatu eta hauen errepresentazio egoki bat egiten ari direnaren sentimendu handiagoa sortzen da. Hurbiltasunak ere ezagutza dakartza eta denek daukagu konfiantza gehiago zerbait ezaguna denean ezezaguna denean baino.

Baina gertaera hau bereziki Euskal Herrian indar handia hartzen duela ikusi dugu.

Euskal Herriko bizitza kalitatea oso ona da, adibidez, osasun eta hezkuntza zerbitzuaren kalitateak oso onak dira Espainiakoarekin alderatuz, eta honek bertako erakundeengan konfiantza edukitzea eragingo du. Bestetik, kontzertu ekonomikoa edukiz, Euskal Herritarrek ordaintzen dituzten zergen kudeaketa gertuago burutzen da, diruaren kudeaketa hobeto egiten denaren sententzia gauzatuz, dirua Euskal Herriko pertsonen kudeatzen dutelako, agintariak, baina gertukoak eta euskaldunak.

Bestetik, Euskal Herria autonomia erkidego aberats bezala irudikatzen da gainontzeko estatuko autonomiekin alderatuz, eta Euskal Herriak estatu zentralari kuota ordaintzerakoan, estatuak jaso behar lukeen baino diru gehiago hartzen duenaren sententzia zabaldua dago. Honek, estatu zentralarekiko mesfidantza sortzen du, estatu zentralarekin erlazioan dauden erakundeetara mesfidantza zabalduz. Hori dela eta, Euskal Herriko autonomia ekonomikoa nagusitzeko nahia sortzen da, ardura bertako erakundeetara emateko nahiarekin eta bertako erakundeengan konfiantza gehiago ezarriz.

Horrez gain, Euskal Herrian Euskal sentimendu handi bat dagoela aipatu behar dugu. Hizkuntza, kultura eta tradizio propioak daude eta honek Euskal Herriko pertsonen artean konfiantza gehiago egotea eragiten du, Espainiako gainontzeko autonomiekin eta estatu zentralarekin identifikatzea galarazten duen bitartean. Baliabideak konfiatzen den pertsona batek kudeatzea nahiago izango da, horrexegatik Euskal Herriko erakundeengan utzi nahi izango da kudeaketa eta ardura, hauetan konfiantza gehiago jarritz.

Ondorioz, Euskal Herrian batez ere gertu dauden erakundeengan konfiantza gehiago dago.

### **3- Kapital soziala eta justiziarikiko konfiantzaren artean ez dago erlazio positiborik.**

Jada ikusi dugu kapital soziala eta erakundeetara konfiantzaren arteko erlazioa ahula dela, eta honetaz gain, kapital soziala eta justiziarikiko konfiantzaren artean erlazio positiborik ez dagoela ondorioztatu dugu.

Kapital soziala 2001 urtetik 2007 urte arte progresiboki igo egiten da, urte horien baitan justizia epaitegiekiko konfiantzak gora-beherak jasaten dituen bitartean. 2008 urtetik

aurrera kapital sozialak beherakada bat jasaten du, eta justizia epaitegiekiko konfiantzak ordea gorakada bat. Hortaz, bi kontzeptuak kontrako norabidea hartzen dute, bien arteko erlazio negatibo bat dagoen galdearazten gaituena. Esan dezakegu kapital sozialaren gainbeherak justizia epaitegietako konfiantza handitzea dakartzala?

Galdera honi erantzuteko hainbat elementu hartu behar ditugu kontuan. Lehenik eta behin, kapital sozialaren gainbeherak pertsonen arteko interakzioak gutxituko ditu, pertsonen arteko konfiantza beherea eginez. Pertsonen arteko konfiantza gutxitzean liskar gehiago sortuko dira eta, era berean, gatazka hauek beraien artean konpontzeko aukerak murriztuko dira, hau da, bide judizialetara jo gabe, bata bestearen artean konfiantza falta egongo baita. Honek, arazoak konpontzeko epaitegietara jotzea eragingo du, eta herritarrak justizia administrazioaren zerbitzuak jaso ostean hobeago baloratzen dituztela kontuan hartuta, esan dezakegu pertsonak bide judizialetara jotzeak, justizia administrazioarekiko konfiantza handitzea eragingo duela.

Ala ere, teoria hau kapital soziala eta justiziarekiko konfiantzaren artean erlazio negatibo bat dagoela esateko ez dugu hain sendoa kontsideratzen, izan ere 2007 urtetik aurrera ez dugu kapital soziala eta justiziarekiko konfiantzaren arteko parekotasunik aurkitu. Ondorioz, hauen artean erlazio negatiboa bat dagoela ezin dugu ziurtatu, baina baieztatu dezakegu bien artean erlazio positiborik ez dagoela.

#### **4- Erakunde guztien artetik erakunde altruistak dira konfiantza gehien sortarazten dutenak, eta herritarrek ez dute Justizia administrazioa erakunde altruista bezala irudikatzen.**

Beste ondorio argi bat, erakunde altruistetan gainontzeko erakundeetan baino gehiago konfiantzen dela da, bai Euskal Herri, bai Espainia eta bai Mundu mailan.

Erakunde hauek ez dituzte interes propioak babesten edo bilatzen, beraien helburu nagusia gizartea hobetzea da, hortaz hauetan konfiantza gehiago ezartzen da. Baina justizia administrazioa erakunde altruista kontsideratu dezakegu? Printzipioz, izaera altruista daukala esan dezakegu, pertsonak laguntzeko helburua baitu, baina esan bezala, jasaten dituen influentzia politikoak ugariak dira. Hauen ondorioz, justiziak interes espezifiko hauentzako jarduten duenaren sententzia sortuko da, eta erakunde altruistak

sorrarazten duten konfiantza galduko du. Beraz, gure ustez herritarrek ez dute justizia administrazioa erakunde altruista bat bezala irudikatzen.

#### **5- Espainiarekin alderatuta Euskal Herrian justiziarekiko konfiantza gutxiago dago.**

Euskal Herriko justiziarekiko konfiantza maila Espainiakorekin alderatuz txikiagoa da, gure hipotesia gaitzetsiz.

Europako 28 herrialdeen artean Euskal Herria 25. postuan kokatzen da, Espainia 22. postuan kokatzen delarik. Baina, zergatik dago justiziarekiko konfiantza gutxiago Euskal Herrian Espainian baino? Euskal Herrian Espainia mailan baino kapital sozial gehiago dago baina justiziarekiko konfiantza gutxiago, honek, kapital soziala eta justiziarekiko konfiantzaren artean erlazio negatiboa dagoela birplanteatzera eramaten gaitu.

Bestalde, aipatzekoa da justizia administrazioarekiko konfiantza maila autonomia erkidegoaren baitan gutxi gorabehera antzekoa dela.

#### **6- Justiziarekiko konfiantza faltan inpartzialtasuna da gehien eragiten duen ezaugarria.**

Europa mailan inpartzialtasunaren baitan okerrago baloratzen diren herrialdeak justiziarekiko konfiantza gutxien dituzten herrialdeak dira (Bulgaria, Kroazia, Eslovenia...). Modu berean, inpartzialtasunean puntuazio hoberenak lortzen dituzten herrialdeak konfiantzari dagokionez lehen postuetan kokatzen dira (Dinamarka, Finlandia, Austria...).

Datuek erakusten digute Espainiaren kasuan zehazki politikariek eta gobernariak burutzen dituzten presioengatik antzematen dela justiziaren inpartzialtasun eza. Aurretik aipatu dugun bezala, Espainian botere arteko mugak oso ahulak dira eta politikari eta gobernariak bai justizia eta poliziarengan burutu dituzten presioen kasu erreal asko argitaratu dira, justiziarekiko inpartzialtasunean eta ondorioz konfiantzan zuzenki eraginez.

Bestalde, justiziaren beste hainbat ezaugarri aztertu ditugu eta konfiantzarekin erlaziorik ez dutela ikusi dugu:

-Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruzko ebaluazio mota eta kopuruak: Logikoa iruditzen zaigu ezaugarri honek konfiantzan ez eragitea herritarrek ez baitute informazio hau errez antzematen. Nahiz eta Espainian urteen baitan ebaluazio mota gehiago ezartzen diren, nazioarteko konparaketan 15. postuan kokatzea kezkarria iruditzen zaigu. Gaur egun Espainian, urtero burututako ekintzen txostena, atzeratutako kasu kopurua, ohiko ebaluazio sistema, kasuen ebazpenak irauten duten denbora, apelatutako kasu kopuruak eta aplikatutako prozesuen ebaluaketak burutzen dira. Gainontzeko herrialde batzuekin alderatuz (Irlanda, Belgika, Luxenburgo...) burututako ebaluazio motak eta kantitateak egokiak direla esan dezakegu, baina ebaluazioa hauek zertarako balio dute?

Gaur egun Espainian justizia administrazioari buruzko ebaluaketak burutzen dituzten hainbat organo ditugu; Ministeritza fiskala, besteak beste, botere judiziala osatzen duten organoen independentzia bermatzeaz arduratzen dena, Justizia Ministeritza justizia sistemari buruzko ebaluaketa ezberdinak burutzen dituena, hala nola, baliabideei buruzko ebaluaketak, inbertsio ekonomikoari buruzko ebaluaketak, legeen inplantazioen eragina... eta BJKN-ak justizia sistemaren hainbat datu ezberdin jasotzen dituena, adibidez, abokatu, epaile eta fiskalen iritzia, egitura judizialari buruzko datuak, herritarrek justiziar buruz daukaten iritzia...

Ikusi dezakegunez ugariak dira justizia administrazioari buruz egiten diren informeak, baina eraginkorrak direla esan dezakegu? Gai honetan asko sakondu gabe, lehen begirada batean ebaluaketa hauen eraginkortasuna zalantzan jartzen dela ikusi dezakegu.

BJKN-aren independentzian zentratuz, aipatu bezala Ministeritza fiskala da botere judiziala osatzen duten organoen independentziaz arduratzen dena, eta nahiz eta ugariak izan BJKNko kideen hautaketa prozesuak jasotzen dituen kritikak, GRECO-rena barne, ez du hautaketa prozesu hau ebaluatu ezta kritikatu, argi geratzen denean botere judizialeko organo garrantzitsuenaren independentzia urratzen dela.

Baina bestetik, kontuan eduki behar dugu Estatuko fiskal generala hautatzeko prozesua zein den. Erregeak izendatzen du gobernuak proposatuta eta BJKNa entzunda. Hortaz, botere betearazleak bai BJKNko kideetan eta ministerio fiskalaren izendapenean esku

hartzen du, hau da, ez du soilik botere judizialeko organo nagusian eragiten, baizik eta organo honen independentzia bermatu behar duen karguan ere eragina dauka. Honela, ikusi dezakegu botere judiziala botere betearazlearen menpe geratzen dela.

- Prozesuei buruz ematen ohi den informazioa: Nazioarteko konparaketa aztertzean kasuei buruzko informazioa eta justizierekiko konfiantzaren artean ez dugu erlazorik aurkitu. Espainia kasuei buruzko informazioari dagokionez nazioarteko konparaketan 3. postuan kokatzen da, konfiantzari dagokionez ordea azken postuetan. Hala ere, honek ez du esan nahi kasuei buruzko informazioak ez duela Espainiako justizierekiko konfiantzan eragiten, baizik eta hau ez dela konfiantza baxuaren kausetako arrazoi bat.

- Prozesu bat ebazteko beharrezkoa den denbora. Nazioarteko konparaketaren datuak aztertuz, ikusi dugu ebazteko beharrezkoa den denbora eta justizierekiko konfiantzak ez daukatela erlazio positiborik. Espainia 17. Postuan kokatzea kezkarria iruditzen zaigu eta nahiz eta ezaugarri honek konfiantzarekin erlazio zuzena ez eduki, hobetu behar den aspektu bat dela iruditzen zaigu.

**7- Espainiako sistema judizialean burutzen den inbertsioa ez da honen funtzionamendu txarraren arrazoia, ezta ere justizierekiko konfiantzan eragiten duen faktore bat.**

Nazioarteko konparaketan, herrialde ezberdinetako justizia sistemen ezaugarriak alderatzean Espainia ia beti azkeneko postuetan kokatzen dela ikusi dugu, justiziaren funtzionamendu on bat ez dugunaren adierazlea izanik

Funtzionamendu desegokiari azalpen bat bilatzeko intentzioarekin, herrialde bakoitzean justizia administrazioan inbertitzen diren baliabide ekonomikoak alderatu ditugu. Espainiako gobernuak justizia administrazioan burutzen duen inbertsioa oso handia da 28 herrialdeetatik 11. postuan kokatuz.

Beste herrialde batzuk, Dinamarca adibidez, justizia administrazioaren ebaluaketetan lehen postuetan kokatzen da ia beti eta Espainiarekin alderatuz inbertsio ekonomiko baxuagoak dituztela ikusi dugu.



Hori dela eta, inbertsio ekonomiko altuak ez du justiziaren funtzionamendu on bat ziurtatzen, eta ondorioz ezta justizierekiko konfiantza bermatzen. Nahiz eta inbertsio handia egon, baliabideak ez badira behar bezala bideratzen, kontrako efektua lortuko du; batetik, funtzionamendu txarra egongo da eta bestetik, baliabide handiak eduki eta ondo bideratzen ez direla ikusiz, herritarren konfiantza gutxitzea eragingo du.

## **8- Herritarren ezaugarri indibidualak justizierekiko konfiantzan eragina daukate.**

Datuen bidez ondorioztatu dugu hiru ezaugarri indibidual hauek daukatela justizierekiko konfiantzan eragina:

- Ideologia: Ezkertiarrek justizierekiko konfiantza gutxiago daukate eskuindarrak baino, gure hipotesia betetzen delarik.

Eskuindarrak gaur egungo sistema kapitalistarekin identifikatuagoak sentitzen dira, bere ideologiarekin bat datorrelako, ondorioz, gaur egungo erakundeetan konfiantza gehiago edukiko dute, justizia administrazioan barne. Ezkertiarrek ordea, berdintasuna babesten dutenez, gaur egungo kapitalismoak sortzen dituen ezberdintasunekin ez dira ados egongo injustizia sentazio bat sorraraziz. Bestetik, azaldu dugun bezala, gaur egungo justizia administrazioa ez da guztiz inpartziala eta honek pertsona guztiak justiziaren aurrean berdin tratatuak ez izatea eragingo du, ezkertiarren justizierekiko konfiantza gutxituz.

- Klase soziala: klase sozial altuko pertsonen justizierekiko konfiantza altuagoa daukate klase sozial baxuko pertsonen baino, gure hipotesia berretsiz. Gaur egungo klase sozialak diruaren arabera antolatzen dira, eta datuek erakusten digutenez geroz eta diru sarrera altuagoa eduki geroz eta konfiantza gehiago edukiko da bai erakundeetan eta bai justizia administrazioan

- Ikasketa maila: Ikasketa mailak eta justizierekiko konfiantzak erlazio positibo bat daukate, hau da, geroz eta ikasketa maila altuagoa eduki geroz eta justizierekiko konfiantza gehiago edukiko da.

Azken hiru ezaugarri indibidual hauek elkar erlazionatuta daudela kontsideratzen dugu. Lehenik eta behin, klase soziala eta ikasketa mailaren arteko erlazio zuzen bat dagoela

esan dezakegu, geroz eta diru sarrera altuagoak eduki, geroz eta ikasketa kopuru gehiago egiteko aukerak edukiko bait dira. Bestetik, orokorrean diru sarrera altuak daukaten pertsonak eskuindar ideologiakoak izaten dira, diru sarrera baxuak dutenek ordea ezkertiarak.

Baina hiru ezaugarri hauetatik zeinek dauka justiziarikiko konfiantzan influentzia gehiena? Gure ustetan diru sarrerak izango du justiziarikiko konfiantzan eragin handiena, hau baita beste bi ezaugarri indibidualak edukitzeko aurrekaria.

Bestetik, norbanakoaren ezaugarrien artean adina kontuan hartu behar dugu. Justiziarikiko konfiantzari dagokionez ez ditugu ezberdintasunik aurkitu adinaren baitan, zerbitzuaren balorazioari dagokionez ordea bai, gazteek zerbitzuak okerrago baloratzen dituzte.

Fenomeno hau esplikatzen bi azalpen posible aurkitu ditugu; lehena, pertsona adintsuak zerbitzuekin errazago konformatzen direla izango zen, gazteek gehiago exijitzen duten bitartean, bigarrena, justizia administrazioak gazteen behar eta nahiak ez dituztela adintsuenak bezain kontuan hartzen.

Gure ustetan, lehen azalpenak azalduko du hobeto fenomeno honen zergatia. Gaur egun, gazteek fenomeno guztiei buruzko informazio ugari daukate eskura, bai telebista, internet eta sare sozialen bidez. Bide hauetatik gaur egungo arazo berri egotea erraza da eta arazo hauei aurre egiteko energia eta nahia handiagoa da gazteen artean adintsuen artean baino, konpromiso eta inizatiba sozialak handituz. Geroz eta adintsuagoa izan gauza txarrak onartzeko gaitasun handiagoa beraganatzen da, konformistagoak bihurtuz. Horrexegatik, gazteek justizia administrazioari zerbitzuak jasotzean adintsuak baino gutxiago konformatuko direla ondorioztatzen dugu, eta ondorioz puntuazio baxuagorekin baloratuko dituzte zerbitzuak.

Bestalde, hauteskundeetako parte hartzeari erreparatu behar diogu. Kapital soziala aztertu dugunean, ikusi dugu erakundeekiko konfiantza gutxi dutenek hauteskundeetan parte-hartze handia daukatela, baina justiziarikiko konfiantzarekin kontrako gertatzen da, justiziarikiko konfiantza baxua duten pertsonak hauteskundeetako parte-hartze baxua daukate.

Esan bezala, erakundeekiko konfiantza gutxi dutenek hauteskundeetan parte hartzen dute erakundearen egoera hobetzeko intentzioarekin. Justizia administrazioarekiko konfiantza

gutxi dutenek ordea hauteskondeetan parte hartze baxua daukate, parte hartzearekin justizian onurak burutzeko ezintasuna adieraziz. Baina herritarrok justizia administrazioa botere politikoarengatik influentziatua dagoela antzematen badute, bozkaketen bidez justiziaren egoera aldatzeko aukerak daudela pentsatu beharko dute, ezta?

Fenomeno hauen artean azalpen logiko posiblerik aurkitu ez dugunez, gure ustez pertsonak ez dut bere botoa aukeratzean justizia administrazioan pentsatuz, baizik eta beste arloetan erreparatuz, adibidez, baloreetan, konpromiso sozialean, ekonomian... Hortaz, gure ustez, hauteskondeetako parte hartzean eta justiziarekiko konfiantzaren artean erlazio zuzenik ez dagoela ondorioztatu dugu.

Beraz, ezaugarri indibidualei dagokionez, adinak, diru sarrerak, ikasketa mailak eta ideologiak edukiko dute eragina, hauteskondeetako parte hartzeak, generoak eta bizilekuak ordea justiziarekiko konfiantzarekin erlaziorik ez dutela ikusi dugu.

## **9- Espainiarren konfiantza ez dator errealitatearekin bat.**

Ezaugarri indibidualen artean pertsonen nazionalitatea aztertu dugu: Espainiar nazionalitatea daukaten herritarrek Espainiako justiziarekiko konfiantza gutxiena daukate, ondoren Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetako pertsonak edukiko genituzke eta azkenik Europar batasuneko herrialdeetako pertsonak edukiko dute Espainiako justiziarekiko konfiantza handiena.

Justiziarekiko konfiantzaren nazioarteko konparaketan ikusi dugu Espainia azken herrialdeen artean kokatzen dela gainontzeko Europar batasuneko herrialdeekin alderatuz, ondorioz, Europar batasuneko beste herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonak Espainiako justizia administrazioa bere herrialdekoekin alderatuko dute eta Espainiarrak baino okerrago baloratu behako lukete, baina ez da hau gertatzen, kontrakoa baizik.

Fenomeno honetaz gain, kontuan eduki behar dugu Espainiar herritarrek justizia administrazioaren zerbitzuak jaso ondoren hobeago baloratzen dituztela, hortaz, ondorioztatu dezakegu Espainiarrek justizia administrazioarekiko daukaten konfiantza ez datorrela errealitatearekin bat.

Komunikabideak izango dute fenomeno honekin zerikusi handia. Teorian aipatu dugun moduan, ugariak dira justiziaren funtzionamendua zalantzan jartzen dituzten berriak, eta esan bezala, hedabideek ez dute herritarren iritzia determinatzen baina ze gaiei buruz pentsatu eta eztabaidatu behar den bideratzen dute, eta justiziarekin zerikusitako berriak egunero azaleratzen dira. Hortaz, justizia administrazioaren funtzionamendua maiz komentatuta izatea, funtzionamendua maizago zalantzan jartzea eragingo du eta honekiko konfiantza gutxitzea ekarriko du.

### **10- Justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen, bertan lan egiten ez duten pertsonen baino okerrago baloratzen dute justizia administrazioa.**

Justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen 6,14 punturekin baloratzen dute justizia administrazioaren zerbitzuak, bertan lan egiten ez duten herritarrek ordea 7,76 punturekin baloratzen dute.

Epaile, fiskal, abokatu eta asoziazioak adierazten dute justizia administrazioarekiko desadostasuna. Kexa guztietatik hainbat ondorio aurkitu ditzakegu:

- Abokatuaren iritziz, justiziaren funtzionamendu txarra ez dator bertan lan egiten duten pertsonengandik, baizik eta justiziaren antolamenduarengandik. Ondorioz, %88ak justiziaren funtzionamenduak kanpo ebaluazio objektibo baten beharra duela diote.
- Justizia gaur egungo errealitate sozialera moldatu behar da. Batez ere delitu zehatz batzuetan, adibidez, genero indarkeria eta terrorismo delituetan.
- Epaileek ebazteko dituzten kasu kopuruengatik kexatzen dira, gehiegi direla esanez, baina justiziarekiko konfiantza handiagoa daukaten beste herrialdeekin alderatuz, hainbat herrialdeetan kasu kopuru gehiago ematen dituzte epaile gutxiagorekin eta denbora gutxiagoan. Hortaz, ez da seguruenik kasu kopuruaren arazo bat izango baizik eta baliabide eta prozesuaren arazo bat.
- Justizia administrazioan lan egiten duten langile talde guztiek justizia administrazioaren inpartzialtasun faltan salatzen dute. Bai orokorrean politikariek justizian burutzen dituzten presioengatik eta bai BJKN-ko kideak hautatzeko prozesuarengatik.
- Justizia administrazioan baliabide eskasak eta desegokiak daudela salatzen dute, batez ere baliabide informatikoei dagokionez.

- Aldaketa prozesalak beharrezkoak dira, bai kasu bat ebazteko beharrezkoa den denbora gutxitzeko eta kasuak kalitate hobegorekin ebazteko.
- Bestalde, komunikabideek justizia administrazioaren ekintzak objektiboki adierazten ez dituztela diote.

Justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen gain, hainbat erakunde publikok adierazi dute ere justiziarekiko funtzionamenduari buruzko hainbat kexa, batez justiziaren moteltasunarengatik, errealitate sozialarekin bat ez etortzeagatik eta baliabide informatiko desegokiak edukitzeagatik.

Hortaz, ikusi dezakegu justizia administrazioaren funtzionamendu eta antolamenduaren baitan hainbat gauza aldatu daitezkeela, alde batetik justiziaren funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko eta bestetik herritarrak justiziarekiko daukaten konfiantza maila handitzeko.

Laburbilduz, adituek planteatzen dituzten aldaketa esanguratsuenak hurrengoak dira: justiziaren ebaluazio objektibo baten beharra, gaur egungo justizia errealitatearekin bat etortzea, kasuak azkartzeko prozesuak hobetzea, baliabide informatikoak hobetzea, inpartzialtasun ezari aurre egitea eta komunikabideek justiziarekiko berriak objektiboki adieraztea.

## **4.2. Problematika honen ondorio sozial eta politikoak**

Justiziarekiko konfiantza faltak hainbat ondorio dakartza, bai arlo sozial eta bai arlo politikoan, bi hauek elkar osatzen direlarik. Jarraian ondorio esanguratsuenak aipatuko ditugu, kontuan edukiz ondorio hauek aldi berean beste ondorio bazuk sortuko dituztela.

Lehenik eta behin, justiziarekiko konfiantza faltak sistema demokratikoa ahulduko du.

Justizia administrazioarekiko konfiantza gutxitzeak, botere judizialarekiko konfiantza galtzea sortuko du, gaur egungo sistemaren hiru botereetako batean hain zuzen. Hiru botereek elkar osagarri dira, eta horietako batean konfiantza galtzen badugu, besteetara konfiantza falta hori zabalduko da.

Bestetik, beste bi faktore kontuan eduki behar ditugu. Lehenik eta behin, herritarrak ez dute beste bi botereetan konfiantza askorik, datuen arabera, parlamentu, gobernu zentrala eta alderdi politikoetan konfiantza gutxi dago. Beraz, botere judizialean gain beste bi botereetan konfiantza handirik ez dagoela ikusi dezakegu. Bigarrenik, botereen arteko mugak ondo finkatuta ez daudenez, batez ere botere betearazlea eta judizialaren artean, demokrazia eusten duen fundamentuetako bat, botereen banaketa urratzen da, sistema guztiarekiko mesfidantza areagotzea sortuz.

Sistema demokratikoarekiko konfiantza galtzeak hainbat ondorio edukiko ditu; Estatuak norabide txar bat hartzen duenaren sentrazioa sortuko da, mesfidantza orokorra zabalduko da, etorkizunean bizi kalitate on bat edukitzeko itxaropenak gutxituko dira... eta honek aldi berean beste hainbat ondorio sortuko ditu, adibidez, arlo politikoan muturreko alderdi politikoak indarra irabaziko dute, gaur egun Frantzian, Brasilen edo Espainian ere VOX alderdi politikoarekin gertatu den bezala.

Hitz gutxitan, justiziarekiko konfiantzak sistema demokratikoa kolokan jarriko du.

Horrez gain, legitimitatean eragina edukiko du. Justiziarekiko konfiantza jaisteak honek burutuko dituen ekintza guztietan konfiantza gutxitzea sortu du. Honetaz gain, justiziak esku-hartzen duen kasuetan justiziaren papera gehiago kritikatzeko joera egongo da, nahiz eta bere betekizuna ondo burutu.

Horrela, ba, justizia epaitegietara pertsona gutxiago joko dute. Aurretik aipatu dugun bezala, kapital sozialaren gainbeherak pertsonarteko mesfidantza sentrazioa sortzen du, hortaz, liskarrak bere kabuz ebatzi beharrean, justizia epaitegietara joko dute. Kontuan hartuta herritarrak justizia administrazioko zerbitzuak jaso ondoren hobeago baloratzen dituztela, fenomeno hau positibo izan litzateke justizia administrazioarekiko, honekiko konfiantza handitu egingo baitzen.

Baina herritarrak justiziarekiko konfiantza falta gutxi badaukate, eta kapital soziala gutxi baldin badago, ez dute liskarrak beraien artean konpontzen saiatuko, pertsonen artean konfiantza ez dagoelako, eta ez dute ezta justizia epaitegietara joko, hauekiko konfiantza oso baxua delako. Hortaz, liskarrak ebazteko beste modu batzuk bilatuko dituzte. Bakoitzak bere kabuz bilatuko ditu ebazpen posibleak eta honek indarkeriazko jarduerak sortzeko probabilitateak areagotuko ditu. Beraz, esan dezakegu justiziarekiko konfiantza faltak, indarkeriazko portaerak sortzeko probabilitateak handituko dituela.

Bestetik, indarkeriazko portaera hauen aurrean jarduteko moduak ere baldintzatuko ditu justiziarekiko konfiantza baxuak. Izan ere, delitu baten biktimak ez badu justiziarekiko konfiantzarik, jasandako portaera salatzeke joera gutxiago edukiko du, gertaera honen aurrean justiziak burutu dezakeen esku-hartzean konfiantzarik ez baitu.

Laburbilduz, konfiantza faltak delituaren sorkuntzan eta ebazpenean edo epaiketan eragin negatiboak eduki ditzakela ondorioztatu dezakegu.

Bestalde, anarkia sentazio orokorra sortuko da. Nahiz eta legeak argi adierazita egon, justiziarekiko konfiantza eza egonez, lege horiek urratzerakoan behar bezala epaituko ez denaren sentazioa sortuko da, aurreko ondorioan aipatu dugun bezala. Honek anarkia sentazioa bat sortuko du, nahiz eta errealitatean justiziaren funtzionamendua egokia izan pertsonen kontrakoa uste badute anarkia eta arbitrariotasun sentazioa sortuko da.

Beraz, justiziarekiko konfiantza gutxi edukitzeak ez du onurarik ekarriko gizartean.

### **4.3 Hobekuntzarako norabideak**

Jarraian, justiziarekiko konfiantzarekiko problematika aztertu ondoren, fenomeno hau hobetu dezaketen neurri posibleak azalduko ditugu.

Lehenik eta behin errepikatu behar dugu Espainiar herritarren justiziarekiko konfiantza ez datorrela errealitatearekin bat, hau da, justizia herritarrek uste duten baino hobeago funtzionatzen du. Hala ere, justiziarekiko funtzionamendua hobetu dezaketen neurri ugari daude, aldi berean konfiantza handituko dutenak.

Lehenengoz, oihartzun internazional handiena eduki duen arazoarekin ekingo dugu, BJKN-aren kideen izendapenarekin hain zuzen ere. GRECO-k espezifikoki adierazi du organo judicial honetako kideak hautatzeko prozesuarekiko desadostasuna, justiziaren inpartzialtasun printzipioa urratzen baitu.

Kontraesan bat dirudi BJKN-ko zereginetako bat Espainiako organo judicialen independentzia bermatzeko ardura izatea, organo hori osatzen duten kideak inpartzialtasuna bermatzen ez duen prozesu baten bidez hautatuak izan direnean.

Hortaz, kideen hautaketa prozesua aldatu beharko zela kontsideratzen dugu.

Gaur egungo prozesuan, kongresuak eta senatuak hautatzen dituzte kideak, baina gure ustez bi ganbera hauek ez lukete hautaketa prozesuan parte hartu beharko. GRECO-ren ustetan gutxienez Espainiako BJKN-ko kide erdien hautaketa epaile eta magistratuek esku utzi behar da, hortaz, Italiak gaur egun bere Magistraturako Kontseilu Nagusietako kideak hautatzeko prozesu ereduaren antza duen prozesu bat planteatzen dute. Italiak eredu mixto bat dauka, kideetako batzuk parlamentuak aukeratzen ditu eta beste batzuk magistratu eta epaileak. Nahiz eta prozesu honek inpartzialtasun gehiago bermatzen duen, botere legegileak esku hartzen duela ikusi dezakegu, botereen arteko mugak ahulduz. Bestetik, Italian prozesu hau jarraituz hainbat liskar sortzen dira magistratuen artean kideak hautatzerako orduan, horrenbestekoa da liskarra aukeratze prozesua “*gerra de togas*” izendatu dutela.

Hortaz, eredu hau izango zen egokiena? Nire aburuz prozesuan beste botereen ganbarak ez lukete parte hartu beharko, hau da, kideen hautaketa botere judiziala osatzen duten profesionalen eskuetan utziko nuke, organoaren kide izateko hainbat baldintza bete behar diren heinean.

Bestalde, planteatutako azken prozesuan beste botereek ez lukete inongo esku hartzerik izango, eta botere judiziala guztiz independentea izango zen, gaur egungo sistema demokratikoarekin bat ez datorrena ezta ere. Justizia gaur egungo errealitate sozialarekin bat etorri behar du, eta horretarako herritarren pentsamendu, balore eta nahiak kontuan eduki behar ditu. Honela, guztiz independentea izango balitz, ez luke aspektu hau bermatuko, justiziaren pentsamendua herritarren pentsamendutik urrundu zitezkelako. Ondorioz, nahiz eta justizia independente bat aldarrikatu, kontrol bat eduki behar duela ere uste dugu. Botere judizialak botere betearazlea eta legegileko kideak epaitzeko duen ahalmenaren antzera, botere betearazle eta legegileko kideak botere judizialeko kideak kontrolatzeko ahalmena eduki beharko lukete. Kontrola esaten dudanean, kanpo kontrol objektibo bateri egiten diot erreferentzia, ez influentziari, soilik beraien lana ondo burutzen dutela bermatzen duen kontrolari ain zuzen ere.

Modu honetan, ez zen botereen arteko influentzia eta nahasketa egongo, baina bai bata eta bestearen arteko kontrol erlazioa.

Bestetik, eta azken ideia honekin zerikusia duena, botere judizialeko organoen independentzia bermatzeaz arduratzen den organoa Ministeritza Fiskala da, baina ikusi dugun bezala, fiskal generala gobernuaren proposamenez izendatzen da BJKNa entzun



ondoren. Beraz, ez dugu bateragarria ikusten fiskal generalak BJKNari buruzko kritikak burutzea organo honek bere hautaketa prozesuan parte hartu duenean.

Ugariak dira fiskal generala hautatzeko prozesuak jasaten dituen kritikak eta hainbat juristek planteatu dituzte hautaketa prozesu honek sortzen duen dependentzia konpentsatzeko neurriak. Adibidez, estatuko fiskal generalaren aginduak sei urte baino gehiago irautea, honela gobernuaren aldaketa burutzean fiskal general berbera egoten jarraituko zen, edo eta fiskalaren kontseiluak fiskal generalaren boterea kontrolatzeko neurriak ezartzea.

Nahiz eta neurri hauek inplantatzeko legeak proposatu diren parlamentuak gehiengoarekin deuseztatu ditu. Beraz, argi ikusten da beste botereek justiziaren dependentziarekin bukatzeko intentziorik ez daukatela.

Bestalde, orain aipatu ditugun norabideak justiziarrekiko funtzionamendua hobetzeko balio dute, baina aztertu dugun moduan, Espainiarren justiziarrekiko konfiantza ez dator justizia sistemaren funtzionamenduarekin bat, hortaz, funtzionamendua hobetzeaz gain, konfiantza handitzeko neurriak hartu behar ditugula kontsideratzen dugu.

Ondorioztatu dugun bezala, konfiantza falta hau komunikabideen eraginez sortu daiteke. Izan ere, ugariak dira justiziaren funtzionamendua kritikatzeko duten berriak, eta justizian lan egiten duten profesionalen %91aren iritziz berri hauek ez dira objektiboki azaltzen. Hortaz, fenomeno hau konpontzeko soluzio bat aurkitu beharko litzatekela uste dut. Komunikabideak justiziarrekiko buruzko berriak ematea saihestea ezinezkoa da, eta gainera herritarrentzako eta sistemarentzako kaltegarria izango zela kontsideratzen dugu. Herritarrak sistema judizialaren gertaeren berri egotea fenomeno positibo bat dela iruditzen zaigu, sistemari buruzko informazio gehiago edukitzea ona baita. Baina informazio hau objektiboa ez denez, herritarren pentsamendua errealitatetik urrundu dezakegu.

Komunikabideek justizia administrazioaren ekintzak objektiboki azaldu beharko lituzkete, baina fenomeno hau kontrolatzea ezinezkoa da, ondorioz, informazio desegoki hau konpentsatzeko neurri bat bilatu beharko dugu, hau da, justizia administrazioak kasu mediatikoei buruzko ekintzak objektibo azaldu beharko ditu. Hau burutzeko plataforma egokiena internet iruditzen zaigu, hau baita gaur egun informazioa bilatzeko gehien erabiltzen den tresna, hortaz kasu mediatikoen sententziak interneten modu erraz batean

ikuskatzeko plataforma bat sortzea izango litzateke neurririk egokiena. Honela, kasu hauetan burutu diren pausuak laburbilduta eta modu errazean azalduta edukiz, komunikabideak azaltzen dutena kontrastatu ahalko litzateke, eta ondorioz, justiziaren funtzionamenduri buruzko ezagutza objektibo bat eskuratu.

Horrez gain, erakunde altruistekiko konfiantza gehiago dagoela jakinda, justizia administrazioa erakunde altruista modura irudikatzea egoki ikusten dugu, honekiko konfiantza handitzeko helburuarekin. Horretarako, erakunde hau inpartzialtasun bezala irudikatu beharko litzateke eta hasieran aipatu ditugun bi neurriak jarraituz honela irudikatzeke aukerak handituko zirela uste dugu. Hortaz, neurri hauek aplikatzeaz gain, neurri hauek burutu direla komunikatu beharko litzateke, herritarrek honen berri egoteko.

Hauek izango lirateke gure ustez justizia administrazioarekiko konfiantza handitzeko hartu beharko liratekeen neurri printzipalak.

### **4.3. Etorkizunerako erronkak**

Lana bukatzeko, etorkizunean aztertu beharko liratekeen hainbat fenomeno aipatuko ditugu.

Lehenik eta behin, kapital soziala eta justiziarekiko konfiantzaren arteko erlazioa sakonki aztertu beharko zela kontsideratzen dugu. Gure datu eta konklusioen bidez ondorioztatu dugu hauen artean erlazioa positiboa ez dagoela, hau da, kapital sozial gutxi egoteak ez du justiziarekiko konfiantza gutxi egotea ziurtatzen, eta alderantziz.

Baina erlazioa negatibo bat ez dutela ezin dezakegu ziurtatu. Datuek erakutsi digute kapital soziala gutxi egon den denbora tartetan justiziarekiko konfiantzak gora egin duela, eta alderantziz. Horrez gain, Euskal Herrian Espainian baino kapital sozial handiagoa egon arren justiziarekiko konfiantza txikiagoa daukagula kontuan hartu behar dugu.

Bestetik, herritarrak, kapital sozial gutxiago dagoenean, justizia epaitegietara gehiago jotzen dute liskarrak konpontzeko intentzioarekin eta kontuan hartuta herritarrak justizia administrazioaren zerbitzuak jaso ondoren hobeago baloratzen dituztela, kapital sozial gutxi egoteak justiziarekiko konfiantza handitzea ekar dezake.

Hala ere, erlazio negatibo hau dagoela ziurtatzeko erlazio honen arteko azterketa sakonago bat burutu beharko litzateke, beraz etorkizunerako lan posible baten hipotesi bezala planteatuko dugu.

Bigarrenik, justizia administrazioari leporatzen zaion inpartzialtasun eza hobetzeko hainbat neurri hartu daitezke. Besteak beste, alderdi politikoek burutzen dituzten presioak ekidin, eta botere arteko mugak sendotu, bereziki BJKN-ko kideen eta fiskal generalaren hautaketa prozesuari dagokionez. Beraz arazo hauek konpontzeko neurriak sakonago aztertu beharko dira.

Inpartzialtasunaz gain, funtzionamendua ere hobetu daiteke, baliabide informatikoak hobetuz, kasuak ebazteko epeak murrizteko aldaketa prozesalak burutuz... eta batez ere inbertsio ekonomikoa ondo bideratuz. Hortaz, nahiz eta gaur egun Espainian justizia sistemari buruzko ebaluazioak burutzen dituzten organoa ugari egon, praktikan hobekuntza asko burutu daitezke ikusi dezakegu. Hortaz, sistema judizialeko arazo larrienei soluzio bat emateko helburuarekin hainbat ebaluazio burutu beharko lirateke, bereziki, justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen iritzia kontuan hartuz, hauek baitira arazo hauek jasaten dituzten pertsona zuzenak, eta beti ere herritarren iritzia eta nahiak erreparatuz.

Jarraitzeko, herritarren konfiantza ezaugarri indibidualen baitan aztertu dugunean, oso ezberdintasun esanguratsuak aurkitu ditugu klase soziala, ikasketa maila eta ideologiaren baitan. Fenomeno hau azaltzeko hainbat esplikazio planteatu ditugu baina etorkizunean ikerketa soziologiko bat burutzeko oso gai interesgarria iruditzen zaigu.

Hortaz, nahiz eta hainbat ondorio aurkitu ditugun, etorkizunean aztertzeko oso gai interesgarriak eskaini dizkigu lan honek.

## Bibliografía

- (d.g.). [https://elpais.com/economia/2011/11/25/actualidad/1322209980\\_850215.html](https://elpais.com/economia/2011/11/25/actualidad/1322209980_850215.html)  
helbidetik eskuratua
- Aguiló, J. (1997). Independencia e imparcialidad de los jueces t argumentación jurídica. *Isonomía*, 71-78.
- Álvarez, P. (2017.eko Agostok 24). Jueces para la Democracia denuncia las "evidentes presiones políticas" en el caso de Juana Rivas. *El país*.
- Aranda López, M., Montes-Berges, B., Catillo-Mayén, M. R., & Higuera, M. (2014). Percepción de la segunda victimización en violencia de género. *Escritos de Psicología*, 7(2), 11-18.
- Assiego, V. (2017.eko Noviebren 24). Es normal que el feminismo desconfíe de la Justicia. *eldiario.es*. [https://www.eldiario.es/zonacritica/normal-feminismo-desconfie-Justicia\\_6\\_711538886.html](https://www.eldiario.es/zonacritica/normal-feminismo-desconfie-Justicia_6_711538886.html) helbidetik eskuratua
- Barandiaran, X., & Korta, K. (2011). *Gizarte Kapitala eta balioak Gipuzkoan*. Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Beramendi, M., Delfino, G., & Zubieta, E. (2016). Confianza Institucional y Social: Una relación Insoslayable. *Acta de investigación psicológica*, 2286-2301.
- Berganza Conde, R., Herrero, B., & Carratalá, A. (2016). La (des)confianza de los periodistas españoles hacia las instituciones públicas a partir del estudio de factores organizacionales. *Anuario electrónico de estudios en Comunicación Social*, 24-43.
- Bodelón, E. (2014). Violencia institucional y violencia de género. *Anales de la Cátedra Francisco Suárez*, 131-155.
- C. Arroyo, S. (2016). Justicia social y justicia penal: una visión crítica desde la criminología. *Unirrevista*.
- Cámara Ruiz, J. (2016). El riesgo de la judicialización en España. *Anuario de Facultade de Dereito da Universidade da Coruña*, 188-205.
- Canel, M. J., & García Molero, Á. (2013). Comunicar gobiernos fiables. Análisis de la confianza como valor intangible del Gobierno de España. *Zer*, 29-48.
- Colectivo IOÉ. (2011). Efectos sociales de la crisis. Una evaluación a partir del Barómetro social de España. *Papeles*, 177-188.
- Consejo general de la abogacía Española. (2018.eko Abril 25). El informe del Defensor del Pueblo detecta importantes problemas de la Justicia como servicio público. *El informe del Defensor del Pueblo detecta importantes problemas de la Justicia como servicio público*. <https://www.abogacia.es/2018/04/25/el-informe-del-defensor-del-pueblo-detecta-importantes-problemas-de-la-justicia-como-servicio-publico/> helbidetik eskuratua

- D. Putman, R. (2002). *Solo en la bolera*. Galaxia Gutenberg.
- Defensor del pueblo. (2017). *Informe anual 2017 y debates en las Corte Generales*. Madrid.
- Domínguez, I. (2017.eko Noviebren 8). El policía que destapó Gürtel acusa al PP de haber intentado "desestabilizar la investigación". *El país*.
- Duch, D. (2016.eko Oktubre 10). El informe del Grupo de Estados contra la Corrupción (GRECO) lamenta que no se atiendan sus recomendaciones. *La Vanguardia*.
- Edelman. (2015.eko Martxo 13). *slideshare.net*. slideshare.net: <https://www.slideshare.net/EdelmanSpain/trust-barometer-2015-spain> helbidetik eskuratua
- Edelman. (2017.eko Enerok 15). *Slideshare*. Slideshare: <https://www.slideshare.net/EdelmanInsights/2017-edelman-trust-barometer-global-results-71035413> helbidetik eskuratua
- Edelman. (2018). *2018 Edelman Trust Barometer*.
- El Diario Vasco. (2018.eko Enerok 15). La Diputación critica la lectura «restrictiva» del TSJPV sobre su plan de euskera. *El Diario Vasco*. <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/ladiputacion-muestra-total-20180115134659-nt.html> helbidetik eskuratua
- El Mundo. (2018.eko Maiak 22). Más del 60% de los jueces y fiscales participan en la primera huelga respaldada por todas las asociaciones. Madrid.
- El País. (2011.eko Noviebren 25). El Gobierno indulta a Alfredo Sáenz. *El País*. [https://elpais.com/economia/2011/11/25/actualidad/1322209980\\_850215.html](https://elpais.com/economia/2011/11/25/actualidad/1322209980_850215.html) helbidetik eskuratua
- eldiario.es. (2018.eko Noviebren 20). Las asociaciones de jueces creen que la renuncia de Marchena "le honra" y demuestra que la política no puede "dominar" el Poder Judicial.
- elplural.com. (2016.eko Febrerok 15). "Don Carlos", otro presidiario del PP con "trato especial". *elplural.com*. [https://www.elplural.com/politica/don-carlos-otro-presidiario-del-pp-con-trato-especial\\_76514102](https://www.elplural.com/politica/don-carlos-otro-presidiario-del-pp-con-trato-especial_76514102) helbidetik eskuratua
- Emakunde. (2007). Evaluación de Recursos Judiciales y Asistencia Letrada en materia de Maltrato Doméstico contra las Mujeres. *Respuesta Institucional ante el Maltrato Doméstico contra las Mujeres en el ámbito Judicialo y de la Asistencia Letrada en la CAPV*.
- Europa press. (2018.eko Juniok 13). PNV pide que el nuevo Estatus reconozca a Euskadi la capacidad de organizar la Administración de Justicia. Bilbao.
- European Commission. (2018). *Standard Eurobarometer 89 Spring 2018*. European Union.

- European Commission. (2018). *The 2018 EU justice scoreboard*. Luxemburg: European Union.
- European Commission. (2018). *The 2018 EU justice scoreboard. Quantitative data*. European Union.
- Fernández de Guevara Radoselovics, J., Pérez García, F., & Serrano Martínez, L. (2015). *Crisis económica, confianza y capital social*. Bilbao: Editorial Biblioteca Nueva S.L.
- G. Sevillano, E. (2017.eko Juliok 26). Archivada la causa contra la juez que preguntó a una víctima si “cerró las piernas”. *El País*.  
[https://elpais.com/politica/2017/07/26/actualidad/1501088157\\_064849.html](https://elpais.com/politica/2017/07/26/actualidad/1501088157_064849.html)  
 helbidetik eskuratua
- Gallo Rivera, M., & Garrido Yserte, R. (2009). El capital social ¿Qué es y por qué importa? *Instituto Universitario de Análisis Económico y Social*.
- García Añón, M., & Pía Iglesias, J. L. (2011). Una evaluación de la corrupción en materia de justicia. *Encuentros Multidisciplinares*(39).
- García España, E. (2013). La calidad de la justixia penal en España. *Revista de derecho penal y criminología*(10), 553-582.
- Gómez Bermúdez, J. (2017.eko Mayok 30). ¿Es la justicia española independiente del poder político? (L. sexta, Elkarriketatzaila)
- Gómez-Lobo, A. (1975). Trasimaco y el derecho. En la república de Platón .  
*revistas.uchile.cl*.
- Granda Alonso, J. (2015). El control constitucional de la justicia española. *Revista de derecho UNED*, 383-415.
- Gutiérrez, F. (2007). Justicia crítica. *foro judicial independiente*.
- Hernández, J. A., & Gil, J. (2016.eko Juliok 17). La Audiencia Nacional estudia apartar a López y Espejel del ‘caso Gürtel’ en Jerez. *El País*.  
[https://elpais.com/politica/2016/07/15/actualidad/1468538036\\_714231.html](https://elpais.com/politica/2016/07/15/actualidad/1468538036_714231.html)  
 helbidetik eskuratua
- Herreros Vázquez, F. (2010). *Valores y políticas que distinguen a los ciudadanos de derecha de los de izquierda*. Fundación Alternativas.
- Herri administrazio eta justizia saila. (2013). *Informe de satisfacción de la ciudadanía sobre la Administración de Justicia en la C.A.E.*
- Herri Administrazio eta Justizia saila. (2014). *Informe de satisfacción de los profesionales de la justicia sobre la Administración de Justicia en la C.A.E.* Eusko Jaurlaritza.
- Ilustre colegio de abogados de Madrid. (2015.eko Diciembrek 18). Las cuatro Asociaciones Judiciales reivindican las reformas estructurales necesarias para que la Justicia deje de ser la gran olvidada.

- Instituto Nacional de Estadística. Eurostat. (2013). *Indicadores de Calidad de Vida. Confianza en el sistema judicial. Datos de 2013.*
- Jara, A. (2005). Capital social y delitos violentos. Análisis para 101 comunas urbanas de Chile. *Rev. Est. de Políticas Públicas*, 193-212.
- Jiménez Díaz, J. (2013). Crisis económica, confianza institucional y liderazgos políticos en España. *Barataria*, 125-141.
- Jordana, J. (2000). Instituciones y capital social: ¿qué explica qué? *Revista Española de Ciencia Política*, 187-210.
- Jorge, J. E. (2006). La confianza interpersonal en la Argentina. Universidad Nacional de La Plata.
- Jourová, V. (2017.eko Aprilk). The 2017 EU justice scoreboard. *The 2017 EU justice scoreboard*. European Commission.
- La Vanguardia. (2018.eko Noviebrek 06). Gobierno defiende la Justicia española frente críticas por sentencia de Otegi. *La Vanguardia*.  
<https://www.lavanguardia.com/politica/20181106/452781592035/gobierno-defiende-la-justicia-espanola-frente-criticas-por-sentencia-de-otegi.html>  
 helbidetik eskuratua
- Laso, E. (2010). La confianza como encrucijada: cultura, desarrollo y corrupción. *Athenea Digital*, 97-117.
- Liendo, N. (2011.eko Juniok). *El crecimiento económico y la confianza en las instituciones de gobierno: Un análisis comparado de la evolución en las percepciones de las élites y los ciudadanos de América Latina*. (I. d. Iberoamérica, Ed.) España: PNUD.
- López Fernández, M., Martín Alcázar, F., & Romero Fernández, P. (2007). Una revisión del cocepto y evolución del capital social. 1060-1073.
- Luhmann, N. (2005). *Confianza*. Anthropos.
- Marco Marco, J., & Nicasio Varea, B. (d.g.). La regeneración del sistema. *Reflexiones en torno a la calidad democrática. el buen gobierno y la lucha contra la corrupción*.
- Marraco, M. (2018.eko Noviebrek 6). Estrasburgo sentencia que el tribunal que condenó por terrorismo a Otegi no fue imparcial. *El mundo*.  
<https://www.elmundo.es/espana/2018/11/06/5be15f9f468aeb99178b4628.html>  
 helbidetik eskuratua
- Martín Cabello, A. (2015). La desconfianza en las instituciones como expresión del cambio político y cultural. *Aposta. Revista de ciencias sociales*, 33-70.
- Martínez i Coma, F., & Sanz Labrador, I. (2009.eko Octubrek). ¿Qué determinan las opiniones sobre la justicia? Un estudio cuantitativo. *Revista Española de Ciencia Política*. (21), 69-90.

- Mayoral Díaz-Asensio, J., & Martínez i Coma, F. (2013). La calidad de la Justicia en España. *Estudios de progreso. Fundación alternativas*.
- Mazkieran, N. (2018.eko Octubrek 15). 700 días de prisión de los de Altsasu. *Noticias de Navarra*.  
<https://www.noticiasdenavarra.com/2018/10/15/sociedad/navarra/700-dias-de-prision-de-los-de-altsasu-helbidetik-eskuratua>
- Medina Guijarro, J. (2005). La legitimidad de las instituciones superiores de control. *Revista Española de Control Externo*, 13-41.
- Metroscopia. (2009). *La justicia Española evaluada por los abogados*.
- Metroscopia. (2015). *Clima de opinión de la abogacía. Barómetro interno del consejo general de la abogacía Española 2015*.
- Ministerio de la presidencia, relaciones con las cortes e igualdad. (2019.eko Juniok). Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas.
- Murillo Torrecilla, J., & Hernández Castilla, R. (2011). Hacia un concepto de justicia social. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*.
- Navarro, J. (2018.eko Juliok 18). Los privilegios de Urdangarin en la cárcel le colocan en el centro de la diana. *elnacional.cat*.  
[https://www.elnacional.cat/enblau/es/casa-real/urdangarin-carcel-visitas-familiares\\_289029\\_102.html](https://www.elnacional.cat/enblau/es/casa-real/urdangarin-carcel-visitas-familiares_289029_102.html) helbidetik eskuratua
- Onghena, Y. (2003). Introducción: ¿Por qué la confianza? *CIDOB*, 7-16.
- Paramio, L. (1999). Sin confianza no hay democracia: electores e identidades políticas. *Instituto de Estudios Sociales Avanzados (CSIC)*, 183-201.
- Pena-Lopez, A., & Sánchez Santos, J. (2013). El capital social individual. J. Veira Veira en, *Desigualdad y capital social en España* (or. 11-31). Netbiblo.
- Pérez García, F., Montesinos Santalucía, V., Serrano Martínez, L., & Guevara Radoselovics, J. (2005.eko Abrilak). La mediación del capital social. Una aproximación acónómica. *La mediación del capital social. Una aproximación acónómica*. Fundación BBVA.
- Portes, A. (2013). *Sociología económica*. Madrid: Centro de investigaciones sociológicas.
- Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. (2018). 68. *Euskal Soziometroa*. Eusko Jaurlaritza.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2014). 55. *Euskal Soziometroa - Osasungintza-*. Eusko Jaurlaritza.
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2016). 61. *Euskal Soziometroa - Euskal gizartea etorkizunaren aurrean-*. Eusko Jaurlaritza.



- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2017). *Euskal iritzi publikoaren urtekaria*. Eusko Jaurlaritzia.
- Real Academia Española*. (d.g.). Real Academia Española: [www.rae.es](http://www.rae.es) helbidetik eskuratua
- Rifá. (d.g.).
- Rifà Jané, R. (2017). La Confianza en las Instituciones Políticas en España. *Doctorado*. Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona.
- Rodríguez, H. (2009). La confianza pública en las instituciones reguladoras del riesgo: tres modelos de confianza para tres desafíos del análisis del riesgo. *Argumentos de Razón Técnica*, 125-153.
- Rosa, I. (2016.eko Mayok 16). Enaltecer el franquismo no es delito, acuérdate. *eldiario.es*.  
[https://www.eldiario.es/zonacritica/Guadamur\\_Franquismo\\_6\\_516608358.html](https://www.eldiario.es/zonacritica/Guadamur_Franquismo_6_516608358.html) helbidetik eskuratua
- Rosanvallón, P. (2008). *La legitimidad democrática. Imparcialidad, reflexividad, proximidad*. Buenos Aires: Manantial.
- Rubio Ferreres, J. (2009). Opinión pública y medios de comunicación. Teoría de la agenda setting. *Gazeta de Antropología*.
- Ruiz Álvarez, R. (2016). *El Sistema Judicial Español*. Chiado.
- Segovia, C., Haye, A., González, R., Manzi, J., & Carvacho, H. (2008). Confianza en instituciones políticas en Chile: un modelo de los componentes centrales de juicios de confianza. *Revista de ciencia política*, 39-60.
- SIGMADOS. (2015). *Encuesta de ámbito nacional a todos los jueces o magistrados en servicio activo. 2015*.
- Toharia Cortés, J., & García de la Cruz Herrero, J. (2005). La justicia ante el espejo: 25 años de estudios de opinión del CGPJ.
- Ubieto Oliván, A. (2018). La violencia sexual como violencia de género: una perspectiva desde el derecho internacional de los derechos humanos. *Femeris*, 3(2), 165-170.
- Vázquez García, R. (2009). Tesis doctoral. *La importancia del compromiso cívico en democracia. Los efectos democráticos del asociacionismo sociopolítico en España*. Universidad de Granada.
- Wolters Kluwer. (d.g.). *guiasjuridicas.wolterskluwer.es*.  
[http://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUMjC1MTtbLUouLM\\_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAscjvhTUA AAAA=WKE](http://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUMjC1MTtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAscjvhTUA AAAA=WKE) helbidetik eskuratua

Zizumbo Colunga, D., Zechmeister, E., & A. Seligson, M. (2010). Capital social y crisis económica en los Estados Unidos. [www.AmreicasBarometer.org](http://www.AmreicasBarometer.org).


Zubero Beascochea, I. (2012). *Kapital soziala*. Eustat.

Zubero, I. (2010). *Confianza ciudadana y capital social en sociedades multiculturales*. Ikuspegi.

# Justiziarekiko konfiantza maila Euskal Herrian eta Espainian

## **TXOSTEN EXEKUTIBOA**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Amane De la Fuente Errazkin-ek eginiko lana

Auxkin Galarraga Ezpondak zuzenduta

## **AURKIBIDEA**

1.SARRERA.....	103
1. 1. Sarrera.....	103
1.2. Lana burutzeko motibazioak eta interes kriminologikoa.....	103
1.3. Helburuak eta hipotesiak .....	104
2. Justiziarekiko konfiantza teorikoki aztertuta.....	105
3. Datu sekundarioen azterketa.....	105
4. Ondorioak eta hobekuntza posibleak.....	106
5. Praktikan gure lanaren ikerkuntzak non aplikatu daitezkeen eta lan hau irakurtzea interesgarria izango litzatekeen erakundeak.....	107

## **1.SARRERA**

### **1. 1. Sarrera**

Txosten exekutibo honetan gure Gradu Amaierako Lanari buruzko laburpen bat burutuko dugu, gai honetan interesa eduki ditzaketen pertsonen gure lanaren edukiari buruzko hurbilpen bat eduki dezaten.

Lehenik eta behin, lana burutzeko motibazioak, helburuak eta hasieran planteaturiko hipotesiak izendatuko ditugu.

Bigarrenik, teorikoki eta enpirikoki zer aztertu dugun aipatuko dugu.

Ondoren, lanaren baitan lorturiko ondorioak zerrendatuko ditugu, hobekuntzak ze arloetara zabaldu daitezkeen azalduz.

Azkenik, gure lana, praktikan non aplikatu daitekeen adieraziko dugu eta gure gradu amaierako lana irakurtzean interesatuak egon daitezkeen erakundeak aipatuko ditugu.

### **1.2. Lana burutzeko motibazioak eta interes kriminologikoa.**

Familiarekin edo lagunekin izandako elkarrizketetan ugariak dira justiziaren funtzionamendu txarrari buruz aipatzen diren iruzkinak, honekiko konfiantza gutxi azaleratzen duten bitartean. Komunikabideetan askotan ere agertzen dira justiziarekin zerikusia daukaten berriak eta hauetan erakunde honen eginkizuna etengabe zalantzan jartzen da, honek justiziarekiko ideia orokor txar bat eraikitzen digun heinean.

Graduan zehar ordea, justiziar buruzko teoria ikasterakoan funtzionamendu on bat duenaren ideia bereganatu dut, justiziaren funtzionamendu erreal eta herritarrak honekiko daukaten pertzepzioa bat ez datorrenaren sententzia edukiz. Horrexegatik, fenomeno honen zergatiaren erantzuna bilatzea interesgarria iruditzen zait, eta horixe bera da lan honen helburu printzipala.

Bestalde, kriminologia graduan zehar, askotan aipatu dugu zeharka justiziarekiko konfiantzaren kontzeptua, batez ere delituen prebentzio eta ebazpenetarako garrantzia duela azpimarratuz, baina ez dugu gai hau sakonki aztertu. Hortaz, interesgarria iruditu zitzaidan Gradu Amaierako Lanean fenomeno hau aztertzea, kriminologiari hainbat ekarpen garrantzitsu eskaini ditzakelako.

### **1.3. Helburuak eta hipotesiak**

Esan bezala, justiziaren funtzionamendu erreala eta herritarrak honekiko daukaten pertzepzioaren arteko ezberdintasunaren zergatia bilatzea izango da lan honen helburu printzipala.

Hortaz, Espainia eta Euskal Herri mailan justiziarekiko konfiantza mailan zentratuko gara, eta konfiantza falta honen kausak aztertzeaz gain, konfiantza maila handitzeko planteamenduak burutuko dira.

Guzti hau aztertu baino lehen, hainbat hipotesi planteatu dira:

- Erakundeekiko konfiantza mailak eta kapital sozialak erlazio positiboa daukate.
- Gertuago sentitzen ditugun erakundeetan urrunago sentitzen ditugunetan baino konfiantza gehiago daukagu.
- Erakunde altruistetan erakunde ez altruistetan baino konfiantza gehiago daukagu.
- Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza Espainiakoa baino altuagoa da.
- Euskal Herriko justiziarekiko konfiantza maila Espainia eta Europar Batasuneko mailarekin alderatuz, handiagoa da.
- Justiziarekiko konfiantza maila pertsonen ezaugarri indibidualen baitan ezberdina da, batez ere hurrengo ezaugarrien baitan:
  - o Justizia sisteman lan egiten duten pertsonak bertan lan egiten ez duten pertsonak baino gehiago konfiantzen dute.
  - o Maila ekonomiko altuko pertsonak maila ekonomiko baxuko pertsonak baino gehiago konfiantzen dute.

## **2. Justiziarikiko konfiantza teorikoki aztertuta**

Lehenik eta behin, justiziarikiko konfiantza teorikoki aztertu dugu.

Kapital sozialaren kontzeptua definitu ondoren, azken urteetan batez ere mendebaldeko gizarteetan hainbat faktoreen ondorioz (teknologiaren erabilera, aisialdi denbora pasatzeko modu berriak...) kapital sozialaren gainbehera bat gauzatu dela ikusi dugu eta gainbehera honek ondorio negatibo asko dakartzala, besteak beste, erakundeekiko konfiantza gutxituko dela, justizia sistemarikiko konfiantza barne.

Bestetik, justiziaren konfiantzan eragin dezaketen ezaugarri nagusien artean, justiziaren politizazioa, partzialtasuna eta eraginkortasun falta aztertu ditugu

## **3. Datu sekundarioen azterketa**

Lan honetan hainbat datu sekundario aztertu ditugu, bi helburu nagusirekin; konfiantza maila baxuaren zergatiak identifikatu eta konfiantza maila handitzeko planteamenduetarako informazio baliagarria biltzea.

Lehenik eta behin, kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzari buruzko datuak bildu ditugu, azken urteetan gainbehera bat eduki duten aztertzeko. Era berean, bi datu mota hauek alderatu ditugu bi kontzeptuen artean erlazioa dagoela ikusteko.

Ondoren, erakundeetan zentratuz, konfiantzan eragina duten ezaugarriak aztertu ditugu, esan bezala, konfiantza baxuari azalpen bat aurkitzeko intentzioarekin.

Jarraian, justiziarikiko konfiantzan murgildu gara. Nazioarteko konparaketa burutu dugu, konfiantzan eragiten duten justizia sistemako ezaugarriak aztertzeko eta Espainiako justiziarikiko egoera aztertzerakoan erreferentziak edukitzeko.

Honen harira, justiziarikiko konfiantzak maila geografikoaren baitan dituen ezberdintasunak aztertu ditugu; Espainiako autonomia erkidego , Euskal Herriko eta Europar Batasuneko konfiantza mailak kontuan hartuz.

Bestetik, justiziarekiko konfiantza talde sozial ezberdinen baitan ikuskatu dugu, herritarren zein ezaugarri indibidualak duen konfiantzan eragina aztertzeke helburuarekin.

Azkenik, justizia sistemako profesionalen eta adituen iritziak kontuan hartu ditugu. Justizia sistemako konfiantza baxuaren zergatia teknikoki ikuskatzeko helburuarekin.

#### **4. Ondorioak eta hobekuntza posibleak**

Behin gure gaia teorikoki eta enpirikoki aztertu ondoren, hainbat ondorio atera ditugu, gure hipotesiak betetzen diren konprobatu ditugun heinean:

- Kapital soziala eta erakundeekiko konfiantzaren arteko erlazioa ahula da
- Espainiako eta Euskal Herriko erakundeekiko konfiantza oso baxua da.
- Kapital soziala eta justiziarekiko konfiantzaren artean ez dago erlazio positiborik.
- Erakunde guztien artean erakunde altruistak dira konfiantza gehien sortarazten dituztenak, eta herritarrek ez dute Justizia Administrazioa erakunde altruista bezala ikusten.
- Espainiarekin alderatuta Euskal Herrian justiziarekiko konfiantza gutxiago dago.
- Justiziarekiko konfiantza faltan inpartzialtasuna da gehien eragiten duen ezaugarria.
- Espainiako sistema judizialean burutzen den inbertsioa ez da honen funtzionamendu txarraren arrazoa, ezta ere justiziarekiko konfiantzan eragiten duen faktore bat.
- Herritarren ezaugarri indibidualak justiziarekiko konfiantzan eragina daukate.
- Espainiarren konfiantza ez dator errealitatearekin bat.
- Justizia administrazioan lan egiten duten pertsonen, bertan lan egiten ez duten pertsonen baino okerrago baloratzen dute justizia administrazioa.

Ondorio guzti hauen arabera, konfiantza faltaren arazoa hobetzeko hainbat planteamendu burutu ditugu. Hasteko, justizia sistemaren inpartzialtasuna bermatzeko hainbat arlotan aldaketa batzuk burutu behar dira, batez ere fiskal generalaren eta BJKN-ko kideen hautaketetan. Honen harira, estatuko botereen mugak zurrungoak izan beharko



liratekeela proposatu dugu, beti ere hauen arteko kontrol erlazio bat egon behar duelarik. Bukatzeko, komunikabideek justiziarri buruzko berri subjektiboak kontrastatzeko norabide bat proposatu dugu.

## **5. Praktikan gure lanaren ikerkuntzak non aplikatu daitezkeen eta lan hau irakurtzea interesgarria izango litzatekeen erakundeak**

Gure lanaren baitan lortu dugun informazioa arlo askotarako baliagarria izan daiteke.

Lehenik era behin, erakundeentzat erabilgarria izan daiteke. Alde batetik, herritarrek hauekiko daukaten konfiantza mailak eduki ditzakeen ondorioak identifikatzeko, eta bestetik, konfiantza handitzeko neurriak planteatu behar dituztenean ze faktore kontuan eduki behar dituzten jakiteko. Hortaz, bai erakunde pribatu bai publikoentzat onuragarria izango litzateke lan hau irakurtzea. Baina bereziki, justizia sistemaren baitan kontuan hartu beharko lirateke datu hauek. Erakunde honekiko konfiantza maila handitzea ezinbestekoa delako, ez soilik delituen prebentzio eta ebazpenetarako, baizik eta gizarte osoaren ongizaterako.

Azkenik, kriminologia ikasketetan ere interesgarria izango litzateke gure laneko edukiak kontuan hartzea. Justiziarekiko konfiantzak kriminologikoki hainbat ondorio ditu eta delituen testuingurua ulertzeko lagungarria izango litzatekela kontsideratzen dugu. Hortaz, kriminologia gradua eskaintzen duten unibertsitateentzat lan hau irakurtzea interesgarria izango litzatekeela iruditzen zaigu.